



BILBOKO UDALA

**TEST MOTAKO GALDERAK ZATI
OROKORREKO GAIEI BURUZ
4. edizioa**

2023-11-10

AURKEZPENA

Udal honen hautaketa-prozesuetako gai-zerrendaren zati orokorrari lotutako aurrez argitaratutako galdera sorta tresna erabilgarri eta eraginkorra bihurtu da hautaketa-prozesuak prestatu, garatu eta gauzatzeko, eta hala erabili izan da 2018ko abenduan lehen edizioa argitaratu eta ezarri zenetik.

2019ko urrian, galdera sortaren bigarren edizioa argitaratu zen, eduki batzuk eguneratzeko, beharrezkoa baitzen haiek une horretan indarrean zegoen araudira egokitzea. Edizio hori indarrean egon zen 2022ko urtarrilera arte. Orduan, sakonki berrikusi behar izan zen galdera sorta, ia hiru urteko indarraldian izandako lege-aldaketak jasotzeko.

Hala, 2022ko maiatzean, hirugarren edizioa argitaratu zen, Eusko Legebiltzarrak 1/2022 Legea onartu baitzuen (1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea – aurrerantzean, EGBL– bigarrenz aldatzen duena). Aldaketa horrek bete-betean eragin zion gai-zerrendako **10. gaiari**; izan ere, aipatu legearen lehen artikulua arabera gaiaren izena aldatu behar zen, eta honela izendatu: **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legea**.

Orain, bateriaren **laugarren edizioa** aurkeztuko dugu; edizio honek azken lege-aldaketak jasotzen ditu. Alde batetik, **Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea** argitaratu da (2022ko abenduaren 26ko EHAA, 245. zk., eta 2023ko urtarrilaren 6ko BOE, 5. zk.), eta, ondorioz, gai-zerrenda orokorraren **6. gaiaren** izenburua aldatu behar da; honela izango da aurrerantzean: **6. gaia: 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa**. Horrez gain, aldatu dira **176.etik 210.era bitarteko galderak**, biak barne, lege berriaren arabera idatzi baitira.

Bestetik, Eusko Legebiltzarrak onartu egin du 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena. Testu bategin hori 2023ko martxoaren 27ko EHAAn (60. zk.) eta 2023ko apirilaren 14ko BOEn (89. zk.) argitaratu zen, eta, hura indarrean jartzearen ondorioz, izena aldatu behar zaio gai-zerrenda orokorraren **10. gaiari**; honela izango da aurrerantzean: **10. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena**.

Ondorioz, **10. gaian**, aldaketak egin dira **316. galderatik 342. galderara** (biak barne), galderok adierazitako testu bateginaren edukira egokitzeko.

Aurrekoaren harira, azpimarratzekoa da udalaren webgunean eta 2023ko ekainaren 8ko BAO (110. zk.) argitara eman direla aldaketa horien berri emateko iragarkiak. Hain zuzen, argitara eman da 6. eta 10. gaien edo oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez egonkortzeko 13 prozesutako gai-zerrendetako haien baliokideen aldaketa, **Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeari eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuari** lotutako gaien legeak eguneratzearen ondoriozkoa.

Izena emateko epea 2023ko uztailaren 1etik aurrera ireki duten hautaketa-prozesu guztiei aplikatuko zaie galdera sortaren laugarren edizio hau.

Hona hemen aldatu diren galderak, interesdun guztiek izan dezaten haien berri:

8. gaien, "31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea" izenekoan, **248.** galdera aldatu da.

11. gaien, "Kontratazio Administratiboa" izenekoan, **378.** galdera aldatu da.

12. gaien, "Giza baliabideak erregulatzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk" izenekoan, **405, 406** eta **407** galderak aldatu dira.

Azkenik, edizio honetan, **gaikako galderen aurkibide bat** eta aldatutako galderen laburpen-taula bat txertatu da galdera sortaren amaieran, interesdunek errazago kontsultatu ahal izan dezaten.

Bilbon, 2023ko azaroaren 10an.

Giza Baliabideak Antolatzeko eta
Kudeatzeko Zuzendaritza

Oharra. Administrazio honek **ez ditu inola ere erantzun zuzenak argitaratuko, ezta jakinaraziko ere.** Hautagai bakoitzaren erantzukizuna da galderak prestatzea, ikastea eta erantzunak aurkitzea.

ARAU-ERANSKINA

Laburdura	Arau juridikoa
EK	1978ko Espainiako Konstituzioa.
EHAE	3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomiari buruzkoa. Euskal Herriko Autonomia Estatutua.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
TAOL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
APAPEL	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
EFPL	11/2022 Legea, abenduaren 1 ekoa, Euskal funtzio Publikoari buruzkoa,
OENL	10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Oinarrizkoa Euskararen erabilera normalizatzeko.
LAPL	31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
DPBLO	3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.
(EB) 2016/679 ERREG.	2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa.
EGBL	1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako eta Emakumeen kontrako indarkeria Matxitarik gabe Bizitzeko Legea.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
EPOELB	5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
LEZE	1405/1986 Errege Dekretua, ekainaren 6koa, Langileen Erregistro Zentralaren Erregelamendua eta gainerako administrazio publikoekiko koordinazio-arauak onartzen dituena.

AURKIBIDEA

ZATI OROKORREKO GAIAK

ZK.	GAIA	OR.
1	1. GAIA. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.	8-16
2	2. GAIA. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.	17-27
3	3. GAIA. Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien udal-antolaketa (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. titulua).	28-37
4	4. GAIA. Bilboko Udalaren antolaketa. Erregelamendu organikoak.	38-48
5	5. GAIA. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.	49-59
6	11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, EAEko enplegatu publikoaren ondainsari sistema. Eskubideak, betebeharrak, jokabide-kodea. EAEko enplegatu publikoen bateraezintasunak eta erantzukizunak. Diziplina-araubidea.	60-72
7	7. GAIA. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.	73-83
8	8. GAIA. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea.	84-93
9	9. GAIA. Datuen babesa: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Erregelamendu horrek 95/46/EB Zuzentaraua baliogabetu du.	94-106
10	10. GAIA. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako eta Emakumeen kontrako indarkeria Matxistarik	107-121

	gabe Bizitzeko Legea. Andrazkoen eta gizonezkoen arteko aukera Berdintasunerako Udalaren V. Plana.	
11	11. GAIA. Kontratazio administratiboa. Motak: kontratu publikoen elementuak eta subjektuak, eta objektua eta kausa. Kontratazioaren forma eta kontratistak aukeratzeko sistemak. Kontratuak formalizatzea.	122-132
12	12. GAIA. Giza baliabideak erregulatzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.	133-143
13	13. GAIA. Toki-erakundeen zerbitzuko langileak: motak eta araubide juridikoa. Toki-administrazio funtzio publikoa: toki-administrazio funtzionario motak. Langileak antolatzeako tresnak: plantillak eta lanpostuen zerrendak.	144-155
14	14. GAIA. Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontuaren egitura. Aurrekontuak egin eta onestea. Aurrekontuaren luzapena. Aurrekontua betearaztea eta likidatzea.	156-167
15	15. GAIA. Toki-erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak.	168-177
16	16. GAIA. Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzailea. Arartekoa.	178-186
17	17. GAIA. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzea. Nola banatzen diren eskumenak Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia-estatutuan.	187-196
18	18. GAIA. Botere judiziala. Justizia Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, eremua eta osaera.	197-206
	GALDEREN AURKIBIDEA, GAIKA	207-208
	LABURPEN TAULA	209
(*)	LEGEZKO ABISUA	210-211

1. GAIA. 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOA. PRINTZIPIO OROKORRAK. OINARRIZKO ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK.

(1tik-35era)

1.- ZERTAN OINARRITZEN DA KONSTITUZIOA?

- 1.a) Espainiako nazioaren batasunean.
- 1.b) Espainiako nazioa osatzen duten herri eta nazionalitate guztien batasun konpromisoan.
- 1.c) Espainiako nazioaren batasun zatiezinean.
- 1.d) Espainiako nazioa osatzen duten herrien aniztasunean.

2.- KONSTITUZIOAK HONAKO HAUEK ALDARRIKATZEN DITU ANTOLAMENDU JURIDIKOAREN BALIO NAGUSITZAT:

- 2.a) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
- 2.b) Askatasuna, justizia eta lehia askea.
- 2.c) Askatasuna, berdintasuna eta aniztasun politiko eta sindikala.
- 2.d) Askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna.

3.- ESPAINIAKO ESTATUAREN EREDU POLITIKOA:

- 3.a) Bi ganberako parlamentarismoa da.
- 3.b) Monarkia parlamentarioa da.
- 3.c) Parlamentarismo demokratikoa da.
- 3.d) Monarkia instituzionala da.

4.- NAZIOAREN SUBIRANOTASUNA:

- 4.a) Adinez nagusiak diren herritarretan datza.
- 4.b) Kongresuan eta Senatuan datza.
- 4.c) Herrian datza.
- 4.d) Erregean datza.

5.- NONDIK SORTZEN DIRA ESTATUAREN BOTEREA, ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA?

- 5.a) Erregearengandik.
- 5.b) Nazioko Gobernutik, zeina aukeratzeko baita sufragio unibertsal bidez.
- 5.c) Gorte Nagusietatik.
- 5.d) Espainiako herritik.

6.- ESPAINIAKO NAZIOA OSATZEN DUTEN NAZIONALITATE ETA HERRIALDEEI DAGOKIENEZ, ZER AITORTU ETA BERMATZEN DU KONSTITUZIOAK?

- 6.a) Autonomia eskubidea.
- 6.b) Horien arteko elkartasun eskubidea, baina ez autonomia eskubidea politikoki ulertua.
- 6.c) Askatasunez federatzeko edo konfederatzeko eskubidea.
- 6.d) Autodeterminazio askerako eskubidea.

7.- ZER SUSTATU BEHAR DUTE BOTERE PUBLIKOAK, 1978KO KONSTITUZIOAN EZARRITA DAGOENAREN ARABERA?

- 7.a) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna gizarteko kide guztientzat izateko inguruabar zehatzak.
- 7.b) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna Konstituzioa eta legeak errespetatuz herritarrei emateko inguruabar zehatzak.
- 7.c) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna ahalik eta handienak izateko inguruabar zehatzak.
- 7.d) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izateko inguruabar zehatzak.

8.- PRINTZIPIO HAUETAKO BAT EZ DU BERMATZEN KONSTITUZIOAK. ZEIN?

- 8.a) Atzeraeragin ezaren printzipioa.
- 8.b) Arauen publizitatearen printzipioa.
- 8.c) Erregelamenduen arteko hierarkiaren printzipioa.
- 8.d) Legezketasun printzipioa.

9.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESPAINIAK:

- 9.a) Zuzenbideko nazio sozialdemokratikoa eratzen du.
- 9.b) Zuzenbideko monarkia demokratikoa eratzen du.
- 9.c) Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du.
- 9.d) Zuzenbidea eta demokrazia errespetatzen dituen estatua eratzen du.

10.- ALDERDI POLITIKOAK:

- 10.a) Politikan parte hartzeko oinarrizko tresnak dira.
- 10.b) Erakundeen nahia eratzen dute.
- 10.c) Elkarte politikoaren nahiaren adierazpenean parte hartzen dute.
- 10.d) Aniztasun ideologikoa adierazten dute eremu guztietan.

11.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN AURREIKUSITA DAGOENAREN ARABERA, NOIZ DIRA ADINEZ NAGUSIAK ESPAINIARRAK?

- 11.a) Hamasei urte betetzean.
- 11.b) Hogeita bat urte betetzean.
- 11.c) Lege organiko batean ezarritako adina betetzean.
- 11.d) Hemezortzi urte betetzean.

12.- NOLA DU IZENA LEGEZ KONTRA ATXILOTUTAKO PERTSONA ORO LEHENBAILEHEN AGINTARITZA JUDIZIALAREN ESKU JARTZEKO PROZEDURAK, ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN AIPATZEN DENAK?

- 12.a) Iustitia humanum est.
- 12.b) Aurreneurritzko atxilotze.
- 12.c) Extra corpus carceris.
- 12.d) Habeas Corpus.

13.- ZENBAT IRAUN DEZAKE, GEHIENEZ, AURRENEURRIZKO ATXILOTZEAK?

13.a) 48 ordu.

13.b) 24 ordu.

13.c) 72 ordu.

13.d) 36 ordu.

14.- BAI EZTAPEN HAUETAKO BAT OKERRA DA. ZEIN?

14.a) Konstituzioak onartzen du ezkontza desegin ahal izango dela.

14.b) Konstituzioak ezartzen du gizonek eta emakumeek berdintasun juridiko osoz ezkontzeko eskubidea dutela.

14.c) Konstituzioak Legearen esku uzten du ezkontideen eskubideen eta betebeharren zehaztapena.

14.d) Konstituzioak ezartzen duenez, gizonek eta emakumeek adin nagusitasunera heltzean lortzen dituzte ezkontzeko adina eta gaitasuna.

15.- KONSTITUZIOAREN 25.1. ARTIKULUAN ARAUTUTA DAGOEN LEGEZKOTASUN PRINTZIBIOAK HONAKO HAU DIO:

15.a) Ezin dakioke inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezarri, baldin eta gertatu diren unean ez badira delitu, une horretako indarreko legediaren arabera.

15.b) Herritar eta botere publiko guztiak legearen mende daude.

15.c) Pertsona batek falta bat egiten badu, eta une horretan falta hori arau hauste bat ez bada ere, falta horregatik zehatu ahal izango dute, baldin eta epaia ematen den unean arau haustea bada.

15.d) Pertsona batek arau hauste administratibo bat egiten badu, zehatu egin ahal izango dute horregatik, nahiz eta arau hauste hori ez zehagarria izan gertatu den unean.

16.- BAIEZTAPEN HAUETAKO BAT EZ DA ZUZENA. KONSTITUZIOAREN ARABERA, BOTERE PUBLIKOEK:

- 16.a) Familiaren babes ekonomikoa bermatzen dute.
- 16.b) Familiaren babes fiskala bermatzen dute.
- 16.c) Familiaren babes juridikoa bermatzen dute.
- 16.d) Familiaren babes soziala bermatzen dute.

17.- KONSTITUZIOAK AITORTUTAKO BILTZEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ, IRAGANBIDE PUBLIKOETAKO BILEREN ETA KALE AGERRALDI EDO MANIFESTAZIOEN KASUAN:

- 17.a) Ezingo dira inolaz ere debekatu, ezta arriskurik badago ere, baina, kasu horretan, segurtasun zerbitzu indartsua ezarri beharko da.
- 17.b) Ez da beharrezkoa izango agintariei aurretiko baimena eskatzea, ezta jardueraren berri ematea ere.
- 17.c) Pertsonentzako arriskua badakarte bakarrik debekatu ahal izango dira.
- 17.d) Debekatu egin ahal izango dira ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarritunak badaude.

18.- NOREN AURREAN AURKEZTEN DA BABES ERREKURTSOA?

- 18.a) Edozein epaitegi edo auzitegiaren aurrean.
- 18.b) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean.
- 18.c) Konstituzio Auzitegiaren aurrean.
- 18.d) Auzitegi Gorenaren aurrean.

19.- GASTU PUBLIKOEI AURRE EGITEARI DAGOKIONEZ:

- 19.a) Guztiek lagunduko dute, bakoitzak bere sarrera bolumenaren arabera.
- 19.b) Zerga sistema zuzen baten bidez egingo zaie aurre.
- 19.c) Zerga sistemak bilketa intentsiboaren printzipioa izango du oinarritzat.
- 19.d) Bilketa sistema konfiskagarria izango da kasu jakin batzuetan.

**20.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ORDENA POLITIKOAREN ETA GIZARTE
BAKEAREN OINARRI DA EDO DIRA:**

- 20.a) Segurtasun juridikoa.
- 20.b) Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa.
- 20.c) Gizabanakoari dagozkion eskubide bortxaezinak.
- 20.d) Justizia.

21.- ZEIN DA HEZKUNTZAREN HELBURUA?

- 21.a) Giza nortasuna oso-osorik garatzea, Eskola Kontseilu Nazionalak Ikasleen Guraso Elkarte Nazionalak eskatuta onartutako hezkuntza planen arabera.
- 21.b) Giza nortasuna oso-osorik garatzea, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta kultura eskubideak eta askatasunak errespetatuz.
- 21.c) Giza nortasuna oso-osorik garatzea, Eskola Kontseilu Nazionalak ezarritako hezkuntza ildoekin bat etorrita.
- 21.d) Giza nortasuna oso-osorik garatzea, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.

**22.- BOTERE PUBLIKOEN BERMATU EGITEN DUTE GURASOEI DAGOKIEN
ESKUBIDEA EUREN SEME-ALABEK:**

- 22.a) Heziketa erlijioso eta morala jaso dezaten.
- 22.b) Beren uste sendoekin bat datorren heziketa erlijioso eta morala jaso dezaten.
- 22.c) Botere publikoek zehaztutako heziketa erlijioso eta morala jaso dezaten.
- 22.d) Ez dezaten jaso inolako heziketa moral edo erlijiosorik.

23.- HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ:

- 23.a) Oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da.
- 23.b) Lehen mailako hezkuntza aukerakoa da.
- 23.c) Erdi mailako hezkuntza doakoa da.
- 23.d) Unibertsitateko hezkuntza doakoa da.

24.- BOTERE PUBLIKOEN SUSTATU EGIN BEHAR DUTE HERRITARREK EREMU HAUETAN PARTE HARTZEA: BIZITZA EKONOMIKOAN, BIZITZA POLITIKOAN...

24.a) Bizitza kulturalan.

24.b) Bizitza sozialean.

24.c) Bizitza korporatiboan.

24.d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

25.- ESKEA EGITEKO ESKUBIDEA:

25.a) Konstituzioaren 30. artikuluan dago jasota, eta espainiar guztien onurarako dago aitortuta.

25.b) Banaka erabili ahal izango da.

25.c) Idatziz erabili ahal izango da, paper tinbratua erabilia.

25.d) Ezin izango da taldean erabili.

26.- KONSTITUZIOAN ONARTUTA DAGOENAREN ARABERA, BILTZEKO ESKUBIDEAREN KASUAN:

26.a) Bilera baketsua izango ez dela aurreikusten bada bakarrik izango da beharrezkoa aurretiazko baimena.

26.b) Egingo den bileran armak erabiliko badira bakarrik izango da beharrezkoa aurretiazko baimena.

26.c) Ez da aurretiazko baimenik behar bilera baketsuak eta armarik gabeak egiteko.

26.d) Aurretiazko baimena beharrezkoa izango da eskubidea egikaritzeko.

27.- ZER ELKARTE JOTZEN DIRA LEGEZ KANPOKOTZAT EDO DEBEKATUTZAT?

27.a) Estatuaren forma aldatzeko xedea dutenak.

27.b) Funtsezko eskubideen edukia aldatzeko xedea dutenak.

27.c) Elkarte sekretuak.

27.d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

28.- ZER KASUTAN SAR DAITEKE ETXEBIZITZA PARTIKULAR BATEAN?

- 28.a) Soilik jabeak baimentzen badu edo ebazpen judizial bat badago.
- 28.b) Jabeak baimentzen badu, ebazpen judizial bat badago edo ageri-ageriko delitua egin bada.
- 28.c) Soilik ageri-ageriko delitua egin bada edo ebazpen judizial bat badago.
- 28.d) Soilik ebazpen judizial bat badago.

29.- INGURUMENARI DAGOKIONEZ:

- 29.a) Eskubide gisa aitortuta dago Konstituzioaren 44. artikuluan.
- 29.b) Konstituzioak ez du ezartzen hura zaintzeko betebeharra.
- 29.c) Ingurumen eskubidea oinarritzkoa da pertsonentzat.
- 29.d) Guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea.

30.- BEREZKO INTERES EKONOMIKOAK IZAN ETA INTERES HORIEK BABESTEN DITUZTEN ELKARTE PROFESIONALAK:

- 30.a) Egiaz, elkargo profesionalak dira.
- 30.b) Egiaz, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak dira.
- 30.c) Haien barne egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.
- 30.d) Ez daude Konstituzioan aurreikusiak.

31.- KASUA EDOZEIN DELA ERE, ATXILOTUA ASKE EDO AGINTARITZA JUDIZIALAREN ESKU UTZI BEHARKO DUTE EPE HONETAN:

- 31.a) Gutxienez hirurogeita hamabi ordu igarotakoan.
- 31.b) Gehienez hirurogeita hamabi ordu igarotakoan.
- 31.c) Gutxienez hogeita lau ordu igarotakoan.
- 31.d) Gehienez berrogeita zortzi ordu igarotakoan.

32.- ESPAINIARRAK BERDINAK DIRA LEGEAREN ARABERA. BERDINTASUN HORRI DAGOKIONEZ:

- 32.a) Bereizkeria egin daiteke, baldintza sozial jakin batzuetan oinarrituta.
- 32.b) Erabatekoa da.
- 32.c) Bereizkeria egin daiteke, baldintza pertsonal jakin batzuetan oinarrituta.
- 32.d) Konstituzioaren Atariko Tituluan dago jasota.

33.- JABETZA PRIBATUA:

- 33.a) Pertsonen oinarritzko eskubide bat da, Konstituzioan aitortua.
- 33.b) Bere edukia mugatuko duen gizarte eginkizun bat du.
- 33.c) Jaraunsletza eskubidearen antzera, Babes Errekurtsoak babesten du.
- 33.d) Gizarte eginkizun hori ez da existitzen jaraunsletza eskubideari begira.

34.- ESPAINIAR GUZTIEK ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA DUTE. ESKUBIDE HORRI LOTUTA:

- 34.a) Erakunde publikoen hirigintza jarduerak gainbalioa sortzen badu, komunitateak ez du zertan horietan parte hartu.
- 34.b) Botere publikoek ez dute zertan egin ez izapiderik ez sustapenik eskubide hori betetzeko.
- 34.c) Botere publikoek interes orokorraren arabera arautu beharko dute lurraren erabilera, espekulazioa saihesteko.
- 34.d) Eskubide hori betetzea herritarren eta enpresa eraikitzailen esku dago.

35.- KONSTITUZIOAN KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK BABESTEARI BURUZ EZARRITA DAGOENAREN ARABERA, LEGEAK ARAUTUKO DU:

- 35.a) Barne merkataritza.
- 35.b) Kanpo merkataritza.
- 35.c) Zerbitzu publikoak adierazteko araubidea.
- 35.d) Kexak eta erreklamazioak adierazteko araubidea.

2. GAIA. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUA. EUSKAL HERRIAREN ESKUMENAK: ESKLUSIBOAK, LEGE BIDEZ GARATZEKOAK ETA BETEARAZTEKOAK, ETA BETEARAZTEKOAK.

(36tik 70era)

36.- ADIERAZI HAUETAKO ZEIN DEN BAIEZTAPEN ZUZENA EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 6. ARTIKULUAREN ARABERA:

36.a) Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, eta ofiziala izango da, gaztelaniarekin batera.

36.b) Euskara eta gaztelania Euskal Herriko berezko hizkuntzak dira, eta biak ofizialak.

36.c) Gaztelania Euskal Herriko berezko hizkuntza da, eta ofiziala izango da, euskararekin batera.

36.d) Aurreko baieztapenetako bat ere ez da zuzena.

37.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA:

37.a) Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez finkatuko da.

37.b) Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez finkatuko da.

37.c) Batzorde Arbitralaren erabaki baten bidez finkatuko da.

37.d) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan zehaztuta dago.

38.- “ADMINISTRAZIO-HERRIKIDETASUNA” KONTZEPTUAK, EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 7. ARTIKULUAN JASOAK, HAU ESAN NAHI DU:

38.a) Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen foru legediaren mende egotea.

38.b) Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legedi zibilaren mende egotea.

38.c) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritakoa izatea.

38.d) Estatuko Lege Orokorraren mendea egotea.

39.- ADIERAZI HAUETAKO ZEIN DEN BAIEZTAPEN ZUZENA EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 9. ARTIKULUAREN ARABERA:

39.a) Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan finkatutakoak dira.

39.b) Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan finkatutakoak dira.

39.c) Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Ekonomia Itunean finkatutakoak dira.

39.d) Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Lurralde Historikoen Legean finkatutakoak dira.

40.- ZER URTETAN ONARTU ZEN EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUA?

40.a) 1978an.

40.b) 1979an.

40.c) 1980an.

40.d) 1981ean.

41.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 9. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:

41.a) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan finkatutakoak dira.

41.b) Lurralde Historikoen Legean finkatutakoak dira.

41.c) Konstituzioan finkatutakoak dira.

41.d) Ekonomia Itunean finkatutakoak dira.

42.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAK EZ DITU LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMEN ESKLUSIBOTZAT EZARTZEN:

42.a) Udaletako hauteskunde araubidea.

42.b) Foru aldundietako hauteskunde araubidea.

42.c) Probintzia eta udaletako ondasunen araubidea.

42.d) Probintzia mugak gainditzen ez dituzten udalerriaz gaindiko lurralde mugaketak.

43.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ATARIKO TITULUAREN ARABERA:

43.a) Erakunde komunen egoitza Vitoria-Gasteizen finkatzen da.

43.b) Euskal Herriko ikurrina gurutzebikoa da, hondo gorrian zeharkako gurutze zuria eta horien artean gurutze berdea dituen.

43.c) Autonomia Erkidegoak Euskal Herria du izena.

43.d) Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak dute, Nafarroak bezala, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea.

44.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAK ESKUMEN ESKLUSIBOA DU GAI HAUETAN:

44.a) Ingurumena eta ekologia.

44.b) Nahitaezko desjabetzea, administrazio kontratu eta emakidak bere eskumenen barruan, eta Euskal Herriko administrazioaren erantzukizun sistema.

44.c) Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.

44.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

45.- EUSKAL HERRIA OSATZEN DUEN LURRALDE HISTORIKOETAKO BAKOITZAK:

45.a) Estatistikak egin ahal izango ditu, Autonomia Erkidegoko Estatistika Plana sustatzeko.

45.b) Autogobernuko bere antolaera eta erakunde propioak manten ditzake edota, hala badagokio, haiek berrezarri eta eguneratu, betiere Erkidegoaren baitan.

45.c) Euskararen arloko legeak egin ahal izango ditu.

45.d) Salgaien eta bidaiarien garraioa antolatu ahal izango du.

46.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, GAI HAUETAKO ZEIN DIRA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBOA?

- 46.a) Foru Organoen hauteskunde arauak, antolamendua, araubidea eta funtzionamendua.
- 46.b) Obra eta Zerbitzuen Foru Plana prestatu eta onartzea, eta Tokiko Erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.
- 46.c) Autogobernatzeko erakundeen antolamendua, araubidea eta funtzionamendua, betiere Estatutu honen arauen barruan.
- 46.d) Ingurumena eta ekologia.

47.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ESTATUAREN TITULARTASUNEKOAK EZ DIREN ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA MUSEOAK:

- 47.a) Lege bidez garatu eta betearazi beharreko eskumena dira.
- 47.b) Betearazi beharreko eskumena dira.
- 47.c) Eskumen eskusiboa dira.
- 47.d) Eskumen konkurrentea dira.

48.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, BERE LURRALDEAREN BAITAN LEGE BIDEZ GARATZEKO ETA BETEARAZTEKO ESKUMENAK DIRA:

- 48.a) Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
- 48.b) Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.
- 48.c) Gizarte laguntza.
- 48.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

49.- AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIO ESTATUKO LEGEAK BETEARAZTEA GAI HONETAN:

49.a) Gizarte laguntza.

49.b) Foru Zuzenbide Zibila eta berezia gorde, aldatu eta garatzea.

49.c) Probintzia eta udalerrietako ondasunen araubidea.

49.d) Espetxe legedia.

50.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 1. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZEIN DA EDO DIRA EUSKAL HERRIAREN OINARRIZKO ERAKUNDE ARAUAK?

50.a) Konstituzioa.

50.b) Estatutua.

50.c) Lurralde Historikoen Legea eta Hizkuntza Normalizaziorako Oinarrizko Legea.

50.d) Eusko Legebiltzarreko Legea eta Lurralde Antolamendurako Legea.

51.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 2. ARTIKULUAREN ARABERA:

51.a) Autonomia Estatutuak ez du Nafarroa aipatzen.

51.b) Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoko parte da.

51.c) Nafarroa ezin da sartu Euskal Autonomia Erkidegoan.

51.d) Nafarroak eskubidea du Euskal Autonomia Erkidegoko partaide izateko.

52.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL HERRIA OSATZEN DUTEN LURRALDE HISTORIKOETAKO BAKOITZAK, ERKIDEGOAREN BAITAN:

52.a) Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde ahal izango ditu.

52.b) Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak berrezarri ahal izango ditu, hala badagokio.

52.c) Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak eguneratu ahal izango ditu, hala badagokio.

52.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

53.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 5. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZEIN DA EUSKAL HERRIKO IKURRINA?

53.a) Gurutze bateko ikurrina, hondo gorrian gurutze zuria eta gainean zeharkako gurutze berdea dituena.

53.b) Gurutzebiko ikurrina, hondo gorrian gurutze berdea eta gainean zeharkako gurutze zuria dituena.

53.c) Gurutzebiko ikurrina, hondo gorrian zeharkako gurutze berdea eta gainean gurutze zuria dituena.

53.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

54.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 6. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO HERRITARREK:

54.a) Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea dute.

54.b) Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko betebeharra dute.

54.c) Gaztelania eta euskara jakiteko eskubidea eta erabiltzeko betebeharra dute.

54.d) Gaztelania eta euskara jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.

55.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 9. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, NORK ZAINDU ETA BERMATUKO DU HERRITARREN OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN ERABILERA EGOKIA?

55.a) Lehendakariak.

55.b) Euskal botere publikoek.

55.c) Eusko Legebiltzarrak.

55.d) Arartekoak.

56.- JUSTIZIA ADMINISTRAZIOARI DAGOKIONEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKU EGONGO DIRA:

56.a) Botere Judizialaren eta Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren Lege Organikoek Gobernuari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.

56.b) Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.

56.c) Botere Judizialaren Lege Organikoek eta Lurralde Historikoen Legeek Eusko Jaurlaritzari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.

56.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

57.- EUSKAL BOTERE PUBLIKOEK, BERAIEN ESKUMENENKO EREMUAN:

57.a) Herritar guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten erraztuko dute.

57.b) Erabateko enplegua sortzera bideratutako politika bat sustatuko dute.

57.c) Enpleguaren gehikuntza eta zerga egonkortasuna sustatzera bideratutako neurriak hartuko dituzte.

57.d) Erabateko enplegua eta aurrekontu egonkortasuna sustatzera bideratutako neurriak hartuko dituzte.

58.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKALTZAINDIA DA:

58.a) Euskararen artxibo ofizial gisa balio duen Eusko Jaurlaritzaren erakundea.

58.b) Euskarari buruzkoetarako erakunde aholku emaile ofiziala.

58.c) Euskararen azterketa, analisi eta ikerketarako erakunde ofiziala.

58.d) Eusko Jaurlaritzaren erakunde kultural ofiziala euskara garatu eta sustatzeko.

59.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ATXIKI AHAL IZANGO ZAIZKIO GUZTIZ BERE LURRALDE BARRUAN KOKATUTA DAUDEN BESTE LURRALDE EDO UDALERRI BATZUK:

59.a) Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek eta ondoren Estatuko Gorte Nagusiek onartzen badute, Lege Organiko bidez.

59.b) Udal interesdunek, Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek eta, ondoren, Estatuko Gorte Nagusiek onartzen badute, Lege Organiko bidez.

59.c) Eusko Legebiltzarrak eta, ondoren, Estatuko Gorte Nagusiek onartzen badute, Lege Organiko bidez.

59.d) Eusko Legebiltzarrak eta, ondoren, Estatuko Gorte Nagusiek onartzen badute, Lege Arrunt bidez.

60.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, LEGE BIDEZ GARATU ETA BETEARAZTEKO ESKUMENEN KASUAN:

60.a) Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Autonomia Erkidegoari, berriz, horiek lege bidez garatzea.

60.b) Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Lurralde Historikoari, berriz, horiek lege bidez garatu eta betearaztea.

60.c) Estatuari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, horiek arau bidez garatzea.

60.d) Autonomia Erkidegoari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Lurralde Historikoei, berriz, horiek arau bidez garatzea.

61.- EAE-KO AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ATARIKO TITULUKO ESKUMENAK ZERA DIRA:

61.a) Eskumen linguistikoak.

61.b) Oinarrizko eskubideei dagozkienak.

61.c) Eskumen itzurkorrak.

61.d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

62.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETATIK ZEIN DA ESKUMEN ESKLUSIBO EZ-PARTEKATUA?

- 62.a) Autogobernuko erakundeen antolamendua.
- 62.b) Autonomia Erkidegoaren titulartasunekoak diren jabego publikoko ondasunak eta ondare ondasunak.
- 62.c) Barne uretako arrantza.
- 62.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

63.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETAKO ZEIN PARTEKATZEN DA ESTATUAREKIN?

- 63.a) Tokiko erregimena.
- 63.b) Turismoa eta kirola.
- 63.c) Estatuaren titulartasunekoak ez diren artxiiboak, liburutegiak eta museoak.
- 63.d) Euskal Herriaren estatistika bere helburu eta eskumenetarako.

64.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, NON DAUDE ARAUTUTA ESKUMEN ESKLUSIBOAK?

- 64.a) Estatutuaren 11. artikuluan.
- 64.b) Estatutuaren 10. artikuluan.
- 64.c) Konstituzioaren 148. artikuluan.
- 64.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

65.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, LEGE BIDEZ GARATU ETA BETEARAZTEKO ESKUMENEN KASUAN:

- 65.a) Autonomia Erkidegoari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Estatuari, berriz, horiek lege bidez garatzea.
- 65.b) Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Autonomia Erkidegoari, berriz, horiek lege bidez garatzea.
- 65.c) Autonomia Erkidegoari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta udalei, berriz, horiek arau bidez garatu eta betearaztea.
- 65.d) Lurralde Historikoei dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta udalei, berriz, horiek betearaztea.

66.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 12. ARTIKULUAREN ARABERA, ZER ESKUMEN DAGOKIO AUTONOMIA ERKIDEGOARI EUSKAL HERRIAN EGINGO DIREN NAZIOARTEKO AZOKEI DAGOKIENEZ?

- 66.a) Betearazteko eskumena.
- 66.b) Lege bidez garatzeko eta betearazteko eskumena.
- 66.c) Eskumen eskusiboa.
- 66.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

67.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA:

- 67.a) Lege organiko baten bidez finkatuko da.
- 67.b) Lege arrunt baten bidez finkatuko da.
- 67.c) Eusko Legebiltzarrak emandako lege baten bidez finkatuko da.
- 67.d) Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez finkatuko da.

68.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA (10. ARTIKULUA), ESKUMEN HAUETAKO ZEIN DA ESKLUSIBOA?

- 68.a) Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
- 68.b) Ingurumena eta ekologia.
- 68.c) Kredituaren antolamendua, bankuak eta aseguruak.
- 68.d) Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.

69.- DAGOZKION ANTOLAMENDU ESKUMENETAN OINARRITUTA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK HONAKO HAU ARAU DEZAKE:

- 69.a) Euskadiko eta Tokiko Administrazioako funtzionarioen Estatutua, Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- 69.b) Euskadiko eta Tokiko Administrazioako funtzionarioen Estatutua.
- 69.c) Euskadiko eta Tokiko Administrazioako funtzionarioen Estatutua, Lurralde Historikoen eskumenei kalterik egin gabe.
- 69.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

70.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 9. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL BOTERE PUBLIKOEN, BEREN ESKUMENEN ESPARRUAN:

70.a) Euskal herritarren eskubideen erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

70.b) Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

70.c) Euskal herritarren betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

70.d) Euskal herritarren eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

3. GAIA. UDALERRIA. BIZTANLE KOPURU HANDIKO UDALERRIEN UDAL ANTOLAKUNTZA (7/1985 LEGEA, APIRILAREN 2KOA, TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUENA; X. TITULUA).

(71tik 105era)

71.- ZER ARTIKULUTAN ARAUTZEN DU UDALERRIAREN AUTONOMIA KONSTITUZIOAK?

71.a) 130.

71.b) 140.

71.c) 143.

71.d) 149.

72.- ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO ERAKUNDEA DA:

72.a) Autonomia Erkidegoa.

72.b) Eskualdea.

72.c) Probintzia.

72.d) Udalerria.

73.- EZ DA UDALERRIAREN OSAGAI BAT:

73.a) Lurraldea.

73.b) Biztanleria.

73.c) Udala.

73.d) Antolaketa.

74.- NORK OSATZEN DUTE UDALERRI BATEKO BIZTANLERIA?

74.a) Udal erroldan inskribatuta dauden eta ez dauden pertsonak.

74.b) Udal erroldan inskribatuta dauden pertsonak.

74.c) Helbideratuek, behin-behineko egoiliarrek eta atzerritarrek.

74.d) Udal erroldan inskribatuta dauden adinez nagusiek.

75.- UDALERRI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN BIZI DENAK UDAL ERROLDA HONETAN INSKRIBATU BEHAR DU:

- 75.a) Ohiko bizitokia kokatuta dagoen udalerriko erroldan.
- 75.b) Urtean denborarik gehien egiten duen udalerriko erroldan.
- 75.c) Udalerrri horietako edozeinetako erroldan.
- 75.d) Ez du haietako batean ere inskribatu beharrik.

76.- AURREKONTUAK EGITEKO, KONTABILITATEA EROATEKO, DIRUZAINTZAKO ETA DIRUA BILTZEKO EGINKIZUNAK DAUZKATEN ORGANOETAKO TITULARREK ESTATU OSORAKO GAIKUNTZA DUTEN FUNTZIONARIO-KIDEGOETAKOAK IZAN BEHAR DUTE, SALBU ETA EGINKIZUN HAUETARAKO:

- 76.a) Diru-bilketa.
- 76.b) Diruzaintza.
- 76.c) Aurrekontuak egitea.
- 76.d) Kontabilitatea eta diru-bilketa.

77.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN 19. ARTIKULUAREN ARABERA, UDALARI DAGOZKIO UDAL GOBERNUA ETA UDAL ADMINISTRAZIOA, ETA HAUEK OSATZEN DUTE UDALA:

- 77.a) Alkateak eta zinegotziek.
- 77.b) Alkateak, alkateordeak, zinegotziek eta Tokiko Gobernu Batzarrak.
- 77.c) Alkateak, zinegotziek eta Udalbatzak.
- 77.d) Alkateak, zinegotziek, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Udalbatzak.

78.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 5.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRI GUZTIETAN DAGO, ETA BIZTANLE GUTXIAGOKOETAN:

- 78.a) Konstituzioak hala xedatzen badu.
- 78.b) Autonomia Estatutuak hala xedatzen badu.
- 78.c) Bertako Erregelamendu Organikoan hala xedatuta badago edo Udalbatzak hala erabakitzen badu.
- 78.d) Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeak hala xedatzen badu.

79.- UDALETAKO ORGANOAK HONELA SAILKATZEN DIRA:

- 79.a) Ohikoak eta apartekoak.
- 79.b) Ohikoak eta bereziak.
- 79.c) Nahitaezkoak eta beharrezkoak.
- 79.d) Osagarriak eta beharrezkoak.

80.- ALKATEA HAUTATZEN DUTE:

- 80.a) Zinegotziek edo bizilagunek; hori guztia, hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera.
- 80.b) Gehiengo osoz.
- 80.c) Zinegotzi guztiek.
- 80.d) Sufragio eskubide pasiboa duten bizilagun guztiek.

81.- ALKATEA DA UDALBATZAKO BURUA, ETA ESKUMEN HAUEK DITU:

- 81.a) Udal gobernua eta udal administrazioa zuzentzea.
- 81.b) Bandoak ematea.
- 81.c) Udaltzaingoaren buruzagitza betetzea.
- 81.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

82.- TOKIKO ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETAKO ZEIN DAGOKIO UDALBATZARI?

- 82.a) Udal zerbitzuak eta udal obrak zuzentzea, ikuskatzea eta sustatzea.
- 82.b) Alkateordeak izendatzea.
- 82.c) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
- 82.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

83.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEAREN ARABERA, 5.000 BIZTANLETIK GORAKO ETA 20.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIETAN, ZERBITZU HAUEK ERE ESKAINI BEHARKO DIRA:

83.a) Argiteria publikoa, hilerrria, hondakinen bilketa eta kale-garbiketa.

83.b) Parke publikoa, liburutegi publikoa eta hondakinen tratamendua.

83.c) Argiteria publikoa, hilerrria, liburutegia eta kale-garbiketa.

83.d) Argiteria publikoa, parke publikoa, liburutegi publikoa eta kale-garbiketa.

84.- KONTZEJU IREKIKO ARAUBIDE BEREZIA DUTE:

84.a) Gobernatzeko eta administratzeko araubide berezi horretaz betidanik eta hala nahita baliatu diren udalerriek.

84.b) 200 biztanle baino gutxiagoko udalerriek.

84.c) 300 biztanle baino gutxiagoko udalerriek.

84.d) 500 biztanle baino gutxiagoko udalerriek.

85.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, TOKIKO GOBERNU BATZARRA OSATZEN DUTE ALKATEAK ETA ZINEGOTZI BATZUEK, ETA:

85.a) Zinegotzien kopurua ezin da izan horien legezko kopuruaren bi heren baino handiagoa.

85.b) Zinegotzien kopurua ezin da izan horien legezko kopuruaren erdia baino handiagoa.

85.c) Zinegotzien kopurua ezin da izan horien legezko kopuruaren herena baino handiagoa.

85.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

86.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIEN ANTOLAMENDU ARAUBIDEA APLIKATUKO ZAIE:

86.a) 50.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.

86.b) 150.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.

86.c) Probintziako hiriburu, autonomietako hiriburu edo autonomia erakundeen egoitza diren udalerriei, bertako legebiltzarrek horrela erabakitzen badute, udal bakoitzaren ekimenez.

86.d) 75.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.

87.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN 121.3. ARTIKULUAREN ARABERA, TITULU HORRETAN AURREIKUSITAKO ARAUBIDEA APLIKADAKIEKEEN UDALERRIEK:

87.a) Ez dute jarraituko gerora ere araubide bera izaten, bertako biztanleriaren kopuru ofiziala Lege honetan ezarritako mugatik behera jaisten bada.

87.b) Udaleko osoko bilkuran hala adostuz gero bakarrik jarraituko dute araubide bera izaten.

87.c) Araubide bera izaten jarraituko dute, gerora bertako biztanleriaren kopuru ofiziala Lege honetan ezarritako mugatik behera jaitsi arren.

87.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

88.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN TOKIKO GOBERNU BATZARRARI DAGOKIO:

88.a) Ordenantzen eta erregelamenduen proiektuak onartzea, organikoak barne, Udalbatza eta haren batzordeak arautzeko arauak salbuespen direla.

88.b) Udalerriko politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea.

88.c) Erregelamendu organikoak onartzea eta aldatzea.

88.d) Udalerriz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea.

89.- BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN, GOI ORGANOAK DIRA:

89.a) Alkatea, alkateordeak, zinegotziak eta Udalbatza.

89.b) Alkatea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideak.

89.c) Alkatea, zinegotziak eta Udalbatzako idazkari nagusia.

89.d) Alkatea, zinegotziak, Udalbatzako idazkari nagusia eta udaleko kontu-hartzaile nagusia.

90.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN, UDAL ADMINISTRAZIOAREN AURREAN AUZOTARREN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO, UDALBATZAK SORTUKO DU:

90.a) Zerga kudeaketako organoa.

90.b) Iradokizun eta erreklamazioetarako batzorde berezia.

90.c) Ekonomiaren eta finantzen kudeaketarako organoa, Udalbatzari bere lanaren berri emango diona urteko txostenaren bidez.

90.d) Ekonomia eta administrazio arloko erreklamazioak ebazteko organo berezia.

91.- TRIBUTU IZAERAKO BALIABIDE PROPIOAK ZEHAZTEKO ESKUMENA HONI DAGOKIO:

91.a) Alkateari.

91.b) Zinegotzi ordezkariari.

91.c) Udalbatzari.

91.d) Tokiko Gobernu Batzarrari.

92.- ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN 133. ARTIKULUAREN ARABERA, EKONOMIAREN ETA FINANTZEN KUDEAKETAK IRIZPIDE HAUEK BETEKO DITU:

92.a) Zerbitzuen kostuen jarraipena ez da sartzen eskakizun bezala.

92.b) Toki ogasunak arautzen dituen Legean kontabilitateari buruz jasotako aurreikuspenetara lotu behar da nolanahi ere kontabilitatea.

92.c) Helburu bezala aurrekontuaren egonkortasuna zaintzea, hori arautu dezan legedian xedatutakoarekin bat etorritz.

92.d) Ekonomiaren eta finantzen kudeaketaren kontabilitatea eta ikuskapena banatuta izatea.

93.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN 128. ARTIKULUAREN ARABERA, BARRUTIAREN LEHENDAKARITZA NOLANAHI ERE DAGOKIO:

93.a) Alkateari.

93.b) Tokiko Gobernu Batzarrari.

93.c) Udalbatzari.

93.d) Zinegotzi bati.

94.- HIRIKO GIZARTE KONTSEILUA OSATZEN DUTE:

94.a) Enpresaren, kirolaren, hezkuntzaren eta auzotarren erakunderik esanguratsuenetako ordezkariak.

94.b) Ekonomiaren, gizartearen, profesionalen eta auzotarren erakunderik esanguratsuenetako ordezkariak.

94.c) Enpresaren, sindikatuen, hezkuntzaren eta auzotarren erakunderik esanguratsuenetako ordezkariak.

94.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

95.- AHOLKULARITZA JURIDIKOKO TITULARRA HONEK IZENDATU ETA KENDUKO DU:

95.a) Alkateak.

95.b) Udalbatzak.

95.c) Tokiko Gobernu Batzarrak.

95.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

96.- OSOKO BILKURA, ALKATEAK ETA ZINEGOTZIEK OSATUTA:

96.a) Herritarrek udal-gobernuan duten ordezkarietza politikoaren organo gorena da.

96.b) Alkateak egingo du osoko bilkurarako deia eta bera izango da buru, Lege honetan eta hauteskunde-legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik.

96.c) Erregelamendua egin dezake beretzat, eta organikoa izango da.

96.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

97.- UDALBATZAKO KIDEEN, BERTAKO IDAZKARI NAGUSIAREN, ALKATEAREN, TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEN ETA UDALEKO ZUZENDARITZA ORGANOEEN ORDAINSARIEN ARAUBIDEA EZARTZEKO ESKUMENA DAGOKIO:

97.a) Udalbatzari.

97.b) Alkateari.

97.c) Tokiko Gobernu Batzarrari.

97.d) Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuaren kudeaketako organoari.

98.- BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN ALKATEARI EMANGO ZAION TRATUA:

98.a) Txit gorena.

98.b) Txit garaia.

98.c) Txit prestua.

98.d) Jaun-andrea.

99.- ALKATEAK ESKUORDETU DAITEZKEEN ESKUMENAK ESKUORDETU AHAL IZANGO DITU:

99.a) Dekretu bidez.

99.b) Zerbitzu aginduen bidez.

99.c) Bando bidez.

99.d) Legegintzako dekretu bidez.

100.- TOKIKO GOBERNU BATZARREKO IDAZKARITZA ZINEGOTZI DEN KIDEREN BATENA IZANGO, ETA HONEK IZENDATUKO DU:

100.a) Udalbatzak.

100.b) Alkateak.

100.c) Tokiko Gobernu Batzarrak.

100.d) Udalbatzako idazkari nagusiak.

101.- ADIERAZI ESKUMEN HAUETAKO ZEIN EZ DEN TOKIKO GOBERNU BATZARRARENA:

- 101.a) Alkateordeak eta barrutietako lehendakariak izendatzea eta kargutik kentzea.
- 101.b) Aurrekontu proiektua onestea.
- 101.c) Edozein lizentzia mota ematea.
- 101.d) Lanpostuen zerrenda onestea.

102.- AURREKONTU, KONTABILITATE, DIRUZAINTZA ETA DIRU BILKETAKO EGINKIZUNAK BETEKO DITU:

- 102.a) Zerga kudeaketako organoak.
- 102.b) Kontrolaren eta barruko ikuskapenaren organo arduradunak.
- 102.c) Udal erregelamendu organikoan zehaztutako organoak edo organoek.
- 102.d) Erreklamazio ekonomiko-administratiboak erabakitzeke organoak.

103.- ADIERAZI ESKUMEN HAUETAKO ZEIN EZ DAGOKION ZERGA KUDEAKETAKO ORGANOARI:

- 103.a) Udaleko zerga egintzen kudeaketa, kitapena, ikuskapena, bilketa eta berrikustea.
- 103.b) Udal eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarrerren kudeaketa, kitapena, bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea.
- 103.c) Udaleko zuzenbide publikoko gainerako sarrerak betearazte aldian biltzea.
- 103.d) Zergen gainean kudeatzeko eskumena egotzita duenean, horiei buruzko zehapen espedienteak izapidetu eta ebaztea.

104.- ERREKLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK ERABAKITZEKO ORGANOAK IZANGO DU:

- 104.a) Kide kopuru bikoitia; gutxienez lau izango dira, eta Udalbatzak izendatuko ditu.
- 104.b) Kide kopuru bakoitia; gutxienez hiru izango dira, eta Tokiko Gobernu Batzarrak izendatuko ditu.
- 104.c) Kide kopuru bakoitia; gutxienez hiru izango dira, eta Udalbatzak izendatuko ditu.
- 104.d) Kide kopuru bakoitia; gutxienez bost izango dira, eta alkateak izendatuko ditu.

105.- BIZTANLE KOPURU HANDIKO UDALERRIAK ANTOLATZEKO ARAUBIDEARI BURUZKO X. TITULUAN AURREIKUSITA DAGOEN HIRIEN BATZARRA OSATUKO DUTE:

105.a) Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta Toki-Araubidearen Oinarrien Legearen X. tituluaren aplikazio eremuan sartzen diren udalerrietako alkateek.

105.b) Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioak eta probintzia hiriburu nagusietako udalerrietako alkateek.

105.c) Autonomia erkidegoek, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioak eta biztanle kopuru handiko udalerrietako alkateek.

105.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

4. GAIA. BILBOKO UDALAREN ANTOLAMENDUA. ARAU ORGANIKOAK.

(106tik 140ra)

106.- BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN XEDEA DA:

106.a) Bilboko Udaleko Udaltzaren, bertako batzordeen eta Tokiko Gobernu Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea.

106.b) Bilboko Udaleko Udaltzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita udaleko zinegotzien estatutua ezartzea ere.

106.c) Bilboko Udaleko Udaltzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita Udaltza osatzen duten talde politikoen estatutua ezartzea ere.

106.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

107.- BILBOKO UDALEKO ARAUDI ORGANIKOAK IZAERA ORGANIKOA DU, ETA HONEN BABESPEAN EZARTZEN DA:

107.a) Konstituzioan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen Legean ezarritakoaren babespean.

107.b) Konstituzioan, Autonomia Estatutuan, tokiko araubidearen oinarritzko legerian eta Lurralde Historikoen Legean ezarritakoaren babespean.

107.c) Tokiko araubidearen oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritakoaren babespean.

107.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

108.- BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAK EGITURA HAU DU:

108.a) 6 titulu, 2 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

108.b) 8 titulu, 3 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

108.c) 8 titulu, 6 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

108.d) 6 titulu, 3 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

109.- BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDIAREN ARABERA, TALDE POLITIKO BAT ERATZEKO ETA ATXIKITZEKO, BEHARREZKOA DA:

- 109.a) Gutxienez bi pertsona izatea.
- 109.b) Gutxienez lau pertsona izatea.
- 109.c) Gutxienez sei pertsona izatea.
- 109.d) Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

110.- BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BOZERAMAILEEN BATZORDEA DA:

- 110.a) Udalbatzako eztabaida-organoa.
- 110.b) Udalbatzako eta Tokiko Gobernu Batzordeko kontsulta-organoa.
- 110.c) Udalbatzako presidentearen organo aholku-emailea.
- 110.d) Udalbatzako kudeaketa-organoa.

111.- BILBOKO UDALEKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BOZKETAK IZAN DAITEZKE:

- 111.a) Arruntak, ezohikoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
- 111.b) Arruntak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
- 111.c) Arruntak, izenezkoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
- 111.d) Arruntak, izenezkoak eta sekretuak.

112.- ARAU NAGUSI GISA, BILBOKO UDALEKO UDALBATZAK HONELA HARTUKO DITU ERABAKIAK:

- 112.a) Bertaratutako kideen gehiengo soilaren bidez.
- 112.b) Gehiengo osoaren bidez.
- 112.c) Gehiengo kualifikatuaren bidez.
- 112.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

113.- UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BILBOKO UDALEKO UDALBATZAK ONDORENGOEN EKIMENEZ HARTUKO DITU ERABAKIAK:

113.a) Alkatea, Bozeramaileen Batzordea, zinegotziak eta talde politikoak.

113.b) Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak, talde politikoak eta herri ekimena.

113.c) Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak eta gainerako zinegotziak.

113.d) Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak eta herri ekimena.

114.- TOKI ARAUBIDEAREN LEGEAN EZARRITAKOAREN ARABERA (X. TITULUA. BIZTANLE KOPURU HANDIKO UDALERRIEN ANTOLAKUNTZAKO ARAUBIDEA), BILBOKO UDALEKO GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA HONAKO HONEK ARAUTZEN DU:

114.a) Udalbatzaren Araudi Organikoak.

114.b) Bilboko Hiri Kontseiluaren Udal Araudi Organikoak.

114.c) Bilboko Udaleko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Araudi Organikoak.

114.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

115.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ZUZENDARITZA ORGANOAK DIRA:

115.a) Alkatea.

115.b) Gobernu Batzordearen Bulegoko titularra.

115.c) Gobernu Batzordeko kideak.

115.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

116.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK AKTAN JASO BEHARKO DIRA:

116.a) Eta zinegotzi idazkariak akta hori egin eta sinatuko du.

116.b) Eta Gobernu Batzordearen Bulegoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.

116.c) Eta Aholkularitza Juridikoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.

116.d) Udalbatzako idazkari nagusiak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.

117.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ALDI BEREAN SAILEKO ZUZENDARITZAK ANTOLATU AHAL IZANGO DIRA:

117.a) Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sekzioetan, negoziatuetan eta laguntza unitateetan.

117.b) Zuzendariordetzetan, sailataletan, sekzioetan eta beheragoko mailako edo antzeko beste unitate batzuetan.

117.c) Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan, sekzioetan eta kudeaketa unitateetan.

117.d) Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan eta negoziatuetan.

118.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BILBOKO UDALEKO FONDOAK, BALOREAK ETA EFEKTUAK ERABILI ETA ZAINTEKO ETA UDALAREN BETEBEHARRAK ORDAINTEKO ESKUMENAK:

118.a) Aurrekontua kudeatzeko organoarenak dira.

118.b) Zerga kudeaketarako organoarenak dira.

118.c) Kontabilitateko organoarenak dira.

118.d) Diruzaintza organoarenak dira.

119.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, UDALERRIA BARRUTITAN BANATZEA:

119.a) Gobernu Batzordeari dagokio.

119.b) Udalbatzari dagokio.

119.c) Alkateari dagokio.

119.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

120.- BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA ARAUTZEN DUEN ARAUDIAREN ARABERA, HORREN JARDUNAK OINARRITZAT IZANGO DITU:

120.a) Independentzia teknikoaren, eraginkortasunaren, hierarkiaren eta doakotasunaren printzipioak.

120.b) Independentzia teknikoaren, azkartasunaren eta doakotasunaren printzipioak.

120.c) Independentzia teknikoaren, eraginkortasunaren, azkartasunaren eta doakotasunaren printzipioak.

120.d) Independentzia teknikoaren, eraginkortasunaren, espezialitatearen eta doakotasunaren printzipioak.

121.- BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA ARAUTZEN DUEN ARAUDIAREN 2.4. ARTIKULUAREN ARABERA, BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAREN EBAZPENENK:

121.a) Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka gorako errekurtoa soilik aurkeztu ahalko da.

121.b) Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa soilik aurkeztu ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean azaldutako moduan.

121.c) Ez dute administrazio bidea amaitzen, eta haien aurka gorako errekurtoa aurkeztu ahalko da.

121.d) Ez dute administrazio bidea amaitzen.

122.- BILBOKO HIRIKO BARRUTIETAKO ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAK IZAERA ORGANIKOA DU, ETA ONESTEN DA:

- 122.a) Tokiko Gobernu Batzordearen bidez.
- 122.b) Udalbatzaren gehiengo soilaren bidez.
- 122.c) Udalbatzaren gehiengo osoaren bidez.
- 122.d) Barruti Kontseiluen gehiengo osoaren bidez.

123.- BILBOKO HIRIKO BARRUTIETAKO ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN ARABERA, BARRUTIKO ORGANOEN ERABAKIAK HARTUKO DIRA:

- 123.a) Bertaratzen diren eta botoa emateko eskubidea duten kideen gehiengoaz.
- 123.b) Barruti Kontseiluko kideen gehiengo osoz.
- 123.c) Barruti Kontseiluko kideen gehiengo soilez.
- 123.d) Barruti Kontseiluko kideen gehiengo kualifikatuz.

124.- BILBOKO HIRIKO BARRUTIETAKO ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN ARABERA, BILBO:

- 124.a) Sei barrutitan banatuta dago.
- 124.b) Zazpi barrutitan banatuta dago.
- 124.c) Zortzi barrutitan banatuta dago.
- 124.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

125.- BILBOKO HIRI KONTSEILUA:

- 125.a) Hiriko gobernuaren kontsultarako eta eztabaidarako organoa da.
- 125.b) Hiriko gobernuaren partaidetzarako eta integraziorako organoa da.
- 125.c) Barruti Kontseiluen kontsultarako eta partaidetzarako organoa da.
- 125.d) Hiriko gobernuaren izaera organikoko eta kontsultarako organoa da.

126.- BILBOKO HIRIKO BARRUTIETAKO ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN ARABERA, BARRUTI KONTSEILUAK ERATZEKO GEHIENENKO EPEA:

126.a) 6 hilekoa izango da, Udal Gobernuia eratzen denetik hasita.

126.b) 5 hilekoa izango da, Udal Gobernuia eratzen denetik hasita.

126.c) 4 hilekoa izango da, Udal Gobernuia eratzen denetik hasita.

126.d) 3 hilekoa izango da, Udal Gobernuia eratzen denetik hasita.

127.- GAUR EGUN, BILBOKO UDALEKO UDALBATZA OSATZEN DUTE:

127.a) 19 hautetsik.

127.b) 26 hautetsik.

127.c) 29 hautetsik.

127.d) 39 hautetsik.

128.- BILBOKO HIRI KONTSEILUAREN UDAL ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, HIRI KONTSEILUAK ORGANO HAUEK IZANGO DITU:

128.a) Osoko Batzordea.

128.b) Batzorde Betearazlea.

128.c) Presidentzia eta Presidenteordetza.

128.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

129.-BERDINTASUNERAKO BILBOKO EMAKUMEEN KONTSEILUAREN ANTOLAKETA ETA JARDUERARAKO ARAUDIAK KONTSEILUAREN FUNTSEZKO HELBURUTZAT AIPATZEN DITU:

129.a) Atxikimendu libreko bide bat eskaintzea, Bilboko emakumeek uriko garapen politiko, kultural, sozial, laneko edo ekonomikoan parte-hartze demokratikoa errazteko, andrazkoak ordezkatzeko dituzten elkarte eta erakunde bidez.

129.b) Andrazkoen mugimenduari zor zaion onarpena bultzatzea, andrazkoen eskubideak defendatzea eta gizartearen arlo guztietan benetan parte hartzea sustatzea.

129.c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

129.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

130.- BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN 119. ARTIKULUAREN ARABERA, ALKATEAREN AURKAKO ZENTSURA MOZIOAREN ETA ALKATEAK AURKEZTUTAKO KONFIANTZA ARAZOAREN BOZKETA PUBLIKOA IZANGO DA, ETA:

130.a) Izenezko deialdiaren bidez egingo da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.

130.b) Isilpeko bozketa bidez egingo da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.

130.c) Eskua jasota bozkatuko da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.

130.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

131.- BILBOKO UDALAREN UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, VI. TITULUAREN V. KAPITULUAN ARAUTZEN DEN BILBOKO UDALAREN AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUA HONELA TRAMITATUKO DA:

131.a) Kapitulu honetan arautzen den prozedura orokorrari jarraituz tramitatuko da, eta prozedura horren ordezkotako eta osagarri, Udalbatzak erabakiak hartzeko prozedura arruntari buruzko xedapenak aplikatuko dira.

131.b) Kapitulu honetan arautzen den prozedura bereziari jarraituz tramitatuko da, eta, prozedura horren ordezkotako eta osagarri, Udalbatzak erabakiak hartzeko prozedura arruntari buruzko xedapenak aplikatuko dira.

131.c) Aurrekontuen Lege Orokorrean arautzen den prozedura orokorrari eta hura garatzeko gainerako legediari jarraituz tramitatuko da.

131.d) Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legean arautzen den prozedura orokorrari jarraituz tramitatuko da.

132.- BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ZINEGOTZIEK ESKUBIDEA DUTE:

132.a) Dagozkien ordainsariak, dietak eta kalte-ordainak jasotzeko.

132.b) Lurralde Historikoen Legean ezarritakoaren arabera zehaztutako ordainsariak jasotzeko.

132.c) Tokiko araubidearen legedian zehaztutako ordainsariak eta dietak jasotzeko.

132d) Ordainsariak, komisioak eta kargua uzteagatiko ordainsariak jasotzeko, Udalbatzaren bileretara erregulartasunez joaten ez badira ere.

133.- BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN 19. ARTIKULUAREN ARABERA, ZINEGOTZIEK ESKUBIDEA DUTE:

133.a) Espediente bateko agiri guztien kopiak eskuratzeko, horrekin udal zerbitzuaren ohiko funtzionamendua aldatzen badute ere.

133.b) Espedienteetako agirien kopiak eskuratzeko, eta ez dira inolaz ere kontuan hartuko kopiak eskatzen diren udal eremuko ohiko funtzionamendua aldatu dezaketen eskaera bereizi gabeak.

133.c) Udalbatzan parte hartu ahal izateko beharrezko agirien kopiak eskuratzeko.

133.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

134.- BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ATXIKI GABEKO ZINEGOTZIAK IZANGO DIRA:

134.a) Hauteskunde kanpainan haiek aurkeztu zituen alderdi politikoak eratutako talde politikoan sartzen ez diren zinegotziak.

134.b) Hauteskundeetan parte hartzeko erabili zuten alderdi politikoak eratutako talde politikoan sartzen ez diren zinegotziak.

134.c) Beren alderdi politikoak eratutako talde politikoan sartzen ez diren zinegotziak edo beren jatorrizko taldea uzten dutenak.

134.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

135.- BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, FUNTZIO HAUETAKO ZEIN EZ DAGOKIO UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI?

- 135.a) Udalbatzaren saioak deitzea eta horien buru izatea.
- 135.b) Udalbatzaren eta bertako batzordeen fede publikoa ematea.
- 135.c) Osoko bilkuraren ebazpenak jakinaraztea, argitaratzea eta betearaztea.
- 135.d) Udalbatzari eta batzordeei lege aholkularitza ematea.

136.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ALKATEAREN ARDURA DA, DAGOKION SAILEKO ZINEGOTZIAK ESKATUTA, HALA BADAGOKIO:

- 136.a) Zuzendaritza organoak sortu, aldatu eta kentzea.
- 136.b) Unitate administratiboak eta lanpostuak sortu, aldatu eta kentzea.
- 136.c) Tokiko zergak sortu, aldatu eta kentzea.
- 136.d) Merkataritzako sozietate publikoak sortu, aldatu eta kentzea.

137.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK:

- 137.a) Udalbatzak eskuordetutako eginkizun politiko, administratibo eta betearazleak beteko ditu.
- 137.b) Legearen arabera dituen eginkizun betearazle eta administratiboak beteko ditu.
- 137.c) Udalbatzak eskuordetutako eginkizun tekniko, politiko eta administratiboak beteko ditu.
- 137.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

138.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOKO ZUZENDARIAK:

- 138.a) Bileretako deialdiak, gai zerrendak eta aktak artxibatu eta zaindu behar ditu.
- 138.b) Deialdiak bidali behar dizkie Gobernu Batzordeko kideei.
- 138.c) Erabakien jakinarazpena zuzena eta leiala dela bermatu behar du.
- 138.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

139.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ZUZENDARITZA ORGANOEK HARTUKO DITUZTEN ERABAKI ADMINISTRATIBOAK:

139.a) Organo zehatzaren akordioak izango dira.

139.b) Organo zehatzaren ebazpenak izango dira.

139.c) Organo zehatzaren dekretuak izango dira.

139.d) Organo zehatzaren aginduak izango dira.

140.- BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, AHOLKULARITZA JURIDIKOAK ALDEZ AURRETIKO ETA NAHITAEZKO TXOSTENA EGIN BEHARKO DU HONAKO GAI HAUETAN:

140.a) Ordenantza fiskalen eta araudien proiektuak.

140.b) Hirigintza eta Ingurumen Sailaren hitzarmenak.

140.c) Izaera orokorreko gaiei buruzko erabakiak.

140.d) Kaltegarritzat jotzeko prozeduretako ebazpen proposamenak.

5. GAIA. 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARENA.

(141etik 175era)

141.- 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARENA, INDARREAN SARTU ZEN:

141.a) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

141.b) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egunera.

141.c) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 6 hilabetera.

141.d) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera.

142.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAK EZARTZEN DU ERREGELAMENDUZ PROZEDURAREN ZENBAIT BEREZITASUN EZARRI AHAL IZANGO DIRELA. ZERI BURUZKOAK IZAN DAITEZKE?

142.a) Organo eskudunak.

142.b) Gaiagatik zehazki dagokion prozeduraren epeak.

142.c) Hasteko eta amaitzeko moduak.

142.d) Aurreko horiek denak, eta argitaratzeko modua eta eskatu beharreko txostenak.

143.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, AUKERA HAUETAKO ZEIN SARTZEN DA SEKTORE PUBLIKOAN?

143.a) Estatuaren Administrazio Orokorra.

143.b) Autonomia erkidegoen administrazioak.

143.c) Toki administrazioa osatzen duten entitateak.

143.d) Aurreko guztiek eta besteren batek osatzen dute Sektore Publikoa, aipatutako Legearen arabera.

144.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, HAUETAKO ZEIN EZ DA INTERESDUN ADMINISTRAZIO PROZEDURAN?

144.a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.

144.b) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak ditzutenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.

144.c) Prozedura haiek ez hasi arren, hartan emango den aginduak uki ditzakeen eskubideak ditzutenak, eta aginte eskudunaren aurrean agertuko direnak, soilik modu pertsonalean.

144.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

145.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PUBLIKO EGIN EZ DEN PROZEDURA BATEN INSTRUKZIOAN IKUSTEN BADA BADIRELA BESTE PERTSONA BATZUK ESKUBIDE EDO INTERES LEGITIMO ETA ZUZENKOEEN TITULAR DIRENAK, ESPEDIENTEAN IDENTIFIKATUAK ETA PROZEDURAREN EBAZPENAK UKI DITZAKEENAK:

145.a) Prozedura izapidetzen jarraituko da.

145.b) Prozedura izapidetzen ari dela komunikatuko zaie pertsona horiei.

145.c) Legezko modu batean jakinaraziko zaie prozedurako interesdun guztiei.

145.d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

146.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PROZEDURAREN ANTOLAMENDUARI DAGOKIONEZ, ARAU BATEN ONDORIOZ ESPEDIENTE ELEKTRONIKO BAT BIDALI BEHARRA DAGOENEAN:

146.a) Hura izapidetu duen langile publikoaren ezaugarrien eta bitarteko erabilgarrien arabera bidaliko da.

146.b) Ez da beharrezkoa izango aurkibide batekin batera bidaltzea.

146.c) Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean eta Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da, osorik, orrialdekaturik, autentifikaturik eta dituen dokumentu guztien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik.

146.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

147.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, HAUEK DIRA PROZEDURA AMAITZEKO AUKERAK:

147.a) Ebazpena eta atzera egitea.

147.b) Gerora sortutako arrazoiengatik prozedurarekin jarraitzea materialki ezinezkoa izatea. Ematen den ebazpenak arrazoitua izan behar du beti.

147.c) Eskararen oinarri den eskubideari uko egitea –ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu–, eta iraungitzat deklaratzeko.

147.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

148.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ZEIN ARTIKULUTAN ARAUTZEN DIRA PROZEDURAREN INSTRUKZIO EGINTZAK?

148.a) 70. artikuluan.

148.b) 75. artikuluan.

148.c) 78. artikuluan.

148.d) 84. artikuluan.

149.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, NOIZ ERABAKI DEZAKETE PERTSONA FISIKOEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ KOMUNIKATZEA BEREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK BALIATZEKO?

149.a) Prozedura antolatzeke faseak irauten duen bitartean.

149.b) Instrukzioa amaitu baino lehen.

149.c) Entzunaldiaren izapidea egin baino lehen.

149.d) Noiznahi.

150.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ARAU OROKOR GISA, ADIERAZI TOKIKO ERAKUNDEEK ZEIN HIZKUNTZATAN IZAPIDETUKO DITUZTEN ADMINISTRAZIO PROZEDURAK:

150.a) Gaztelaniaz.

150.b) Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntza koofizialetan.

150.c) Kasu honetan, dagokion legedi autonomikoan aurreikusitakora doituko da hizkuntzaren erabilera.

150.d) Kasu honetan, hizkuntzaren erabilera tokiko erakundeak aukeratuko du.

151.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO GUZTI-GUZTIEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOEN FUNTSEZKO EZAUGARRI BAT BETE BEHAR DUTE:

151.a) Teknikoki elkar trukatzeko modukoak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta interkonektioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenak eta edozein erregistroan aurkeztutako agiriak telematikoki igortzea bermatzeko ere.

151.b) Osoz elkarrengarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konektioa bermatzeko, eta orobat erregistro-idazpenen eta edozein erregistroan aurkeztu diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko.

151.c) Osoz elkarrengarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa dena delakoa izan arren.

151.d) Normalizatuta egon behar dira.

152.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ZEIN PROZEDURATAN DUTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EBAZTEKO BETEBEHARRA?

152.a) Salaketatik ofizioz hasten diren prozedura guztietan bereziki.

152.b) Oro har, ofizioz hasten diren prozedura guztietan.

152.c) Prozedura guztietan, horien hasteko modua edozein dela ere.

152.d) Prozedura guztietan, horien amaitzeko modua edozein dela ere.

153.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 33. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN ERREKURTSO AURKEZTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA PRESAZ IZAPIDETZEKOA DELA DEKLARATZEN DUEN ERABAKIAREN KONTRA?

153.a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Akordioa agindutako organoaren aurrean.

153.b) Gora jotzeko errekurtsoa, hierarkian goragoko mailako organo agindu-emailearen aurrean.

153.c) Ezin da errekurtsorik aurkeztu, prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitekeenari kalterik egin gabe.

153.d) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

154.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 40. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA ADMINISTRAZIO-EGINTZAK EMATEN DIRENETIK JAKINARAZTEKO DAGOEN EPEA:

154.a) Zazpi egun.

154.b) Hamar egun.

154.c) Hamabost egun.

154.d) Hogei egun.

155.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 21. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA EBAZPEN ESPRESUA JAKINARAZTEKO EPEA, PROZEDURAK ARAUTZEN DUEN ARAUA BALDIN BADU BAINO EZ BADU EPEA FINKATZEN?

155.a) Dagokion prozedura arautzeko arauak ezarritako epea.

155.b) 3 hilabeteko epea.

155.c) 6 hilabeteko epea.

155.d) Urtebeteko epea.

156.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NON ARGITARATU ETA IZAN BEHAR DITUZTE EGUNERATUTA, JENDEAREN INFORMAZIOERAKO, BEREN ESKUMENEN PROZEDUREN ZERRENDAK, HAIEN GEHIENEN IRAUPENAK ETA ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAREN ONDORIOAK ADIERAZIRIK?

156.a) Beren webguneetan.

156.b) Estatuko Aldizkari Ofizialean.

156.c) Dagokion Aldizkari Ofizialean.

156.d) Beren webguneetan eta dagokion Aldizkari Ofizialean.

157.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, PERTSONA JURIDIKOAK, ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEN EDOZEIN IZAPIDETARAKO, BEHARTUTA EGONGO DIRA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HARREMANA IZATERA:

157.a) Bitarteko elektronikoen bidez, lege batek hala eskatzen duenean.

157.b) Bitarteko elektronikoak erabiliz edo ez.

157.c) Bitarteko elektronikoen bidez, nahitaez.

157.d) Bitarteko elektronikoen bidez, arauz garatzen denean.

158.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAREN BIDEZ GERTATUTAKO ADMINISTRAZIO-EGINTZAK BALIARAZI AHALKO DIRA:

158.a) Espedientearen administrazio instrukzio-egilearen aurrean soilik.

158.b) Administrazioaren aurrean, nola edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribaturen aurrean.

158.c) Soilik pertsona fisikoen aurrean.

158.d) Soilik pertsona fisiko edo juridiko publikoen aurrean.

159.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 77. ARTIKULUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN INSTRUKZIO-EGILEAK FROGALDI BAT HASTEA ERABAKITZEN BADU, EGOKI DERITZON FROGA GUZTIAK EGIN AHAL IZATEKO, EPEA EZINGO DA IZAN:

159.a) Hogei egun baino gehiagokoa eta hamar baino gutxiagokoa.

159.b) Hogeita hamar egun baino gehiagokoa eta hamar baino gutxiagokoa.

159.c) Bi hilabete baino gehiagokoa eta hilabete baino gutxiagokoa.

159.d) Hiru hilabete baino gehiagokoa eta hamabost egun baino gutxiagokoa.

160.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, NORI DAGOKIO ERABAKITZEA FROGALDI BAT HASIKO DELA, INTERESDUNEK ALEGATUTAKO EGITATEAK EGIAZTATZEKO EDO PROZEDURAREN IZAERAK HALA ESKATZEN BADU?:

160.a) Hierarkian goragoko mailakoari.

160.b) Prozedurako interesdunei.

160.c) Prozeduraren instrukzio-egileari.

160.d) Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.

161.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 41. ARTIKULUAREN ARABERA, JAKINARAZPENAK, AHAL DELA, HONELA EGINGO DIRA:

161.a) Posta bidez.

161.b) Telefonoz.

161.c) Bitarteko elektronikoen bidez.

161.d) Administrazioentzako bitartekorik azkarrenaren eta ekonomikoenaren bidez.

162.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ERREGELAMENDUKO XEDAPEN BATEAN EZARRITAKOA URRATZEN DUTEN ADMINISTRAZIO EBAZPENAK DIRA:

162.a) Baliozkoak.

162.b) Deusezak.

162.c) Deuseztagarriak.

162.d) Baliozkotu daitezkeenak.

163.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAREN 35. ARTIKULUAK XEDATZEN DUENEZ (39/20156 LEGEA), HONAKO HAUEK ARRAZOITU EGIN BEHARKO DIRA, EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK LABURKI AIPATUZ:

163.a) Xedapenak edo administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko prozedurak ebazten dituzten egintzak.

163.b) Administrazio-errekurtoak ebazten dituzten egintzak.

163.c) Arbitraje-prozedurak ebazten dituzten egintzak.

163 .d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

164.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 40. ARTIKULUAREN ARABERA, INTERESDUNEI JAKINARAZIKO ZAIZKIE:

164.a) Beren eskubide eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak.

164.b) Beren oinarrizko eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta izapide-egintzak.

164.c) Beren oinarrizko eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak.

164.d) Beren eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak.

165.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEA ARAUTZEN DUEN 39/2015 LEGEAREN 27. ARTIKULUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGINDAKO KOPIA AUTENTIKOEN:

- 165.a) Soilik ondorio administratiboak izango dituzte.
- 165.b) Ez dute inolako ondorio administratiborik izango.
- 165.c) Soilik administrazio horretan izango dute baliozkotasuna.
- 165.d) Ez dute izango baliozkotasunik gainerako administrazioetan.

166.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 106.5 ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, XEDAPEN ETA EGINTZA DEUSEZAK BERRIKUSTEKO OFIZIOZ HASITAKO PROZEDURAN, HASI ZENETIK SEI HILABETEKO EPEA BETETZEN BADA EBAZPENIK EMAN GABE:

- 166.a) Preskribatu egingo da prozedura.
- 166.b) Ezetsi egingo da auzia, administrazio-isiltasunagatik.
- 166.c) Iraungi egingo da prozedura.
- 166.d) Jarduketak deuseztatuko dira.

167.- PERTSONAK BULEGO PUBLIKOETAN AGERTZEA, BERTARA JOANEZ EDO BITARTEKO ELEKTRONIKOZ, NAHITAEZKOA IZANGO DA BAKARRIK:

- 167.a) Interes publikoko arrazoiek hala gomendatzen dutenean.
- 167.b) Lege-mailako arauen batean hala ezarrita dagoenean.
- 167.c) Espediente bat ebazteko egokia dela uste denean.
- 167.d) Inoiz ere ez.

168.- ADMINISTRAZIO-EGINTZA BAT EMAN ZENETIK JAKINARAZTEKO EPEA HAU IZANGO DA:

- 168.a) Hamar egun.
- 168.b) Hamabost egun.
- 168.c) Hogeita hamar egun.
- 168.d) Hilabete.

169.- NOIZ JOTZEN DA EGINTZAT ADMINISTRAZIO-EGINTZA BATEN BITARTEKO ELEKTRONIKOZKO JAKINARAZPENA?

169.a) Interesdunaren posta elektronikoa jasotakoan.

169.b) Haien edukira sartzen den unean.

169.c) Udaleko aplikazio informatikoetatik egiten denean.

169.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

170.- 39/2015 LEGEAREN (APAPEL) 5. ARTIKULUAREN ARABERA, ZER MOTATAKO EGINTZETARAKO EGINGO DA ORDEZKARITZA BEHAR DELAKO PRESUNTZIOA?

170.a) Izapide hutseko egintza eta kudeaketetarako.

170.b) Eskakerak aurkezteko.

170.c) Aitorpenak aurkezteko.

170.d) Errekurtsoak jartzeko.

171.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 107. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EGINTZA DEUSEZTAGARRIEN KALTEGARRITASUN-DEKLARAZIOA EZINGO DA EGIN ADMINISTRAZIO-EGINTZA EMAN ZENETIK EPE BATEAN. ZEIN DA EPE HORI?

171.a) Sei hilabete.

171.b) Urtebete.

171.c) Bi urte.

171.d) Lau urte.

172.- BERRIKUSPEN-ERREKURTSO BEREZIA SOILIK EGIN DAITEKE:

172.a) Administrazio-bidean irmoak diren egintzen aurka.

172.b) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzen aurka.

172.c) Izapide-egintzen aurka, hauek gaiari buruzkoak badira.

172.d) Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenen aurka.

173.- HAUETAKO ZEIN EZ DA ADMINISTRAZIO-ERREKURTSO BAT EZ ONARTZEKO ARRAZOIA:

173.a) Errekurtsio-jartzaileak errekurtsuari okerreko kalifikazioa jartzea edo kalifikaziorik ez jartzea, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.

173.b) Errekurtsio-jartzailearen legitimaziorik eza.

173.c) Errekurtsioak funtsik ez izatea, nabarmen.

173.d) Administrazio-organoak eskumenik ez izatea, eskuduna beste administrazio publiko batekoa denean.

174.- INTERESDUNAK ESKATURIK HASITAKO PROZEDURETAN, HARI INPUTA DAKIOKEEN ARRAZOIREN BATEGATIK GELDITZEN BADA, ADMINISTRAZIOAK ADIERAZIKO DIO:

174.a) Prozedura iraungi egingo dela bi hilabete igarotakoan.

174.b) Prozedura iraungi egingo dela hiru hilabete igarotakoan.

174.c) Salaketa preskribatu egingo dela sei hilabete igarotakoan.

174.d) Prozedura preskribatu egingo dela hiru hilabete igarotakoan.

175.- ZERBAIT EZ EGITEKO EDO JASATEKO BETEBEHAR GUZTIZ PERTSONALA EZARTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO-EGINTZAK BETEARAZ DAITEZKE:

175.a) herritarrak zuzenean derrigortuz, legeak hori espresuki baimentzen duen kasuetan.

175.b) ondarearekiko premiamenduz.

175.c) betearazpen subsidiarioz.

175.d) hertsatzeko isunaz.

6. GAIA. 11/2022, LEGEA, ABENDUAREN 1EKOA, EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKOA. EAEKO ENPLEGATU PUBLIKOAREN ORDAINSARI SISTEMA. ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK, JOKABIDE-KODEA. EAEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN BATERAEZINTASUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK. DIZIPLINA-ARAU BIDEA.

(176tik 210era)

176.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:

176.a) Karrerako funtzionario-izaeraren mugiezintasunerako eskubidea.

176.b) Beren maila profesionalari dagozkion funtzio eta zereginak benetan eta eraginkortasunez betetzeko eskubidea.

176.c) Karrera bertikalean eta barne-sustapenean aurrera egiteko eskubidea lege honetan ezarritakoaren arabera.

176.d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

177.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:

177.a) Nagusi hurrenen eskutik informazioa jasotzeko eskubidea dagokien administrazio-unitateko xedeei, antolaketari eta funtzionamenduari buruz, eta, batez ere, beren mendekotasun hierarkikoari eta dagozkien eskuduntza, eginbehar eta erantzukizunei buruzkoa.

177.b) Nagusi hurrenen eskutik informazioa jasotzeko eskubidea dagokien administrazio-unitateko xedeei, antolaketari eta funtzionamenduari buruz, baina beren mendekotasun hierarkikoa eta dagozkien eskuduntzak, eginbeharrak eta erantzukizunak kontuan hartu gabe.

177.c) Nagusi hurrenen eskutik informazioa jasotzeko eskubidea dagokien administrazio-unitateko xedeei, antolaketari eta funtzionamenduari buruz, eta, batez ere, beren burujabetasun hierarkikoari eta dagozkien eskuduntza, eginbehar eta erantzukizunei buruzkoa.

177.d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

178.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 164. ARTIKULUAREN ARABERA, FUNTZIONARIOEK HONAKO HAUXE IZATEKO ESKUBIDEA EDUKIKO DUTE:

178.a) Urte natural bakoitzean, ordaindutako hogeita bi egun balioduneko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor-egunak.

178.b) Urte natural bakoitzean, ordaindutako hogeita hamar egun balioduneko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor-egunak.

178.c) Urte natural bakoitzean, ordaindu gabeko hogeita bi egun balioduneko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor-egunak.

178.d) Urte natural bakoitzean, ordaindu gabeko hogeita hamar egun balioduneko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor-egunak.

179.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 163. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KARRERAKO EDO BITARTEKO FUNTZIONARIOEK, BALDIN ETA PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEN BADITUZTE BESTE EDOZEIN ADMINISTRAZIO PUBLIKOTAN:

179.a) Ordaindu gabeko baimena jasoko dute hautaketa-ikastaroak edo praktikaldiak irauten duen bitartean. Nolanahi ere, sartu nahi duten administrazio horren kontura ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute.

179.b) Ordaindutako baimena jasoko dute hautaketa-ikastaroak edo praktikaldiak irauten duen bitartean. Nolanahi ere, sartu nahi duten administrazio horren kontura ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute.

179.c) Ordaindu gabeko baimena jasoko dute hautaketa-ikastaroak edo praktikaldiak irauten duen bitartean, eta bateraezina izango da sartu nahi duten administrazio horren kontura jasotzeko eskubidea duten ordainsariekin.

179.d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

180.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 165. ARTIKULUAREN ARABERA, LANALDIA(K):

180.a) Enplegatu publikoek dagokion entitatearen esanetara lanean eta beren jarduera eta eginkizunak betetzen eman behar duten denbora da.

180.b) Urtean zenbatekoa den eta nola banatuta dagoen ezarriko du.

180.c) Osoa edo partziala izan daiteke.

180.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

181.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 166. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN JARDUKETA PROFESIONALAK HONAKO HAUXE BEGIRATUKO DU:

181.a) Osotasun- eta gardentasun-printzipioak, eta guztiz beteko ditu banakako jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.

181.b) Inpartzialtasun eta fede onaren printzipioak, eta guztiz beteko ditu taldeko jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.

181.c) Osotasun- eta gardentasun-printzipioak, eta guztiz beteko ditu banakako eta taldeko jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.

181.d) Inpartzialtasun eta fede onaren printzipioak, eta guztiz beteko ditu banakako jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.

182.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 171. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA:

182.a) Euskal enplegatu publikoek zorrotz bete behar dute indarrean dauden legeetan jarritako bateraezintasun-araubidea.

182.b) Sektore publikoan edo pribatuan edozein jarduera bete dezaten, ez da berariazko ebaluaziorik egin behar aurrez, eta ez da bateragarritasun-baimenik behar.

182.c) Euskal enplegatu publikoek ezin izango dute inolaz ere jarduerarik bete sektore publikoan edo pribatuan.

182.d) Edonola ere, euskal enplegatu publikoek jarduera bete ahal izango dute sektore publikoan edo pribatuan.

183.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 120. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTZEPTU HAUEN ARABERA ORDAINDUKO DIETE LANA FUNTZIONARIOEI:

183.a) Oinarrizko ordainsariak, osagarriak eta aparteko ordainsariak.

183.b) Oinarrizko ordainsariak eta hirurtekoak.

183.c) Ordainsariak eta zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

183.d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

184.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 122. ARTIKULUAREN ARABERA, ORDAINSARI OSAGARRIAK DIRA:

184.a) Betetzen den lanpostuari dagokion destino-osagarria, urtero finkatuko baitzaio zenbatekoa Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan.

184.b) Berariazko osagarriak, esleitua duen lanpostu bakoitzerako bakarra izango denak, lanpostu bakoitzaren berariazko baldintzak ordainduko ditu, aintzat hartuta zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna, arriskua edo nekagarritasuna.

184.c) Produktibitate-osagarria, enplegatu publikoek lanpostuan izandako errendimendu berezia, ohiz kanpoko jarduera eta interesa edo ekimena ordaintzekoa.

184.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

185.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 119. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, FUNTZIONARIOEI:

185.a) Lege horretan ezartzen diren ordainsari-kontzeptuengatik bakarrik ordainduko zaie.

185.b) Lege horretan ezartzen diren ordainsari-kontzeptuengatik eta beste osagarri batzuegatik ordainduko zaie.

185.c) Bidezkotzat jotzen diren ordainsari-kontzeptuengatik ordainduko zaie.

185.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

186.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 167. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ENPLEGATU PUBLIKOAK:

186.a) Ez dute agindu zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizunik izango.

186.b) Agindu zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizuna izango dute.

186.c) Agindu ez zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizuna izango dute.

186.d) Aurreko guztiak faltsuak dira.

187.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 167. ARTIKULUAREN ARABERA:

187.a) Dagokion legerian ezarritakoarekin bat etorritz eskatuko da delitutik eratorritako erantzukizun penala.

187.b) Dagokion legerian ezarritakoarekin bat etorritz eskatuko da delitutik eratorritako erantzukizun zibila.

187.c) Enplegatu publikoen diziplina-erantzukizuna lege honen XII. tituluaren xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

187.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

188.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 177. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, DIZIPLINA-FALTAK DIRA:

188.a) Kapitulu honetan, beste lege batzuetan edo, hala dagokionean, garapen-erregulamenduetan tipifikatutako edozein eginbehar edo betebehar betetzea dakarten egintzak edo ez-egiteak.

188.b) Kapitulu honetan, beste lege batzuetan edo, hala dagokionean, garapen-erregulamenduetan tipifikatutako edozein eginbehar edo betebehar ez betetzea dakarten egintzak edo ez-egiteak.

188.c) Kapitulu honetan, beste lege batzuetan edo, hala dagokionean, garapen-erregulamenduetan tipifikatutako edozein eginbehar edo betebehar betetzea dakarten egintzak.

188.d) Aurreko guztiak faltsuak dira.

189.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 162. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN KOLEKTIBOKI BALIATZEN DIREN ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:

189.a) Grebarako eskubidea, komunitatearentzat ezinbestekoak diren zerbitzuak emango direla bermatu gabe.

189.b) Elkarlaneko parte-hartzerako eskubidea lan-baldintzak erabakitzean.

189.c) Laneko gatazka kolektiboak planteatzeko eskubidea, kasuan-kasuan aplikatu beharreko legeriaren arabera.

189.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

190.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 121. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, OINARRIZKO ORDAINSARITZAT JOTZEN DIRA:

190.a) Aparteko ordainsarien soldata- eta hirurteko-osagaiak.

190.b) Hirurtekoak.

190.c) Lanaldi arruntetik kanpo emandako aparteko zerbitzuengatik haborokinak.

190.d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

191.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 178. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, FALTA OSO ASTUNAK DIRA:

191.a) Inolako begirunerik, arretarik edo errespeturik gabe jokatzea herritarrekin.

191.b) Diskriminazioa dakarren edozein ekintza. Diskriminazioaren arrazoi izango dira arraza edo etnia, erlijioa edo uste sendoak, desgaitasuna, adina, orientazio sexuala, hizkuntza, iritzia, jaioleku edo bizilekua, sexua edo beste edozein arrazoi pertsonal edo sozial.

191.c) Ez betetzea gaixotasun- edo istripu-bajei buruzko arauak.

191.d) Zabarkeria edo asmo txarra dela medio, kalte larriak eragitea Administrazio publikoaren ondasun eta dokumentuei, edo haien kontserbazioa begiratzen ez duten portaerak izatea.

192.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 179. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, FALTA ASTUNAK DIRA:

192.a) Zerbitzua uztea.

192.b) Administrazioari edo herritarrei kalte larria eragiten dieten eta ageriki legez kontrakoak diren akordioak hartzea.

192.c) Agintekeriaz jokatzea lanpostuan jardutean.

192.d) Egun batean lanera ez joatea bidezko arrazoirik gabe.

193.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 180. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, FALTA ARINAK DIRA:

193.a) Lan-ordutegia ez betetzea, bidezko arrazoirik gabe, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.

193.b) Norberaren funtzioak eta zereginak betetzerakoan, zabarkeriaz edo ardurarik gabe jokatzeari, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.

193.c) Kalteak eragitea Administrazio publikoaren ondasun eta dokumentuei eta behar besteko ardurarik gabe jardutea haien kontserbazioan, betiere jokabide horiek falta astuntzat jotzen ez badira.

193.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

194.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:

194.a) Karrerako funtzionario-izaeraren mugikortasunerako eskubidea.

194.b) Karrera profesionalean aurrera egiteko eskubidea, baina ez barne-sustapenerakoa.

194.c) Etengabeko prestakuntza izateko eta ezagutza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea, lehentasunez, lan-ordutegiaren barruan.

194.d) Aurreko guztiak okerrak dira.

195.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 181. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, FALTA MODURA KALIFIKATU DAITEZKEEN EGINTZAK TIPIFIKATZEKO, HONAKO HAUEK HARTUKO DIRA KONTUAN:

195.a) Zer gradutan urratu den legeria.

195.b) Interes publikoan edo herritarren edo Administrazioaren ondarean zein ondasunetan eragindako kalteen larritasuna.

195.c) Administrazioaren irudi publikoaren izen onaren galera.

195.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

196.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 185. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, FALTA ARINAK EGITEAGATIK ZEHAPENA EZARTZEKO ORDUAN, HONAKO HAUXE ERABILIKO DA:

196.a) Prozedura irekia eta laburtua, interesdunari entzun gabe.

196.b) Prozedura laburtua eta sinplifikatua, interesdunari entzun gabe.

196.c) Prozedura irekia eta ohikoa, interesdunari entzunda.

196.d) Prozedura laburtua eta sinplifikatua, interesdunari entzunda.

197.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 183. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEHAPEN HAUEK EZAR DAITEZKE FALTA OSO ASTUNENGATIK:

197.a) Zerbitzutik kentzea.

197.b) Bitarteko funtzionarioaren izendapena ezeztatzea.

197.c) Funtziogabetze irmoa.

197.d) Aurreko guztiak egia dira.

198.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 183. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEHAPEN HAUEK EZAR DAITEZKE FALTA ARINENGATIK:

198.a) Zerbitzutik kentzea.

198.b) Ohartarazpena.

198.c) Nahitaezko lekualdatzea beste lanpostu eta destino batera.

198.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

199.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 185. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, DIZIPLINA-ZEHAPENAK HONAKO HONEXEN ARABERA BETEARAZIKO DIRA:

- 199.a) Erabakitzen diren baldintzak.
- 199.b) Ebazpenean ezarritako baldintzak, hiru hilabeteko gehienezko epean.
- 199.c) Diziplina-espedienteari hasiera ematen dion ebazpenean ezarritako baldintzak.
- 199.d) Ebazpenean ezarritako baldintzak, hiru hilabeteko gutxieneko epean.

200.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:

- 200.a) Etengabeko prestakuntza izateko eta ezagutza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea, lehentasunez, lan-ordutegiaren barruan.
- 200.b) Karrera profesionalean eta barne-sustapenean aurrera egiteko eskubidea.
- 200.c) Enplegatu publikoen datu pertsonalen babeserako eta pribatutasunerako eskubidea.
- 200.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

201.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 124. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ENPLEGATU PUBLIKOEN HONAKO HAUXE JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTE:

- 201.a) Zerbitzuagatiko kalte-ordainak, inolako mugarik gabe.
- 201.b) Zerbitzuagatiko kalte-ordainak, erregelamenduz ezartzen den eran.
- 201.c) Zerbitzuagatiko kalte-ordainak, Funtzio Publikoari buruzko Legean bertan xehatzen den eran.
- 201.d) Ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, ez zerbitzuagatik ez beste ezergatik.

202.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 119. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ORDAINSARI-SISTEMAK HONAKO PRINTZIPIO HAUEK IZANGO DITU:

202.a) Ordainsari guztien gardentasuna eta publikotasuna, ordainsari aldakorrak eta produktibitate eta helburuengatik ezarritakoak izan ezik.

202.b) Ordainsari guztien gardentasuna eta publikotasuna, ordainsari aldakorrak eta produktibitate eta helburuengatik ezarritakoak barne.

202.c) Ordainsari guztien gardentasuna eta publikotasuna, ordainsari aldakorrak barne, baina produktibitate eta helburuengatik ezarritakoak ez.

202.d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

203.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 178. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, FALTA OSO ASTUNAK DIRA:

203.a) Adierazpen-, pentsaera-, ideia- eta iritzi-askatasuna mugatzen duten egintzak.

203.b) Ageri-agerian ez betetzea lanpostuari datxezkion funtsezko funtzioak edo langileak esleituta dituen funtzioak.

203.c) Falta astuna egitea, baldin eta urtebetean beste bi falta astunengatiko zehapena jaso bada.

203.d) Aurreko guztiak egia dira.

204.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 179. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, FALTA ASTUNAK DIRA:

204.a) Bateriaezintasunei buruzko xedapenak betetzea, betiere falta oso astuntzat jotzen ez bada.

204.b) Arduradunek edo zuzendaritza-kideek lanpostuko jardunaz emandako aginduak eta jarraibideak betetzea, betiere falta oso astuntzat jo ez bada.

204.c) Zabarkeria edo asmo txarra dela medio, kalte larriak eragitea Administrazio publikoaren ondasun eta dokumentuei, edo haien kontserbazioa begiratzen ez duten portaerak izatea.

204.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

205.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 180. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, FALTA ARINAK DIRA:

205.a) Bidezko arrazoirik gabe huts egiteagatiko hirugarren falta hiru hilabeteko epean.

205.b) Egun batean lanera ez joatea bidezko arrazoiak izanda.

205.c) Lan-ordutegia ez betetzea, bidezko arrazoirik gabe, betiere falta astuntzat jotzen bada.

205.d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

206.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 183. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZERBITZUTIK KENTZEA:

206.a) Funtzionarioei inolaz ere ezarri ezin izango zaien zehapena da.

206.b) Falta oso astunengatik bakarrik ezarri ahal izango den zehapena da.

206.c) Falta astunengatik eta oso astunengatik ezarri ahal izango den zehapena da.

206.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

207.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 175. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, DIZIPLINA-ERANTZUKIZUNA AZKENDU EGINGO DA:

207.a) Zehapena betetzeagatik bakarrik.

207.b) Zehapena betetzeagatik, heriotzagatik, falta edo zehapena preskribatzeagatik.

207.c) Zehapena betetzeagatik, heriotzagatik, falta edo zehapena iraungitzeagatik.

207.d) Diziplina-erantzukizuna ez da inoiz azkentzen.

208.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 185. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ORGANO ZEHATZAILEAK DIZIPLINA-ZEHAPENEN BETEARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ETETEA ERABAKI AHAL IZANGO DU:

208.a) Interesduna ados ez baldin badago, baina etete horrek egokitzat jotzen den epea izango du, inolako mugarik gabe.

208.b) Interesduna ados baldin badago, baina, edonola ere, etete horrek zehapenaren preskripziorako ezarritako legezko epea gainditu behar du.

208.c) Interesduna ados baldin badago, baina etete horrek ez du gainditu behar zehapenaren preskripziorako ezarritako legezko epea.

208.d) Aurrekoetako bat ere ez da egia.

209.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 175. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, HONAKO HAUEXEK DIRA FALTEN PRESKRIPZIO-EPEAK:

209.a) Falta oso astunek hiru urtera preskribatuko dute; astunek, bi urtera; eta arinek, sei hilabetera.

209.b) Falta oso astunek sei urtera preskribatuko dute; astunek, bi urtera; eta arinek, hilabetera.

209.c) Falta oso astunek ez dute inoiz preskribatzen.

209.d) Zehapenek bakarrik preskribatzen dute, inoiz ez faltek.

210.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 176. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, DIZIPLINA-ZEHAPENAK, BEHIN IRMOTUTA, ESPEDIENTE PERTSONALEAN JASOKO DIRA IDATZIZ:

210.a) Ofizioz edo alderdi-eskariz ezereztatu ahal izango dira edozein unetan.

210.b) Ezin izango dira ofizioz ezereztatu, alderdi-eskariz baino ez.

210.c) Ofizioz edo alderdi-eskariz ezereztatu ahal izango dira, zehapena betetzen denetik aurrera zenbatuko diren aldi zehatz batzuen arabera.

210.d) Ofizioz edo alderdi-eskariz ezereztatu ahal izango dira edozein unetan, betiere zehapen berria ezarri bada.

7. GAIA. 10/1982 LEGEA, AZAROAREN 24KOA, EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKOA.

(211tik 245era)

211.- EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ERABILERA EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAREN LURRALDEAN, HEMEN XEDATUTAKOAREN ARABERAKOA IZANGO DA:

211.a) 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

211.b) 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa eta lege hau garatzeko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak eman ditzaten gainerako xedapenak.

211.c) 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa eta lege hau garatzeko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek xedatua.

211.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

212.- EUSKO LEGEBILTZARRAK ONARTU ZUEN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKO LEGEA ETA IZEN HONEN BIDEZ ZEN EZAGUNA:

212.a) 10/1983 Legea, azaroaren 14koa.

212.b) 10/1983 Legea, azaroaren 24koa.

212.c) 10/1982 Legea, azaroaren 24koa.

212.d) 10/1982 Legea, azaroaren 14koa.

213.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKO LEGEAK EGITURA HAU DU:

213.a) Atariko titulua, 4 titulu, 30 artikulua, 3 xedapen gehigarri, 2 aldibaterako xedapen, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

213.b) Atariko titulua, 3 titulu, 30 artikulua, 3 xedapen gehigarri, 2 aldibaterako xedapen, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

213.c) Atariko titulua, 2 titulu, 30 artikulua, 3 xedapen gehigarri, 2 aldibaterako xedapen, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

213.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

214.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 2. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA PROPIOA:

214.a) Euskara.

214.b) Euskara, baina gaztelania ere erabili daiteke hizkuntza ofizial bezala.

214.c) Euskara, eta hizkuntza ofiziala ere bada, gaztelaniarekin batera.

214.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

215.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKO LEGEA EUSKO LEGEBILTZARRAK ONETSI ZUEN ETA INDARREAN SARTU ZEN:

215.a) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

215.b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

215.c) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

215.d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

216.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA OFIZIALAK DIRA:

216.a) Gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra.

216.b) Euskara da hizkuntza ofizial bakarra.

216.c) Euskara eta gaztelania.

216.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

217.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKARA DA:

217.a) Euskal Herriko hizkuntza propioa, gaztelaniarekin batera.

217.b) Euskal Herriko hizkuntza propio ofizial bakarra.

217.c) Euskal Herriko hizkuntza ofizial bakarra.

217.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

218.- EUSKARARI BURUZKO KONTSULTA-ERAKUNDE OFIZIALA DA:

218.a) Euskal hizkuntzaren kontsultarako Errege Akademia.

218.b) Euskal hizkuntzaren kontsultarako Akademia.

218.c) Euskaltzaindia.

218.d) Euskal Hizkuntzaren Eskola Ofiziala.

219.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEKO ZIOEN AZALPENAREN ARABERA, EUSKARA GIZAKIAK BETE-BETEAN TXERTATZEKO TRESNA DA:

219.a) Nazioarteko Erkidegoan.

219.b) Iberoamerikar Erkidegoan.

219.c) Europar Batasunean.

219.d) Euskal Autonomia Erkidegoan.

220.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO HERRITARREI HONAKO FUNTSEZKO HIZKUNTZA-ESKUBIDE HAUEK AITORTZEN ZAIZKIE:

220.a) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.

220.b) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

220.c) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

220.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

221.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, PERTSONA BATEK BAINO GEHIAGOK ESKU HARTZEN DUEN ESPEDIENTE EDO PROZEDURETAN HERRI-AGINTEEK ERABILIKO DUTE:

221.a) Euskara erabiltzen duen pertsonak ezartzen duen hizkuntza.

221.b) Gaztelania erabiltzen duen pertsonak ezartzen duen hizkuntza.

221.c) Alde biek adostasunez erabaki dezaten hizkuntza.

221.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

222.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAREN MENPEKO ERREGISTRO PUBLIKOETAN DOKUMENTUAK LERROKATZEA EGINGO DA:

- 222.a) Gaztelaniaz, euskarazko itzulpenarekin.
- 222.b) Euskaraz, gaztelaniazko itzulpenarekin.
- 222.c) Dokumentuok idatzita dauden hizkuntza ofizialean.
- 222.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

223.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIOAREN JAKINARAZPENEK ETA ADIERAZPENEK:

- 223.a) Euskaraz egon beharko dute nahitaez eta gaztelaniaz hautaz.
- 223.b) Gaztelaniaz egon beharko dute nahitaez eta euskaraz hautaz.
- 223.c) Bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute.
- 223.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

224.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, BI HIZKUNTZETAN IDATZITA EGON BEHARKO DU:

- 224.a) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteez emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok.
- 224.b) Bide publikoko trafikoko seinale eta ikur orok.
- 224.c) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko herri-agintarietako erabiltzeko eredu ofizial orok.
- 224.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

225.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, HERRI-AGINTEEK ERABILI BEHARREKO INPRIMAKI EDO IDAZKI-EREDU OFIZIAL GUZTIEK EGON BEHARKO DUTE:

- 225.a) Soilik euskaraz idatzita.
- 225.b) Bi hizkuntzetan idatzita.
- 225.c) Soilik gaztelaniaz idatzita.
- 225.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

226.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?

226.a) Herri-agintek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.

226.b) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko administrazioko gainerako lanpostuetara sartzeko egin daitezten hautaprobetan hizkuntza ofizialen ezagupen-maila hartuko da kontutan merezimendu gisa, besteak beste.

226.c) Herri-agintek finkatuko dute zein lanpostutarako izango den derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea.

226.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

227.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 15. ARTIKULUAREN ARABERA, IKASLE GUZTIEI AITORTZEN ZAIE...

227.a) ...irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea irakasmaita guztietan.

227.b) ...irakaskuntza gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaita guztietan.

227.c) ...irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaita guztietan.

227.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

228.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, JAURLARITZAK IKASTETXE BAKOITZEAN IRAKATSI BEHARREKO HIZKUNTZA-EREDUAK FINKATUKO DITU KONTUTAN IZANIK:

228.a) Guraso-kuradoreen nahia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa.

228.b) Guraso-kuradoreen nahia eta familien egoera sozioekonomikoa.

228.c) Guraso-kuradoreen nahia eta familien egoera soziosanitarioa.

228.d) Zuzenak dira b) eta c) erantzunak.

229.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, IKASKETA ARAUTUA ERKIDEGOAN OFIZIALA EZ DEN HIZKUNTZA BATEAN IRAKASTEN DUTEN DIRU PUBLIKOZ LAGUNDUTAKO IKASTETXE PRIBATUEK:

- 229.a) Euskara eta ingelesa irakatsiko dituzte derrigorrezko ikasgai gisa.
- 229.b) Euskara eta gaztelania irakatsiko dituzte derrigorrezko ikasgai gisa.
- 229.c) Euskara, gaztelania eta ingelesa irakatsiko dituzte derrigorrezko ikasgai gisa.
- 229.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

230.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, JAURLARITZAK EUSKARAZKO IRAKASKUNTZARAKO ESKUBIDEA GAUZATZEKO JARRIKO DITU:

- 230.a) Irakasleria gero eta euskaldunagoa lortzeko bitartekoak.
- 230.b) Euskara jakitea derrigorrezkoa izango den irakaspostu edo ikasgelak.
- 230.c) Irakasleen egoera ekonomiko gero eta hobea lortzeko bitartekoak.
- 230.d) Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.

231.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ZEIN ARTIKULU JO ZITUEN INKONSTITUZIONAL KONSTITUZIO AUZITEGIKO EKAINAREN 26KO 82/1986 EPAIAK?

- 231.a) 9.3 eta 12.1 artikulua eta 9.2 artikuluko azken tartekia.
- 231.b) 8.3 eta 12.1 artikulua eta 9.2 artikuluko azken tartekia.
- 231.c) 8.3 eta 12.1 artikulua eta 6.2 artikuluko azken tartekia.
- 231.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

232.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, JAURLARITZAK EUSKARAREN ERABILERA BULTZATU ETA BABESTEKO NEURRIAK HARTUKO DITU ETA, NOLANAHI ERE, HONAKO HAUETAN HEDATU ETA BENETAN ERABILTZEA AHALBIDETUKO DU:

232.a) Egunkari eta aldizkarietan.

232.b) Irudiaren eta soinuaren grabazioetan.

232.c) Irratian.

232.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

233.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA (10/1982 LEGEA), HELDUENTZAKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ETA EUSKALDUNEN ALFABETATZEA SUSTATUKO DITU EUSKO JAURLARITZAK , ETA, HORRETARAKO:

233.a) Merkataritzako sozietate publiko bat sortuko du.

233.b) Enpresa-entitate publiko bat sortuko du.

233.c) Ente publiko bat sortuko du.

233.d) Aurreko erantzunen artean bat ere ez da zuzena.

234.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, HELDUEN EUSKALDUNTZEARI ETA EUSKALDUNEN ALFABETATZEARI BURUZKO ARAUBIDEA FINKATUKO DU:

234.a) Eusko Jaurlaritzaren dekretuak.

234.b) Eusko Legebiltzarraren legeak.

234.c) Eusko Jaurlaritzaren legegintza dekretuak.

234.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

235.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, KALE-BIDEETAN JARRITAKO BIDE-SEINALE ETA MEZUAK HONELA EGONGO DIRA IDATZITA:

235.a) Gaztelaniaz eta euskaraz, trafiko eta bide-segurtasun arloko nazioarteko arauak errespetatu ez arren.

235.b) Soilik gaztelaniaz, betiere nazioarteko arauak errespetatuz trafiko eta bide-segurtasun arloan.

235.c) Bi hizkuntzetan, betiere nazioarteko arauak errespetatuz eta erabiltzaileentzako ulergarritasun- eta segurtasun-eskakizunak betez.

235.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

236.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, I. TITULUA, KAPITULU BAKARRA, HONELA DEITZEN DA:

236.a) Euskararen erabilera irakaskuntzan.

236.b) Euskararen erabilera idatzizko hizkuntza ofizial gisa.

236.c) Herri-aginteen jarduerak.

236.d) Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean.

237.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, HERRITAR GUZTIEK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETAN:

237.a) Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.

237.b) Euskal Herriko hizkuntza propioaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.

237.c) Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.

237.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

238.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKADIN HIZKUNTZA OFIZIALA DA:

238.a) Soilik euskara.

238.b) Euskara eta gaztelania.

238.c) Euskara, gaztelania, galegoa eta katalanarekin batera.

238.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

239.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA,

239.a) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala soilik gaztelania da idatzizko administrazio jakinarazpenetarako.

239.b) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala soilik euskara da idatzizko administrazio jakinarazpenetarako.

239.c) Herri agintariek beharrezko neurriak hartu dituzte eta zainduko dute, Euskal Herriko hizkuntza propioa eta ofiziala euskara izan dadin.

239.d) Euskal Herriko hizkuntza propioa euskara da.

240.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZU GUZTIETAN INPRIMAKIAK, IRAGARKIAK ETA HERRITARRENTZAKO MEZUAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ EGINGO DIRA:

240.a) Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzuak badira.

240.b) Euskal Herritik abiatzen badira eta bertara badatoz.

240.c) Estatutik abiatzen badira eta Euskal Herrira badatoz.

240.d) Euskal Herrira badatoz.

241.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ZIOEN AZALPENAREN ARABERA, HIZKUNTZA DELA-ETA INOR EZ DA DISKRIMINATUKO HONAKOAN BERARIAZ EZARRITAKOAREN ARABERA:

241.a) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 3. artikuluko 6. zenbakian.

241.b) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 6. artikuluko 3. zenbakian.

241.c) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 6. artikuluko 2. zenbakian.

241.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

242.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ZIOEN AZALPENAREN ARABERA, LEGEAREN ZEIN TITULUTAN GALARAZTEN DA HIZKUNTZA-ARRAZOIENGATIKO BEREIZKERIA?

242.a) Atariko tituluan.

242.b) Lehenengo tituluan.

242.c) Bigarren tituluan.

242.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

243.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKARA ERABILTZEKO ESKUBIDEAK GAUZATZEKO HERRI-AGINTEEK:

243.a) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria mantso euskalduntzeko neurriak hartuko dituzte.

243.b) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.

243.c) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria euskalduntzea finkatzeko neurriak hartuko dituzte.

243.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

244.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKARAREN IRAKASKUNTZAKO ERABILERA ARLOKO HERRI-AGINTEEN BETEBEHARRAK DIRELA ETA:

244.a) Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

244.b) Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko ditu pixkanaka Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

244.c) Eusko Legebiltzarrak legeak egingo ditu, euskal gizartearen elebitasuna orokortzeko.

244.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

245.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, BAI EZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?

245.a) Herri-aginteak herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzen saiatuko dira.

245.b) Euskal Herriko herritar guztiek hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dute, nahiz ahoz nahiz idatziz.

245.c) Herri-agintek hizkuntza eskubideak ziurtatuko dituzte nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz hemendik kanpo.

245.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

8. GAIA. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEA.

(246tik 280ra)

246.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEA DA:

- 246.a) 3/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- 246.b) 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- 246.c) 3/1996 Legea, azaroaren 8koa.
- 246.d) 31/1996 Legea, azaroaren 8koa.

247.- KONSTITUZIOAREN ZEIN ARTIKULUTAN EZARTZEN ZAIE BOTERE PUBLIKOEI, POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZPIO ARAUTZAILEEN ARTEAN, LANEKO SEGURTASUNA ETA HIGIENEA ZAINTEKO?

- 247.a) 40.1 artikuluan.
- 247.b) 40.2 artikuluan.
- 247.c) 41.1 artikuluan.
- 247.d) 41.2 artikuluan.

248.- NORK AGINTZEN DIE BOTERE PUBLIKOEI LANEKO SEGURTASUNA ETA HIGIENEA ZAINTEKO?

- 248.a) Laneko segurtasuna eta higienezaren Ordenantza.
- 248.b) Dagokion autonomia erkidegoak.
- 248.c) Espainiako Konstituzioak.
- 248.d) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak.

249.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN XEDEA DA:

- 249.a) Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatuz.
- 249.b) Laneko istripuen estatistikak sustatu eta garatzea.
- 249.c) Langileen segurtasuna garatzea, neurri zuzentzaileak eta zehatzaileak ezarriz.
- 249.d) Printzipio orokorrak ezartzea, enpresariak arriskudun lanak kendu ditzaten.

250.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEKO LAN-IZAERAKO XEDEPENEK IZAERA HAU DUTE:

250.a) Galarazpen arauak.

250.b) Ordezkaritza arauak.

250.c) Jarduera arauak.

250.d) Aginduzko zuzenbide gutxieneko eta xedaezinak.

251.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEA EZARTZEN ZAIE:

251.a) Merkataritza-sozietatei, langilerik izan ez arren.

251.b) Ondarezko sozietatei, langilerik izan ez arren.

251.c) Kooperatiba-sozietatei, lan pertsonala egiten duten bazkideak badituzte.

251.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

252.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEA EZ ZAIE EZARTZEN:

252.a) Polizia, segurtasun eta aduana gordekinei.

252.b) Indar armatuei eta Guardia Zibilaren jarduera militarrei.

252.c) Familia-etxeko zerbitzariei.

252.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

253.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA LANETIK ERATORRITAKO ARRISKUAK SAIHESTEKO EDO HORIEK MURRIZTEKO ENPRESAKO JARDUERA-FASE GUZTIETAN EZARRITAKO JARDUEREN ETA HARTUTAKO NEURRIEN MULTZOA:

253.a) Langileen prebisioa.

253.b) Prebentzioa.

253.c) Langileen babesak.

253.d) Lan-ekipamendua.

254.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANAREN ONDORIOZ LANGILEAK KALTEREN BAT IZATEKO POSIBILITATEA:

254.a) Langileen prebisioa.

254.b) Prebentzioa.

254.c) Lan-arriskua.

254.d) Langileen babesa.

255.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DIRA LANEAN EDO LANA DELA-BIDE IZANDAKO GAIXOTASUN, PATOLOGIA EDO LESIOAK:

255.a) Langileen prebisioa.

255.b) Lan-arrisku larri eta hur-hurrekoa.

255.c) Lanetik eratorritako kalteak.

255.d) Langileen babesa.

256.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LASTER GERTA DAITEKEENA, HORRETARAKO ARRAZIOIAK IZATEAGATIK, BAI ETA LANGILEEN OSASUNARI KALTE HANDIA ERAGIN DIEZAIOSKEENA ERE:

256.a) Lanak eratorritako kalteak.

256.b) Lan-arrisku larri eta hur-hurrekoa.

256.c) Prebentzioa.

256.d) Langileen babesa.

257.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DIRA PREBENTZIO-NEURRI BEREZIRIK IZAN EZEAN ARRISKUAK ERAGITEN DITUZTEN PROZESU, JARDUERA, ERAGIKETA, EKIPAMENDU EDO PRODUKTUAK, HALAKOAK GAUZATZEN EDO ERABILTZEN DITUZTEN LANGILEEN SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO:

- 257.a) Laneko prebentzioak.
- 257.b) Prebentziorako berariazko babesak.
- 257.c) Arriskutsuak izan daitezkeenak.
- 257.d) Lanetik eratorritako kalteak.

258.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANEAN ERABILITAKO EDOZEIN MAKINA, TRAMANKULU, TRESNA EDO INSTALAZIO DA:

- 258.a) Lan-ekipamendua.
- 258.b) Langilearen arriskuen prebentzioa.
- 258.c) Laneko prebentzioa.
- 258.d) Lan-arriskua.

259.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANAREN EDOZEIN EZAUGARRI, LANGILEAREN SEGURTASUN ZEIN OSASUNERAKO ARRISKUAK SORTZEKO ERAGIN NABARIA IZAN DEZAKEENA:

- 259.a) Babesteko arriskuen azterketa.
- 259.b) Lan-baldintza.
- 259.c) Laneko prebentzioa.
- 259.d) Lan-arriskua.

260.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANGILEAK ALDEAN ERAMATEKO EDO ERABILTZEKO EDOZEIN EKIPAMENDU LANEKO ARRISKUTIK EDO ARRISKUETATIK BABESTEKO:

260.a) Babesteko arriskuen azterketa.

260.b) Laneko arropa.

260.c) Lan-arriskua.

260.d) Banakako babes-ekipamendua.

261.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LAN BALDINTZA HOBEAK SUSTATZEA, LANGILEEN LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN BABESA GEHITZEKO:

261.a) Laguntza-arloko politika.

261.b) Prebentzio-arloko politika.

261.c) Laneko giroa hobetzearen arloko politika.

261.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

262.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, PREBENTZIO ARLOKO POLITIKAK HONAKOEN PARTE HARTZEAREKIN EGINGO DIRA:

262.a) Enpresaburuak.

262.b) Langileak.

262.c) Autonomia erkidegoko enpresa-erakundeak eta sindikatuak.

262.d) Enpresaburuak eta langileak.

263.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NOR KONTSULTATUKO DU GOBERNUAK 6. ARTIKULUAN ZERRENDATUTAKO GAIK ARAUTZEKO?

263.a) Enpresaburuak.

263.b) Langileak.

263.c) Ordezkaritza handieneko sindikatu-erakundeak eta enpresaburuaren erakundeak.

263.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

264.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, PREBENTZIO-ZERBITZUEN ANTOLAKETA-, JARDUNBIDE- ETA KONTROL-MODALITATEAK ARAUTUKO DITUZTE:

264.a) Erregelamenduek.

264.b) Errege Dekretuek.

264.c) Dekretuek.

264.d) Legebiltzarreko Legeek.

265.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ORGANO ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA DA:

265.a) Lan-arriskuen Prebentziorako Institutua.

265.b) Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala.

265.c) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala.

265.d) Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionala.

266.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANGILEEK ESKUBIDEA DUTE:

266.a) Laneko segurtasun- eta osasun-arloan benetako babesa izateko.

266.b) Lanean eta hortik kanpo erabateko prebentzioa izateko.

266.c) Laneko prebentziorako.

266.d) Beren lanaz informatzeko.

267.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ENPRESABURUAK:

267.a) Langileak laneko arriskuetatik prebenitzeko eskubidea du.

267.b) Langileak laneko arriskuetatik babesteko eskubidea du.

267.c) Langileak laneko arriskuetatik babesteko betebeharra du.

267.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

268.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN:

268.a) Langileak laneko arriskuetatik babesteko eskubidea dute.

268.b) Langileak laneko arriskuetatik babesteko betebeharra dute.

268.c) Langileak laneko arriskuetatik prebenitzeko eskubidea dute.

268.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

269.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, PREBENTZIO-EKINTZAREN PRINTZPIOAK DIRA:

269.a) Arriskuak saihestea.

269.b) Saihestezinak diren arriskuak ebaluatzea.

269.c) Arriskuen jatorriaren aurka borrokatzea.

269.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

270.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ENPRESA BATEN LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO PLANAK HAUEK IZANGO DITU:

270.a) Antolaketa-egitura, erantzukizunak, eginkizunak.

270.b) Praktikak, prozedurak, prozesuak.

270.c) Baliabideak, enpresan arriskuak prebenitzeko ekintza gauza dadin.

270.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

271.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ENPRESABURUAK BERE LANGILEEI EMAN BEHARKO DIZKIE BANAKAKO BABES EKIPAMENDU EGOKIAK:

271.a) Euren eginkizunak betetzeko, eta zaindu beharko du babes ekipamendu horiek benetan erabiltzen diren.

271.b) Euren eginkizunak betetzeko, eta langileak zaindu beharko du babes ekipamendu horiek egoki erabiltzen diren.

271.c) Egin beharreko lanaren arabera, langileak egoki erabili beharko ditu.

271.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

272.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANGILEAK LANAREN ONDORIOZ ARRISKU LARRI ETA HUR-HURREKOA DUTENEAN EDO IZAN DEZAKETENEAN, ENPRESABURUAK HURRENGO BETEBEHARRAK IZANGO DITU:

272.a) Ukitutako langile guztiak ahalik arinen informatzea, arrisku horren inguruan.

272.b) Neurri egokiak hartu eta jarraibide egokiak ematea, langileek euren jarduera geldiarazteko.

272.c) Egoki dena agintzea, langilea arrisku horren ondorioak saihesteko egoeran izan dadin.

272.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

273.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, SEGURTASUN ETA OSASUNEN BATZORDEA ERATUKO DA HONAKO ENPRESA EDO LANTOKI GUZTIETAN:

273.a) 200 langile edo gehiago dituztenetan.

273.b) 150 langile edo gehiago dituztenetan.

273.c) 100 langile edo gehiago dituztenetan.

273.d) 50 langile edo gehiago dituztenetan.

274.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, SEGURTASUN ETA OSASUNEN BATZORDEA OSATUKO DUTE, BATETIK, PREBENTZIORAKO ORDEZKARIEK ETA, BESTETIK, ENPRESABURUAK EDO TA BERAREN ORDEZKARIEK, KOPURU HONETAN:

274.a) Prebentziorako ordezkarien kopuru berean.

274.b) Prebentziorako ordezkarien kopurua gehi bat.

274.c) Prebentziorako ordezkarien kopurua gehi bi.

274.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

275.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EUROPAKO ZEIN ZUZENTARAU BILDU DA ESPAINIAKO ZUZENBIDERA, AZAROAREN 8KO 31/1995 LEGEAREN BIDEZ?

275.a) 2006/123/EE Zuzentaraua.

275.b) Langileen Estatutua.

275.c) 89/391/EEE Zuzentaraua.

275.d) Laneko Segurtasun eta Higieneko Ordenantza Orokorra.

276.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, MAKINA, EKIPAMENDU, PRODUKTU ETA LANABESEN FABRIKATZAILE, INPORTATZAILE ETA HORNITZAILEEK NAHITAEZ ZIURTATU BEHAR DUTE:

276.a) Halakoak ez direla langileentzat arriskutsuak.

276.b) Halakoak ez direla langileentzat temperatura-iturri.

276.c) Halakoak ez direla langileentzat esfortzuzko arazo-iturri.

276.d) Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

277.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANGILEEN BETEBEHARRA DA:

277.a) Laneko arriskuetatik babesteko erosi dituen bitartekoak eta babes ekipamendua behar bezala erabiltzea.

277.b) Enpresaburuarekin lankidetzan aritzea, ahalik eta eraginkortasun handiena eta etekin ekonomikorik handiena lortzeko.

277.c) Enpresaburuak emandako babes-ekipamenduak modu egokian erabiltzea, enpresaburuaren jarraibideekin bat etorritz.

277.d) Langileak ez du betebeharririk, enpresariak baizik.

278.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, PREBENTZIO-ZERBITZUA ERATZEKO ENPRESABURUAK IZENDATUTAKO LANGILEEK:

278.a) Izan beharko dituzte behar besteko gaitasuna, denbora eta tresneria egokia eta behar beste izan beharko dira.

278.b) Enpresaburuak ahalbidetu beharko du izendatutako langileek eskura izatea beharrezko informazioa eta agiriak.

278.c) Ezin izango dute inolako galerarik jasan, lanbide-arriskuak babesteko eta prebenitzeko enpresan duten jardueren ondorioz.

278.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

279.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ENPRESABURUAK LANGILEAK KONTSULTATU BEHARKO DITU, BEHARREZKO AURRERAPENAREKIN, ONDOKO HAUEK DIRENEAN ERABAKI BEHARREKOAK:

279.a) Enpresako ekoizpen-prozesuaren planifikazioa eta antolaketa.

279.b) Merkataritza-sarearen marketin- eta garapen-jardueren antolaketa eta garapena.

279.c) Prebentzio-arloko prestakuntzaren proiektua eta antolaketa.

279.d) Ingurumenaren babes-arloko informazioaren proiektua eta antolaketa.

280.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, PREBENTZIO-BALIABIDEAK EGON BEHARKO DIRA:

280.a) Suteen eta Larrialdien Prebentziorako Ikuskatzaitzak agintzen duenean.

280.b) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak agintzen duenean.

280.c) Ogasun eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak agintzen duenean.

280.d) Babes Zibil eta Larrialdien Ikuskatzaitzak agintzen duenean.

9. GAIA: DATUEN BABESA: APIRILAREN 27KO 2016/679 ERREGELAMENDUA (EB), EUROPAKO PARLAMENTU ETA KONTSEILUARENA, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO LIBREARI LOTUTA PERTSONA FISIKOAK BABESTEARI BURUZKOA. ERREGELAMENDU HORREK 95/46/ EB ZUZENTARAUA BALIOGABETU DU. ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOA, DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKOA.

(281etik 315era)

281.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA APLIKATZEN ZAIO:

281.a) Datu pertsonalen tratamendu guztiz automatizatuari.

281.b) Datu pertsonalen tratamendu, neurri batean, automatizatuari.

281.c) Fitxategi batean dauden datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuari.

281.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

282.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA EZ ZAIO APLIKATZEN:

282.a) Pertsona fisiko batek egin duen datu pertsonalen tratamenduari, baldin eta etxekoa edo pertsonala baino ez den jarduera batean egiten badu.

282.b) Batasuneko zuzenbidearen esparruaren barruko jarduerak egitearen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduari.

282.c) Fitxategi batean sartzekoak diren datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuari.

282.d) Pertsona fisiko batek egin duen datu pertsonalen tratamenduari, jarduera profesional batean egin badu.

283.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, DATU PERTSONALAK:

283.a) Egokiak, beharrezkoak eta mugatu gabeak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera.

283.b) Haien tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da, interesdunari dagokionez.

283.c) Zehatzak eta, ebazpen judizial batek hala eskatuz gero, eguneratuak izango dira.

283.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

284.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, TRATAMENDUA ZILEGIA IZANGO DA, BALDIN ETA:

284.a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.

284.b) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbearra betetzeko.

284.c) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehaztugabe bati edo gehiagori begira.

284.d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

285.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA:

285.a) Interesdunak eskubidea izango du bere adostasuna edozein unetan kentzeko, adostasuna eman eta hurrengo egunetik aurrera.

285.b) Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarritutako tratamenduaren legitimitatean, non eta adostasun hori osasunari edo ideologiari lotutako datuei buruzkoa ez bada.

285.c) Tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen denean, arduradunak gai izan behar du frogatzeko interesdunak oniritzia eman ziola bere datu pertsonalak tratatzeari.

285.d) Adostasuna kentzea ematea bezain erraza izango da, fitxategiaren arduradunak eta interesdunak estatu kide desberdinetan daudenean helbideratuta izan ezik.

286.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUN BATENGANDIK BERARI BURUZKO DATU PERTSONALAK JASOTZEN DIRENEAN, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK INFORMAZIO HAU GUZTIA JAKINARAZIKO DIO, DATUOK LORTZEN DIREN UNEAN:

286.a) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta harremanetarako datuak eta, halakorik badago, haren ordezkariarenak.

286.b) Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta beraren oinarri juridikoa.

286.c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

286.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

287.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNARI JAKINARAZI EGIN BEHAR ZAIO ESKUBIDEA DUELA BERARI BURUZKO DATU PERTSONALAK IRISPIDEAN IZATEKO, ZUZENTZEKO EDO EZEREZTEKO, TRATAMENDUA MUGATZEKO EDO HAREN AURKA EGITEKO, EDO DATUOK TRANSFERITZEKO.

287.a) Tratamenduaren arduradunak jakinaraziko dio, datu pertsonalak lortzen diren unean.

287.b) Tratamenduaren eragileak jakinaraziko dio, datuak lortu eta hurrengo 5 egunetan.

287.c) Datuen babesaren alorreko kontrol-agintaritza eskudunak jakinaraziko dio, tratamenduaren eragileari zehapen bat jakinarazten zaionean, haren funtzio komertzialetan egindako arau-haustekak direla-eta.

287.d) Tratamenduaren arduradunak jakinaraziko dio, soilik interesdunak eskatzen badu.

288.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, DATU PERTSONALAK INTERESDUNARENGANDIK JASO EZ DIRENEAN, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK INFORMAZIO HAU JAKINARAZIKO DIO:

288.a) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta harremanetarako datuak, baina ez haren ordezkariarenak, halakorik badago.

288.b) Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak, halakorik badago.

288.c) Kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak, baldin eta osasunari edo datu biometrikoei lotutakoak badira soilik.

288.d) Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta tratamenduaren oinarri juridikoa, betiere, botere publiko batek gauzatzen duenean.

289.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAREN IRISPIDE-ESKUBIDEAREN BARRUAN:

289.a) Informazioa erabilera orokorreko formatu batean emango zaio interesdunari, beti.

289.b) Informazioa erabilera orokorreko formatu batean emango zaio interesdunari, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batean bidaltzeko.

289.c) Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, informazioa erabilera orokorreko formatu elektronikoko baten bidez bidaliko da, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batean bidaltzeko.

289.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

290.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK EGIAZTA DIEZAION BERARI BURUZKO DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA EGITEN ARI DEN ALA EZ, BAI ETA, HALA BADA, DATU PERTSONALAK ETA HONAKO INFORMAZIO HAU IRISPIDEAN IZATEKO ESKUBIDEA ERE:

290.a) Tratamenduaren helburuak.

290.b) Kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak.

290.c) Datu pertsonalak zer hartzaileri edo zer hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion, bereziki hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak badira.

290.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

291.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZUZENTZEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ,

291.a) Interesdunak eskubidea du berari buruz dauden datuak zuzendu edo osa ditzaten eskatzeko.

291.b) Interesdunak eskubidea du berari buruz dauden datuak ezereztu eta zuzendu ditzaten.

291.c) Interesdunak eskubidea du berari buruzko datuak zuzendu daitezen soilik.

291.d) 2019/679 (EB) Erregelamenduak ez du eskubide hori jasotzen.

292.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU BERARI BURUZKO DATU PERTSONALAK ATZERAPEN BIDEGABERIK GABE EZEREZTU DITZAN TRATAMENDU-ARDURADUNAK, ZEINA EZ BAITA BEHARTUTA EGONGO DATU PERTSONALAK ATZERAPEN BIDEGABERIK GABE EZEREZTERA, BALDINTZA HAUETAKO BAT GERTATZEN DENEAN:

292.a) Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan.

292.b) Interesdunak bertan behera uzten badu tratamenduaren oinarrian dagoen adostasuna, baina tratamenduak beste oinarri juridiko bat badu.

292.c) Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada.

292.d) Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar baten indarrez.

293.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA MUGATU EGIN BADA, DATU PERTSONALEN EGIAZKOTASUNA INPUGNATZEARI JARRAIKIZ, DATUON TRATAMENDUA EGIN AHAL IZANGO DA SOIL-SOILIK INTERESDUNAK BERE ADOSTASUNA AGERTZEN BADU, NON ETA TRATAMENDUA HAU BADA:

293.a) Horiek lagatzea.

293.b) Horiek gordetzea.

293.c) Horiek transferitzea.

293.d) Horiek argitaratzea.

294.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU TRATAMENDU-ARDURADUN BATI HELARAZI DIZKION DATU PERTSONALAK ERABILERA OROKORRA ETA IRAKURKETA MEKANIKOA DUEN FORMATU EGITURATU BATEAN JASOTZEKO, BAI ETA BESTE TRATAMENDU-ARDURADUN BATI BIDALTZEKO ERE, DATUAK JASO DITUEN ARDURADUNAK OZTOPORIK JARRI GABE, BALDIN ETA BALDINTZA HAUEK BETETZEN BADIRA:

294.a) Tratamendua adostasunean edo kontratu batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

294.b) Tratamendua soilik adostasunean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

294.c) Tratamendua adostasunean, kontratu batean edo lege-betebehar batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

294.d) Tratamendua adostasunean edo kontratu batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen eta automatizatu gabeen bidez egiten bada.

295.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN HELBURUA MARKETIN ZUZENA BADA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU...

295.a) ...edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, profilen elaborazioaren aurka izan ezik, baldin eta marketin horrekin lotuta badago.

295.b) ...berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko horiek eman eta lehen bi urteetan, baita profilen elaborazioaren aurka ere, baldin eta marketin horrekin lotuta badago.

295.c) ...edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, baita profilen elaborazioaren aurka ere, baldin eta marketin horrekin lotuta badago.

295.d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

296.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ESALDI HAUETATIK ZEIN DA OKERRA?

16.a) Pertsona juridiko diren interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea izan ezik.

296.b) Interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea izan ezik.

296.c) Interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea barne.

296.d) Esaldi guztiak dira okerrak.

297.- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI EDO ERAGILEARI APLIKATZEN ZAION BATASUNEKO EDO ESTATU KIDEETAKO ZUZENBIDEAK MUGAK JARRI AHAL IZANGO DIZKIO, LEGEGINTZAKO NEURRIEN BITARTEZ, 12. ARTIKULUTIK 22.ERA BITARTEAN ETA 34.EAN EZARRITAKO BETEBEHAR ETA ESKUBIDEEN IRISMENARI; BAITA 5. ARTIKULUAN EZARRITAKOENARI ERE, BERTAKO XEDAPENAK BAT DATOZEN NEURRIAN 12.ETIK 22.ERA BITARTEKO ARTIKULUETAN JASOTZEN DIREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREKIN, BETIERE, MUGA HORIEK OINARRIZKO ESKUBIDE ETA ASKATASUNEN MUINA ERRESPETATZEN BADUTE ETA NEURRIAK NAHITAEZKOAK ETA PROPORZIONALAK BALDIN BADIRA GIZARTE DEMOKRATIKO BATEAN HELBURU HAUEK BABESTEKO:

297.a) Estatuaren segurtasuna.

297.b) Defentsa.

297.c) Segurtasun publikoa.

297.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

298.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOA EZ ZAIE APLIKATZEN:

298.a) Datuen babeserako 2016/679 (EB) Erregelamendu orokorrak araututako eremuko tratamenduei.

298.b) Gai sailkatuen babesari buruzko araudien eraginpean dauden tratamenduei.

298.c) Hildakoei buruzko datuen tratamenduei, kasu guztietan.

298.d) 3/2018 Lege Organikoa kasu horietan guztietan aplikatzen da.

299.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ADINGABE BATEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA BERE ADOSTASUNEAN OINARRITU AHAL IZANGO DA, BALDIN ETA ADIN HONETATIK GORAKOA BADA:

299.a) 13 urte.

299.b) 16 urte.

299.c) 14 urte.

299.d) 18 urte.

300.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, DATU PERTSONALAK ERAGINDAKOARENGANDIK JASO DIRENEAN, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA BETE BEHARKO DU, ERAGINDAKOARI OINARRIZKO INFORMAZIO HAU EMANEZ:

300.a) Tratamenduaren arduradunaren identitatea, tratamenduaren xedea eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 15.etik 22. artikulura bitarteko eskubideak erabiltzeko duen aukera.

300.b) Tratamenduaren arduradunaren eta haren ordezkariaren identitatea, tratamenduaren xedea eta tratatuko diren datuen kategoriak.

300.c) Tratamenduaren arduradunaren identitatea, tratamenduaren xedea, tratatuko diren datuen kategoriak eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 15.etik 22. artikulura bitarteko eskubideak erabiltzeko duen aukera.

300.d) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 15.etik 22. artikulura bitarteko eskubideak erabiltzeko duen aukera.

301.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, MARKETIN ZUZENA DELA-ETA, DATUAK EZABATZEKO ESKUBIDEA ERABILTZEN BADA:

- 301.a) Arduradunak eragindakoaren erregistro guztiak ezabatu beharko ditu.
- 301.b) Arduradunak eragindakoa identifikatzeko behar diren datuak gorde ahal izango ditu, barneko estatistikak egiteko soilik.
- 301.c) Arduradunak eragindakoa identifikatzeko behar diren datuak gorde ahal izango ditu, etorkizuneko tratamenduak saihesteko.
- 301.d) Arduradunak eragindakoaren datuak gorde ahal izango ditu, baina ezin izango ditu erabili, harik eta interesdunak berriz ere berariaz baimentzen duen arte.

302.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAK BAIMENA EMATEN DIE IRUDIAK TRATATZEKO, KAMERA EDO BIDEOKAMARA SISTEMEN BIDEZ, PERTSONEN ETA ONDASUNEN NAHIZ INSTALAZIOEN SEGURTASUNA ZAINTEKO, HAUEI:

- 302.a) Soilik dagokion erregistroan behar bezala identifikatutako pertsona fisikoei.
- 302.b) Soilik pertsona juridikoei, hala publikoak nola pribatuak.
- 302.c) Pertsona fisiko edo juridikoei, hala publikoak nola pribatuak, nahiz eta bide publikoko irudiak hartzea soilik erakunde publikoei mugatuta dagoen.
- 302.d) Pertsona fisiko edo juridikoei, hala publikoak nola pribatuak.

303.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOekin LOTUTAKO DATUEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ, HAUTA EZAZU ERANTZUN OKERRA.

- 303.a) Zehapen-prozeduraren instrukzioaren eskumena duen organoak baimena du datuak tratatzeko.
- 303.b) Abokatu eta prokuradoreek datuak tratatzeko baimena dute, beraien funtzioak betetzeko.
- 303.c) Zehapenak ezartzeko eskumena duen organoak baimena du datuak tratatzeko.
- 303.d) Arau-haustek salatzeako eskumena duen organoak baimena du datuak tratatzeko.

304.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ERAKUNDE HAUETAKO ZEINEK EZ DU IZAN BEHAR NAHITAEZ DATUEN BABESERAKO ORDEZKARIA?

304.a) Elkargo profesionalak.

304.b) Segurtasun pribatuko enpresek.

304.c) Norberaren izenean jarduten duten osasun arloko profesionalak.

304.d) Unibertsitate publikoek.

305.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOA ZERA DA:

305.a) Zuzenean Datuen Babeserako Europako Batzordearen mende dagoen agintaritza administratiboa.

305.b) Justizia Ministerioaren mende dagoen agintaritza administratiboa.

305.c) Estatuko agintaritza administratibo independentea.

305.d) Emakida administratibo bat da, 4 urtean behin lehiaketa publiko bidez berritzen dena.

306.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAREN PRESIDENTEA:

306.a) Gorte Nagusiek izendatuko dute, legegintzaldiko dekretu bidez.

306.b) Ministroen Kontseiluak izendatuko du, errege dekretu bidez.

306.c) Karguak lau urteko iraupena du, eta berritu egin daiteke, iraupen bereko beste aldi baterako.

306.d) Karguak lau urteko iraupena du, eta ezin da luzatu.

307.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOKO ARAU-HAUSTE BAT OTE DAGOEN AZTERTZEKO PROZEDURAREN EPEA:

307.a) 3 hilabetekoa da.

307.b) 6 hilabetekoa da.

307.c) 9 hilabetekoa da.

307.d) 12 hilabetekoa da.

308.- ZEINTZUK EZ DAUDE DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ZIGOR ARAUBIDEAREN MENDE?

308.a) Tratamenduaren arduradunak.

308.b) Datuen babeserako ordezkariak.

308.c) Ziurtatze erakundeak.

308.d) Tratamenduaren eragileak.

309.- ZENBAT DENBORAKOA DA DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOARI EGINDAKO ARAU-HAUSTE OSO LARRIEN PRESKRIPZIO-EPEA:

309.a) 2 urtekoa.

309.b) 3 urtekoa.

309.c) 4 urtekoa.

309.d) 5 urtekoa.

310.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ARAU-HAUSTE LARRITZAT HARTZEN DA:

310.a) Informazioaren gardentasun printzipioa edo eragindakoaren informaziorako eskubidea ez betetzea, eskatutako informazio guztia ez emateagatik.

310.b) Adingabe baten datuak tratatzea haren adostasuna lortu gabe, orretarako gaitasuna duenean.

310.c) Tratamendu-jardueren erregistroa ez jartzea hala eskatu duen datuen babeserako agintaritzaren eskura.

310.d) Datuen babeserako ordezkari bat ezartzeko betebeharra ez betetzea, hala egitea eskatu dakiokenean.

311.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOA DELA-ETA EZARRITAKO ZEHAPENAK NOIZ PRESKRIBATZEN DIRA:

311.a) 40.000 euroko edo gutxiagoko zehapenak sei hilabetera preskribatzen dira.

311.b) 40.001 eta 300.000 euro arteko zigorrak urte bateko epean preskribatzen dira.

311.c) 300.000 eurotik gorako zehapenak bi urtera preskribatzen dira.

311.d) 300.000 eurotik gorako zehapenak hiru urtera preskribatzen dira.

312.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, KONSTITUZIOAN ETA ESPAINIA PARTE DEN NAZIOARTEKO TRATATU NAHIZ HITZARMENETAN ALDARRIKATUTAKO ESKUBIDE ETA ASKATASUNAK:

312.a) Interneten ere erabat aplikatzekoak dira.

312.b) Interneten aplikatzekoak izango dira, lege mailako arau batek garatzen dituenean.

312.c) Interneten aplikatzekoak izango dira, soilik Espainiako lurraldean ostatatutako web orrialdeetan.

312.d) Ez dira Interneten aplikatzekoak.

313.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, SEGURTASUN DIGITALERAKO ESKUBIDEA:

313.a) Interneten ez dago.

313.b) Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez bidali eta jasotzen dituzten komunikazioen gainean.

313.c) Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez bidaltzen dituzten komunikazioen gainean, baina ez, jasotzen dituztenen gainean.

313.d) Erabiltzaileek segurtasunerako eskubidea dute Internet bidez jasotzen dituzten komunikazioen gainean, baina ez, bidaltzen dituztenen gainean.

314.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, NORK DU ESKUBIDEA BERARI BURUZKO DATUAK EZABA DITZATEN, ESKATZE HUTSAREKIN?

314.a) Sare sozialen zerbitzuetan argitaratzeko, berari buruzko datuak eman dituen pertsona orok.

314.b) Sare sozialen zerbitzuetan argitaratzeko, hirugarrenek berari buruzko datuak eman dituztenean.

314.c) Sare sozialen zerbitzuari datuak eman dizkioten eragindakoei, baina soilik adingabe direla eman badituzte.

314.d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

315.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, EPEAK EGUNEN ARABERAKOAK BADIRA:

315.a) Egunak naturalak direla ulertzen da.

315.b) Egunak baliiodunak direla ulertzen da, eta igande eta jaieguntzat jotakoen kopurua kentzen da.

315.c) Egunak baliiodunak direla ulertzen da, eta kendu egin behar da larunbat, igande eta jaiegun nazionaltzat jotakoen kopurua.

315.d) Egunak baliiodunak direla ulertzen da, eta kendu egin behar da larunbat, igande eta jaieguntzat jotakoen kopurua.

10. GAIA. 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, MARTXOAREN 16KOA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEA. ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNERAKO UDALAREN V. PLANA.

(316tik 350era)

316.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEA BIGARRENEZ ALDATZEN DUEN 1/2022 LEGEAREN AZKEN XEDAPENETAKO ZORTZIGARRENAK HONAKO HONETARAKO BAIMENA EMATEN DIO EUSKO JAURLARITZARI:

316.a) Lege hori indarrean jarri eta urtebeteko epean, testu bakar batean batzea lege horretan egindako aldaketak.

316.b) Lege hori indarrean jarri eta bi urteko epean, testu bakar batean batzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta lege horretan egindako aldaketetan jasotako lege-xedapenak.

316.c) Lege hori indarrean jarri eta urtebeteko epean, testu bakar batean batzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta lege horretan egindako aldaketetan jasotako lege-xedapenak, baina ez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea.

316.d) Lege hori indarrean jarri eta urtebeteko epean, testu bakar batean batzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta lege horretan egindako aldaketetan jasotako lege-xedapenak.

317.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA HONELAXE DAGO EGITURATUTA:

317.a) Atariko titulua, 5 titulu eta 85 artikulua.

317.b) Atariko titulua, 5 titulu eta 83 artikulua.

317.c) Atariko titulua, 4 titulu eta 83 artikulua.

317.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

318.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 1. ARTIKULUAREN ARABERA, LEGE HONEK HONAKO HAUXE DU HELBURU:

318.a) Botere publikoen jarduera gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri arautzea bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko.

318.b) Bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduntzea bultzatzeko eta emakumeek jendartean, ekonomian zein politikan duten estatusa sendotzeko, egiturazko desberdinkeria eta sexuan oinarritutako diskriminazio-modu oro ezabatzeko.

318.c) Azken batean, jendarte berdinzalea eta indarkeria matxistarik gabea lortu nahi da, non pertsona oro libre izango den, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko.

318.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

319.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA INDARREAN SARTUKO DA:

319.a) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

319.b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

319.c) Estatuko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hogeiei egunera.

319.d) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratu eta hogeiei egunera.

320.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 2. ARTIKULUAREN ARABERA, LEGE HONEN ONDORIOETARAKO, HONAKO HAUXE DA EAE-KO BOTERE PUBLIKOA:

320.a) EAeko administrazio publiko guztiak eta haien administrazio instituzionalak, baina ez haien erakunde instrumentalak.

320.b) EAeko sektore publikoa osatzen duten nortasun juridiko independentedun erakunde publikoak, adskripzio-araubidea dutenak, eta sortze-arauan berariaz hala ezarrita duten beste erakunde batzuk.

320.c) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

320.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

321.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 3. ARTIKULUAREN ARABERA, HONAKO HAUEK DIRA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EAE-KO BOTERE PUBLIKOEN JARDUERA GIDATU ETA BIDERATU BEHAR DUTEN PRINTZIPIO OROKORRAK:

321.a) Tratu-berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatzea.

321.b) Aukera-berdintasuna.

321.c) Lankidetzeta eta koordinazioa eta nazioartekotzea.

321.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

322.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, ZUZENEKO DISKRIMINAZIOA DAGO:

322.a) Pertsona bati, antzeko egoeran egonda, beste bati baino tratu hobea ematen zaionean, eman zaionean, edo eman lekiokenean, haren sexua dela-eta edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta.

322.b) Pertsona bati, antzeko egoeran egonda, beste bati baino tratu txarragoa ematen zaionean, eman zaionean, edo eman lekiokenean, haren sexua dela-eta edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta; esaterako, haurdun egotea edo ama izatea.

322.c) Pertsona bati, antzeko egoeran egonda, beste bati baino tratu txarragoa ematen zaionean, eman zaionean, edo eman lekiokenean, haren sexua dela-eta edo sexuarekin loturik ez dauden inguruabarrak direla-eta; esaterako, haurdun egotea edo ama izatea.

322.d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

323.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, EZ DIRA SEXUAN OINARRITUTAKO DISKRIMINAZIOTZAT JOKO:

323.a) Justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik ez duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere.

323.b) Justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu berdinzalea ematea badakarte ere.

323.c) Justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere.

323.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

324.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BENETAKO BERDINTASUN ERAGINKORRA LORTZEA SUSTATZE ALDERA, HONAKO HAUXE EGIN BEHAR DUTE BOTERE PUBLIKOEK:

324.a) Neurri espezifikoak eta aldi baterakoak hartzea, bizitzaren eremuetan sexuan oinarritutako egitatezko desberdinkeriak desagerrarazteko edo murrizteko.

324.b) Neurriak hartzea, zuzenbidearen munduan eta bizitzaren eremuetan sexuan oinarritutako desberdinkeriak desagerrarazteko.

324.c) Neurriak hartzea, pertsonen berdintasun juridikoa sustatzeko eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak desagerrarazteko.

324.d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

325.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, LAU KIDETIK GORAKO PERTSONA ANITZEKO ORGANOETAN ORDEZKARITZA OREKATUA DAGOELA ULERTUKO DA:

325.a) Sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkari-tza dutenean gutxienez.

325.b) Sexu bakoitzeko kideek % 50eko ordezkari-tza dutenean gutxienez.

325.c) Sexu bakoitzeko kideek % 60ko ordezkari-tza dutenean gutxienez.

325.d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

326.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OSORAKO ERAKUNDEEI DAGOKIE:

326.a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai legegintzako eskumena, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta betearazteko eskumena ere.

326.b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai eskumen eskusiboa, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta betearazteko eskumena ere.

326.c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai legegintzako eskumena, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta zuzeneko ekintza ere.

326.d) Eskumena lurralde historikoena da.

327.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 5. ARTIKULUAREN ARABERA, OSORAKO ERAKUNDEEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN DUTEN ESKUMENA, AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOARI DAGOKIONEZ, ONDOKO EGINKIZUNETAN GAUZATUKO DA:

327.a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, beren administrazio-jardueran genero-ikuspegia integratze aldera.

327.b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko plangintza eta koordinazioa gauzatzea eta eremu horretako arau eta jarraibide orokorrak egitea.

327.c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, EAEko administrazio publiko guztien jardueren arteko lankidetzaren bultzatzea.

327.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

328.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 7. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEK EGINKIZUN HAUEK BETE BEHAR DITUZTE ARLO HONETAN: (OKERRA markatu)

328.a) Estatistikak egokitzea eta eguneratzea, emakumeek eta gizonek zer egoera bereizgarri duten jakiteko.

328.b) Sexuan oinarritutako diskriminazio-egoerak hautematea.

328.c) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak ezartzea.

328.d) Zehatzeko ahala baliatzea.

329.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARDURA DA:

329.a) Foru Aldundietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak planifikatu, betearazi eta horiei buruz aholku ematea.

329.b) Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, planifikatu, ebaluatu eta horiei buruz aholku ematea.

329.c) Toki Administrazioan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, planifikatu, betearazi eta horiei buruz aholku ematea.

329.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

330.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, HONAKO HAUXE DA AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK ETA FORU- ETA TOKI-ADMINISTRAZIOEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN GARATZEN DITUZTEN POLITIKAK ETA PROGRAMAK KOORDINATUKO DITUEN ORGANOA:

330.a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Lantaldea.

330.b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batza.

330.c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.

330.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

331.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, HONAKO HAUXE IZANGO DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEBURUA:

331.a) Lehendakaria.

331.b) Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

331.c) Emakundeko zuzendaria.

331.d) Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua.

332.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 16. ARTIKULUAREN ARABERA, UDALETAKO BERDINTASUNERAKO PLANEK EZ DUTE HONAKO HAUXE IZAN BEHAR:

332.a) Egoeraren diagnostikoa.

332.b) Zehapen-araubidea.

332.c) Aurrekontua.

332.d) Egutegia.

333.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 21. ARTIKULUAREN ARABERA, ENPLEGU PUBLIKOKO LANPOSTUAK LORTZEKO, BETETZEKO ETA MAILAZ IGOTZEKO HAUTAKETA-PROZESUETAN HONAKO HAUEK JASO BEHAR DIRA:

333.a) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 20 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan.

333.b) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 30 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan.

333.c) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan.

333.d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

334.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, HONAKO HONEK EMAN BEHAR DU AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ESPARRUAN PRESTATZEN DIREN ARAU-PROIEKTUEI BURUZKO TXOSTENA:

334.a) Arartekoa.

334.b) Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

334.c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.

334.d) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.

335.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 47. ARTIKULUAREN ARABERA, SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI DAGOKIONEZ.... (ERANTZUN OKERRA MARKATU):

335.a) Sexuan oinarritutako laneko jazarpenzat hartuko da pertsona bati, lan-harremanen eremuan edo lan-harremanak direla-eta, berak nahi gabe eta daukan sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide zuzentzea, horren helburua edo ondorioa bada pertsona horren duintasunaren kontra egitea edo beldurtzeko, apaltzeko, umiliatzeko edo eraso edo irain egiteko giro bat sortzea.

335.b) Sexuan oinarritutako laneko jazarpenzat hartuko da pertsona bati berak nahi gabe eta sexuarekin loturik hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide zuzentzea.

335.c) Sexuan oinarritutako jazarpena diziplinako falta oso larria izango da EAEko administrazio publikoetako funtzionarioentzat.

335.d) EAEko administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, premiazko eta doako laguntza juridiko eta psikologiko espezializatua, deszentralizatua eta eskuragarria bermatu behar diete sexuan oinarritutako jazarpenaren biktimei.

336.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 61. ARTIKULUAREN ARABERA, ESKURAGARRI DITUZTEN PRESTAZIO EKONOMIKO OROKORREZ GAINERA, EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ONDOREN ZEHAZTEN DIREN LAGUNTZA EKONOMIKO ESPEZIFIKOETARAKO SARBIDEA BERMATU BEHAR DIETE:

336.a) Ordainketa bakarreko laguntzak, baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatzen duten biktimeentzat.

336.b) Laguntza ekonomikoa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimeen seme-alaba umezurtzentzat.

336.c) Aparteko laguntzak, ebaluagarriak eta egiaztagarriak diren premia pertsonaleko egoerak arintzeko, betiere organo eskudunek ikusten badute laguntza arruntik ez dagoela edo laguntza arrunten zenbatekoa ez dela nahikoa.

336.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

337.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 71. ARTIKULUAREN ARABERA, HONAKO HAUXE OZTOPO IZANGO DA EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDERA JOTZEKO:

337.a) Nazionalitatea.

337.b) Bizilekua.

337.c) Adina.

337.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

338.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 71. ARTIKULUAREN ARABERA, HONAKO HAUEK KEXA AURKEZ DEZAKETE EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAN:

338.a) Sexua dela-eta bereizkeria jasaten duela uste duen edozein pertsona.

338.b) Sexua dela-eta bereizkeria jasaten duela uste duen edozein pertsona-talde.

338.c) Beren helburuen artean emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela zaintzea helburu duten elkarteak, erakundeak eta beste pertsona juridiko batzuk.

338.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

339.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 71. ARTIKULUAREN ARABERA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAN KEXAK:

339.a) Idatziz baino ez dira aurkeztu behar.

339.b) Ahoz aurkez daitezke.

339.c) Ez dira arrazoitu behar.

339.d) Letraduak sinatutako idazkiaren bidez aurkeztu behar dira.

340.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 74. ARTIKULUAREN ARABERA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAK URTEKO TXOSTEN BAT IDATZI ETA HEMEN AURKEZTUKO DU:

340.a) Arartekoa.

340.b) Eusko Legebiltzarra.

340.c) Eusko Jaurlaritza.

340.d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.

341.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAREN ARABERA, ADIERAZI HAUETAKO ZEIN DEN HAREN PRINTZIPIO ORIENTATZAILE BAT:

341.a) Ekintza positiboa.

341.b) Irdezkaritza orekatua.

341.c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

341.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

342.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANA ANTOLATUTA DAGO AGINTALDIRAKO HELBURUAK, AURREIKUSPENAK ETA KONPROMISOAK GARATU ETA BETETZEAREN INGURUAN. NON ZEHAZTEN DIRA HELBURU, AURREIKUSPEN ETA KONPROMISO HORIEK?

342.a) Bilboko Udalaren Aginte-Planean (2011-2015).

342.b) Bilboko Udalaren Aginte-Planean (2015-2019).

342.c) Bilboko Udalaren Aginte-Planean (2019-2023).

342.d) Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

343.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANA PROZESU JARRAITU ETA IRAUNKOR BATEN EMAITZA IZAN DA, ETA HONAKO HAUEK PARTE HARTU DUTE PROZESU HORRETAN:

343.a) Mugimendu feministaren eta Bilboko merkatarien elkarreana.

343.b) Mugimendu feministaren eta Bilboko auzoetako elkarreana.

343.c) Mugimendu feministaren eta Bilboko emakumeen elkarreana.

343.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

344.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAK BOST PRINTZIPIO GIDARI DITU OINARRI: (MARKATU HEMEN AIPATZEN DIRENEN ARTEAN ZEIN EZ DEN BOST HORIEN ARTEKOA)

344.a) Tratu eta aukera berdintasuna.

344.b) Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea.

344.c) Berdintasunaren errespetua.

344.d) Dibertsitatearen eta diferentziaren errespetua.

345.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAK DIO EZEN INDARKERIAK JASATEN DITUZTEN EDO JASAN DITUZTEN EMAKUMEEN ESKUBIDEA DELA ARRETA ETA BABESA JASOTZEA, GERTATUTAKOA IKERTZEA, EDOTA BEREN SUSPERTZEA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA, ETA ESKUBIDE HORREK GIDATUKO DUELA UDALAREN JARDUERA BEREN-BEREGI:

345.a) Kontuan hartuz emakume bakoitzaren beharizan, bizipen eta berezitasun espezifikoak, interseksionalitateak.

345.b) Erakundeekin, gizarte zibilarekin, gizarte erakundeekin eta, bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduarekin koordinatzeko eta haiekin guztiekin lankidetzan aritzeko tresnak garatuz.

345.c) Betiere, berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza moduan.

345.d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

346.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAREN BIGARREN JARDUERA-ARDATZ HANDIA BERDINTASUNERAKO POLITIKA ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZA POSITIBOAK DIRA:

346.a) Eta ardatz horretan jasotzen da genero-ikuspegia sektore-ikuspegi batetik txertatzeko neurri multzo bat, udal-eskumenen esparruan diseinatzeko, ezartzen eta ebaluatzen diren politika sektorial guztietan, eta hautemandako genero-diskriminazio oro desagerrarazteko beharrezkoak diren neurri guztiak garatzea.

346.b) Eta ardatz horretan jasotzen da genero-ikuspegia ikuspegi intersektionaletik txertatzeko neurri multzo bat, udal-eskumenen esparruan diseinatzeko, ezartzen eta ebaluatzen diren politika sektorial guztietan, eta hautemandako genero-diskriminazio oro desagerrarazteko beharrezkoak diren neurri guztiak garatzea, ekintza positiboak barne.

346.c) Eta ardatz horretan jasotzen da ekintza positiboak sektorearteko ikuspegi batetik txertatzeko neurri multzo bat, udal-eskumenen esparruan diseinatzeko, ezartzen eta ebaluatzen diren politika sektorial guztietan, hautemandako genero-diskriminazio oro desagerrarazteko beharrezkoak baitira.

346.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

347.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAK DIO EZEN INDARKERIAK JASATEN DITUZTEN EDO JASAN DITUZTEN EMAKUMEEN ESKUBIDEA DELA ARRETA ETA BABESA JASOTZEA, GERTATUTAKOA IKERTZEA, EDOTA HAIEN SUSPERTZEA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA:

347.a) Eta, horretarako, erakundeekin, gizarte zibilarrekin, gizarte-erakundeekin eta bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduekin koordinatzeko eta haiekin guztiekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.

347.b) Eta, horretarako, erakundeekin, gizarte- eta ekonomia-erakundeekin eta bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduekin koordinatzeko eta haiekin guztiekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.

347.c) Eta, horretarako, erakundeekin, erakunde zibilekin eta, bereziki, emakumeen auzo-elkarteekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.

347.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

348.- BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAK AURRERANTZEAN ERE SAKONTZEKO ALDERDI MODUAN AIPATZEN DITU:

- 348.a) Genero ikuspegiarekiko aurrekontuak.
- 348.b) Genero inpaktuaren alde aurreko ebaluazioa.
- 348.c) Egiturak definitzea eta finkatzea, berdintasun politikak ezartzearen udal egituretan.
- 348.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

349.- BILBOKO UDALAK ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EGINDAKO V. PLANAK HONAKO PROGRAMA HAUEK EZARTZEN DITU GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO BILBOKO UDALAREN JARDUERAN ETA HAREKIN LOTURA DUTEN EDO HAIEN MENDEKO DIREN ORGANISMO ETA ENTE PUBLIKOEN JARDUERAN:

- 349.a) Plangintza kontablea eta estatistikoa.
- 349.b) Aurrekontuen planifikazioa eta kudeaketa.
- 349.c) Plangintza fiskala eta kudeaketa ekonomikoa.
- 349.d) Inbertsioa eta errentagarritasun ekonomikoa planifikatzea.

350.- BILBOKO UDALAK ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EGINDAKO V. PLANAREN ARABERA, BILBOKO GIZARTEAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO ESKU HARTZE EREMUEN ARTEAN SARTZEN DIRA HONAKO PROGRAMA HAUEK: (ADIERAZI ZEIN EZ DEN ERANTZUN ZUZENA)

- 350.a) Emakumeen kontrako indarkeria.
- 350.b) Emakumeen ahalduntze soziala, ekonomikoa eta politikoa.
- 350.c) Genero inpaktuaren alde aurreko ebaluazioa.
- 350.d) Erantzunkidetasun soziala.

11. GAIA. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA. MOTAK: KONTRATU PUBLIKOEN ELEMENTUAK ETA SUBJEKTUAK, ETA OBJEKTUA ETA KAUSA. KONTRATAZIOAREN FORMA ETA KONTRATISTAK AUKERATZEKO SISTEMAK. KONTRATUAK FORMALIZATZEA.

(351tik 385era)

351.- 9/2017 LEGEAREN ARABERA (AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKOA), KONTRATU TXIKIEN IRAUPENA EZIN DA IZAN EPE HAU BAINO HANDIAGOA:

- 351.a) Sei hilabete, luzatzeko aukerarekin.
- 351.b) Urtebete, luzatzeko aukerarekin.
- 351.c) Sei hilabete, luzatzeko aukerarik gabe.
- 351.d) Urtebete, luzatzeko aukerarik gabe.

352.- KONTRATAZIO PUBLIKOARI BURUZKO ARAUDI BERRIA NOIZ SARTU ZEN INDARREAN:

- 352.a) 2015ean.
- 352.b) 2016an.
- 352.c) Ez dago indarrean oraindik.
- 352.d) 2018an.

353.- SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN XEDEAK:

- 353.a) Zehaztua izan beharko du.
- 353.b) Zehaztugabea izan beharko du.
- 353.c) Inespezifikoa izan beharko du.
- 353.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

354.- MARKATU ERANTZUN ZUZENA:

354.a) Kontratu bat zatikatu daiteke haren zenbatekoa murrizteko.

354.b) Kontratu bat zatikatu daiteke publizitate-betebeharrak saihesteko.

354.c) Kontratu bat ez da zatikatu ahal izango esleipen prozedurari dagozkion betebeharrak saihesteko.

354.d) Sektore publikoko kontratuak beti zatikatu behar dira zenbateko edo balio ekonomiko jakin batera iristen baldin badira.

355.- MARKATU ERANTZUN OKERRA:

355.a) Eliza ez da jotzen esleitzeko gaitutzat Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.

355.b) Alderdi politikoak botere esleitzzaileak dira Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.

355.c) Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten mutuak ez dira botere esleitzzaileak.

355.d) Foru aldundiak sektore publikoaren partetzat joko dira beren kontratazio jarduerari dagokionez.

356.- SEKTORE PUBLIKO KONTRATATZAILEAREN ENTITATEAK ZEHAZTUTAKO BETEBEHARRAK BETETZEN DITUEN OBRA BAT EDOZEIN BITARTEKOREN BIDEZ EGITEA XEDE DUTEN KONTRATUAK:

356.a) Obra-kontratuak dira.

356.b) Obra-emakida kontratuak dira.

356.c) Zerbitzu-emakida kontratuak dira.

356.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

357.- HORNIDURA-KONTRATUAK, BALIO ZENBATETSI HAU EDO HANDIAGOA DUTENAK, ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN PEAN EGONGO DIRA:

357.a) 10.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.

357.b) 140.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.

357.c) 100.000 euroko balio zenbatetsia, beste administrazio batzuek adjudikatutako kontratuak badira.

357.d) 50.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.

358.- OBJETUTZAT EGITEKO PRESTAZIOAK ETA HORIEN ARTEAN JARDUERAREN BAT GAUZATZEA OBJEKTUTZAT DAUZKATEN KONTRATUAK:

358.a) Kontratu mistoak dira.

358.b) Obra-kontratuak dira.

358.c) Hornidura-kontratuak dira.

358.d) Zerbitzu-kontratuak dira.

359.- FABRIKAZIO-KONTRATUAK:

359.a) Obra-emakida kontratuak dira.

359.b) Hornidura-emakida kontratuak dira.

359.c) Hornidura-kontratuak dira.

359.d) Zerbitzu kontratuak dira.

360.- MARKATU ERANTZUN OKERRA:

360.a) Ezin dute zerbitzu publikoarekin kontraturik egin aldi baterako osatutako enpresari-elkartek.

360.b) Klausula administratibo partikularren pleguak exigitu diezaieke obra-kontratuen esleipendun gertatzen diren iparramerikar enpresei Espainian sukurtsal bat irekitzea, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egotea.

360.c) Sektore publikoarekin kontratuak egiteko, enpresariak egiaztatu beharko dute kaudimen ekonomiko eta finantzarioko gutxieneko baldintzak eta baldintza profesionalak betetzen dituztela.

360.d) Pertsona juridiko diren enpresarien jarduteko gaitasuna eskritura edo eratze dokumentu bidez egiaztatuko da.

361.- ZER DOKUMENTUREN BIDEZ EGIAZTA DAITEKE EUROPAR BATASUNEN KIDE DIREN ESTATUETAKO NAZIOTASUNA DUTEN ENPRESARI EZ ESPAINIARRAREN JARDUTEKO AHALMENA?

361.a) Haren zuzendarien pasaporteen bidez.

361.b) Sortze-agiriaren bidez.

361.c) Ezarrita dagoen Estatuko legeriarerekin bat etorriz, jatorrizko erregistroan izena emanda.

361.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

362.- ZER DOKUMENTUREN BIDEZ EGIAZTA DAITEKE ESTATU BATUETAKO ETA KANADAKO NAZIOTASUNA DUTEN ENPRESARIEN JARDUTEKO AHALMENA?

362.a) Haren zuzendarien pasaporteen bidez.

362.b) Sortze-agiriaren bidez.

362.c) Ezarrita dagoen Estatuko legeriarekin bat etorriz, jatorrizko erregistroan izena emanda.

362.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

363.- MARKATU ERANTZUN ZUZENA:

363.a) Kontratu txikitzat joko dira 15.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.

363.b) Kontratu txikitzat joko dira 50.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.

363.c) Kontratu txikitzat joko dira 40.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.

363.d) Kontratu txikitzat joko dira 60.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, obra-kontratuen kasuan.

364.- MARKATU ERANTZUN ZUZENA:

364.a) Kontratu txikitzat joko dira 15.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, hornidura-kontratuen kasuan.

364.b) Kontratu txikitzat joko dira 50.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, zerbitzu-kontratuen kasuan.

364.c) Kontratu txikitzat joko dira 40.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, hornidura-kontratuen kasuan.

364.d) Kontratu txikitzat joko dira 60.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, zerbitzu-kontratuen kasuan.

365.- KONTRATU TXIKIAK:

365.a) Ezin izango zaizkio inoiz zuzenean esleitu jarduteko ahalmena duen ezein enpresariri.

365.b) Ezin izango zaizkie inoiz zuzenean esleitu enpresari ez nazionalei.

365.c) Ezin izango zaizkie inoiz zuzenean esleitu enpresari espainiarrak ez badira edo Europar Batasuneko naziotasunik ez badute.

365.d) Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

366.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN SINATZEN DITUZTEN KONTRATUAK:

366.a) Eskritura publikoz formalizatu behar dira beti.

366.b) Eskritura publikoz formalizatu behar dira Administrazio publiko kontratatzaileak hala eskatzen baldin badu.

366.c) Lizitazioari zehaztasunez egokitutako dokumentu administratiboan formalizatu behar dira, hitzarmen marko batean edo erosketa-sistema dinamiko baten barruko kontratu espezifikotik oinarritutako kontratuen kasuan izan ezik.

366.d) Hitzekoak izan daitezke.

367.- PROZEDURA IREKIAN PROPOSAMENEN IREKIERA GEHIENEN EPE HONEN BARRUAN EGIN BEHARKO DA:

367.a) Hogei egunekoak.

367.b) Hogeita hamar egunekoak.

367.c) Hirurogei egunekoak.

367.d) Laurogei hamar egunekoak.

368.- XEDETZAT TELEKOMUNIKAZIO SISTEMA ETA EKIPOEN ALOKAIKURUA DUTEN KONTRATUAK JOKO DIRA:

368.a) Obra-kontratutzat.

368.b) Hornidura-kontratutzat.

368.c) Zerbitzu-kontratutzat.

368.d) Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

369.- SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGE BERRIA:

369.a) Gorte Nagusiek onartu zuten.

369.b) Europako Parlamentuak onartu zuen.

369.c) Nazioko gobernuak onartu zuen.

369.d) Europako Batzardeak onartu zuen.

370.- SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEA INDARREAN SARTZEA:

370.a) 2019an izan zen.

370.b) Argitaratu zenetik lau hilabetera izan zen.

370.c) Argitaratu zenetik hamabi hilabetera izan zen.

370.d) Argitaratu zen egunaren biharamunean izan zen.

371.- KONTRATUAREN ESLEIPENDUNA AUKERATZEKO IRIZPIDE BAKARRA PREZIOA DENEAN:

371.a) Esleipena berrogeita bost eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

371.b) Esleipena ehun eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

371.c) Esleipena hamabost eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

371.d) Esleipena hogeita hamar eguneko epean egin beharko da gehienez, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

372.- HORNIDURAKO ETA SEGIDAKO ZERBITZUETAKO KONTRATUEK:

372.a) Gehienez, bost urteko iraupen epea izango dute.

372.b) Gehienez, hamar urteko iraupen epea izango dute.

372.c) Gehienez, sei urteko iraupen epea izango dute.

372.d) Gehienez, hiru urteko iraupen epea izango dute.

373.- OBREN EMAKIDA-KONTRATUAK EZIN IZANGO DIRA IZAN, LUZAPENAK BARNE, EPE HAU BAINO LUZEAGOAK:

373.a) Berrogei urte.

373.b) Hogeita bost urte.

373.c) Bost urte.

373.d) Aukeretako bat ere ez da zuzena.

374.- 9/2017 LEGEAREN ARABERA (SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKOA), ADJUDIKAZIOA EGINGO ZAIO:

374.a) Prezio txikiena duen eskaintzari.

374.b) Kontratua eperik laburrenean egikaritzea proposatzen duen eskaintzari.

374.c) Ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintzari.

374.d) Hobekuntzei dagokienez zenbatekorik handiena duen eskaintzari.

375.- ESLEIPENDUNARI EGOZTEKO MODUKO KAUSENGATIK KONTRATUA ADIERAZITAKO EPEAN FORMALIZATZEN EZ BADA:

375.a) Lizitaziorako oinarritzko aurrekontuaren ehuneko hamarra eskatuko zaio.

375.b) Lizitaziorako oinarritzko aurrekontuaren ehuneko bosta eskatuko zaio.

375.c) Lizitaziorako oinarritzko aurrekontuaren ehuneko hirua eskatuko zaio.

375.d) Lizitaziorako oinarritzko aurrekontuaren ehuneko bata eskatuko zaio.

376.- KONTRATUEN FORMALIZAZIOA DAGOKION KONTRATUAREKIN ARGITARATU BEHARKO DA:

376.a) Kontratua burutu ondoren, hamabost egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.

376.b) Kontratua burutu ondoren, hiru egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.

376.c) Kontratua burutu ondoren, bost egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.

376.d) Kontratua burutu ondoren, zortzi egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.

377.- NOIZ HITZARTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA OBRA-KONTRATUETAN?

377.a) Balio estimatua 2.000.000 euro edo gutxiago denean.

377.b) Balio estimatua 150.000 euro edo gutxiago denean.

377.c) Balio estimatua 6.000.000 euro edo gutxiago denean.

377.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

378.- NOIZ HITZARTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA HORNIDURA-KONTRATUETAN?

378.a) Balio estimatua 2.000.000 euro baino gutxiago denean.

378.b) Balio estimatua 1.000.000 euro baino gutxiago denean.

378.c) Balio estimatua 500.000 euro baino gutxiago denean.

378.d) Balio estimatua 140.000 euro baino gutxiago denean.

379.- ERREGULAZIO HARMONIZATURA LOTUTAKO KONTRATUEI DAGOZKIEN PROZEDURA MURRIZTUETAN, PROPOSAMENEN AURKEZPEN EPE OROKORRA NAHIKOA IZANGO DA PROPOSAMENAK KONTRATUAREN IRISMENAREN ETA KONPLEXUTASUNAREN ARABERA LANTZEKO:

379.a) Edozein kasutan ere ez da izango hogeita bost egun baino gutxiagokoa.

379.b) Edozein kasutan ere ez da izango laurogei egun baino gutxiagokoa.

379.c) Edozein kasutan ere ez da izango laurogeita hamar egun baino gutxiagokoa.

379.d) Edozein kasutan ere ez da izango hogeita hamar egun baino gutxiagokoa.

380.- OBRA ETA ZERBITZU-KONTZESIOETAN, PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPE OROKORRA KASU HONETAN BAINO EZINGO DA LBURTU:

380.a) Aldez aurreko informazioaren iragarkia bidali denean.

380.b) Proposamenak aurkezteko epe orokorra ezinezkoa denean, presako egoera bat izatearren.

380.c) Kontratazio organoak onartzen duenean eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

380.d) Inolaz ere ezingo da laburtu epe hori.

381.- ZER KASUTAN APLIKATUKO DA LIZITAZIO PROZEDURA NEGOZIAZIOAREKIN?

381.a) Eskaintza egoki bakar bat ere aurkeztu ez den obra-kontratueta.

381.b) Enpresari jakin bati baino ezin enkargatu zaizkion obra-kontratueta.

381.c) Hornidura-kontratueta merkatu antolatuetan egindako erosketen kasuan.

381.d) Gizarte zerbitzu oso pertsonalen kontratueta, horien ezaugarrietako bat pertsona gizarte arretaren inguruan sustraituta egotea denean, kontratuaren xedea baldin bada lehendik ere zerbitzu horren onuradun ziren pertsonen arretari jarraipena ematea.

382.- ZEIN DA BERRIKUNTZARAKO ELKARTEETAN PARTE HARTZEKO ESKARIAK JASOTZEKO GUTXIENENKO EPEA?

382.a) Laurogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio iragarkiaren bidalketaren datatik aurrera, kontratua erregulazio harmonizatura lotuta dagoenean.

382.b) Hogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio iragarkiaren bidalketaren datatik aurrera, kontratua erregulazio harmonizatura lotuta dagoenean.

382.c) Hamabost egunekoa izango da, lizitazio iragarkiaren bidalketaren datatik aurrera, kontratua erregulazio harmonizatura lotuta dagoenean.

382.d) Hamar egunekoa izango da, lizitazio iragarkiaren bidalketaren datatik aurrera, kontratua erregulazio harmonizatura lotuta dagoenean.

383.- 9/2017 LEGEAREN (SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKOA) 116. ARTIKULUAREN ARABERA, KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAN BEHAR BEZALA JUSTIFIKATUKO DA:

383.a) Lizitazio-prozeduraren hautaketa.

383.b) Kontratuaren balio estimatua.

383.c) Zerbitzu-kontratueta, baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena.

383.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

384.- MARKATU ERANTZUN OKERRA:

384.a) Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten mutuak sektore publikoko kontratuen legearen esparru subjektibotik kanpo geratzen dira.

384.b) Nortasun juridikoa duten funtsak sektore publikoko kontratuen Legearen esparru subjektibotik kanpo geratzen dira.

384.c) Ehuneko berrogeita bederatzian izaera iraunkorrez sektore publikokoak diren subjektuek emandako edo utzitako ondasunek edo eskubideek osatutako ondarea daukaten fundazioak sektore publikoko kontratu-legearen esparru subjektibotik kanpo geratzen dira.

384.d) Parrokiak ez dira sektore publikoko kontratuen legearen esparru subjektiboko parte.

385.- EZ DIRA BOTERE ESLEITZAILETZAT JOKO SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN XEDEETARAKO:

385.a) Administrazio Publikoak.

385.b) Fundazio publikoak.

385.c) Alderdi politikoak.

385.d) Eliza.

12. GAIA: GIZA BALIABIDEAK ERREGULATZEKO TRESNAK: ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA, ENPLEGU PLANAK ETA BESTE ARRAZIONALIZAZIO SISTEMA BATZUK.

(386tik 420ra)

386.- BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRI BATEAN, ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA HONEK ONETSI BEHAR DU:

386.a) Udalbatzak.

386.b) Langile Batzordeak.

386.c) Alkateak.

386.d) Tokiko Gobernu Batzarrak.

387.- BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIEN ESPARRU ESPEZIFIKOTIK APARTEKO UDALERRI BATEAN, ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ZEINEK ONARTU BEHAR DU:

387.a) Udalbatzak.

387.b) Langile Batzordeak.

387.c) Alkateak.

387.d) Tokiko Gobernu Batzarrak.

388.- HONAKO BAI EZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA EGIA?

388.a) Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.

388.b) Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.

388.c) Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat, bere langileen ausazko birbanaketaren bidez.

388.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

389.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN BEREN GIZA BALIABIDEEN ORDENAZIORAKO PLANAK ONARTU AHAL IZANGO DITUZTE, HONAKO NEURRI HAUEK DAUZKATELA, BESTEAK BESTE:

389.a) Langileen baliabideen eta beharren azterketa, hala langile kopuruaren ikuspegitik nola horien soslai profesionalei edo prestakuntza maileri dagokienez.

389.b) Lan-antolaketa sistema eta lanpostuen egituren aldaketei buruzko aurreikuspenak.

389.c) Mugikortasuneko neurriak, horien artean izan daitekeelarik esparru jakin batetik kanpoko langileen sarbidea etetea edo zehaztutako esparruetara mugatutako lanpostuen hornikuntzarako lehiaketetarako deialdiak egitea.

389.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

390.- LANGILEEN BARNE PROMOZIOKO ETA PRESTAKUNTZAKO NEURRIAK ETA DERRIGORREZKO MUGIKORTASUNEN GIZA BALIABIDEEN ORDENAZIO PLAN BATEAN HITZAR DAITEZKE?

390.a) Ez.

390.b) Bai.

390.c) Bai, derrigorrezko mugikortasuna izan ezik.

390.d) Bai, prestakuntza profesionala izan ezik.

391.- GIZA BALIABIDEEN BEHARRIZANAK DAUDENEAN, ETA, HORRETARAKO, AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA EGONDA, LANGILE BERRIAK SARTZEA BEHARREZKOA DENEAN HAU EGIN BEHAR DA:

391.a) Enplegu Publikorako Eskaintza edo langile-beharrizanak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili.

391.b) Enplegu Publikorako Eskaintza.

391.c) Lanpostuen zerrenda.

391.d) Iragarkia EBEO Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean.

**392.- ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN ONESPENAK
KONPROMETITUTAKO LANPOSTUEI DAGOZKIEN AUKERAKETA
PROZESUETARAKO DEIALDIAK EGITEKO BETEBEHARRA EKARRIKO DU...**

392.a) ... eta are % 5eko gehigarri bat ere.

392.b) ... eta are % 10eko gehigarri bat ere.

392.c) ... eta are % 3ko gehigarri bat ere.

392.d) ... eta are % 7ko gehigarri bat ere.

**393.- ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN BETEARAZPENA EPE
HONETAN GAUZATU BEHARKO DA:**

393.a) 2 urte gehienez.

393.b) Urtebete gehienez.

393.c) 3 urte gehienez.

393.d) 30 hilabete gehienez.

394.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA ONARTUKO DA:

394.a) Urtero.

394.b) Urtero gutxienez eta bi urtetik behin gehienez.

394.c) Bi urtetik behin.

394.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**395.- ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAK EDO HAIEN ANTZEKO BESTE
TRESNA BATEK GIZA BALIABIDEEN PLANIFIKAZIOTIK ERATORRITAKO
NEURRIAK EDUKI AHAL IZANGO DITU.**

395.a) Gezurra.

395.b) Egia, neurri horien artean ez baldin badaude lan-antolaketako sistemei eta lanpostuen egituren aldaketei buruzko aurreikuspenak.

395.c) Egia.

395.d) Gezurra, giza baliabideen planifikazioa Enplegu Publikorako Eskaintzak 1.000 lanpostu edo gehiagoko deialdia aurreikusten duen urte batean onartzen baldin bada izan ezik.

396.- APARTEKO MOTIBOENGATIK BALIABIDEEN ANTOLAMENDU PLANEK BIZILEKUAREN ALDAKETA ERAGITEN DUTENEAN...

- 396.a) ...ez da izango inolako kalte-ordainik eragindako funtzionarioentzat.
- 396.b) ...lehentasuna emango zaio lekualdaketen borondatezkotasunari.
- 396.c) ...ez zaio lehentasunik emango lekualdaketen borondatezkotasunari.
- 396.d) Giza baliabideen antolamendu Plan batek ezin dezake lekualdaketarik eragin.

397.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ENPLEGU PLANAK EGIN AHAL IZANGO DITUZTE, HONAKO HAUEI ERREFERENTZIA EGINEZ:

- 397.a) Funtzionarioak soilik.
- 397.b) Lan-kontratuko langileak soilik.
- 397.c) Aldi baterako langileak eta funtzionarioak.
- 397.d) Funtzionarioak eta langileak.

398.- ENPLEGU PLANEK HONAKO AURREIKUSPENAK ETA NEURRIAK EDUKI DITZAKETE:

- 398.a) Zehazten diren arloetako langileetara mugatutako lanpostuen hornidurarako lehiaketan baimena.
- 398.b) Barne promozioko neurri espezifikoak.
- 398.c) Denbora partzialeko zerbitzuak ematea.
- 398.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

399.- ENPLEGU PLAN BATEK ERAGINDAKO LANGILEAK BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN BIRKOKATU AHAL IZANGO DIRA.

- 399.a) Egia.
- 399.b) Gezurra.
- 399.c) Egia, beste Administrazio Publikoak munizipalak baldin badira.
- 399.d) Egia, beste Administrazio Publikoak Diputazio Probintzialak baldin badira.

400.- LANGILE BERRIEN SARRERAKO DEIALDIETAN HUTSIK GERATUTAKO PLAZEK:

400.a) Funtzionario izaera badutenen arteko aldez aurreko lehiaketa egin beharra eskatuko dute.

400.b) Ez dute funtzionario izaera badutenen aldez aurreko lehiaketarik beharko.

400.c) Funtzionario izaera bi urte baino gutxiagoko antzintasunarekin dutenen arteko aldez aurreko lehiaketa egin beharra eskatuko dute.

400.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

401.- ENPLEGU PLAN BATEN ONDORIOZKO LANGILEEN BIRKOKAPENA HONAKO HAUEKIN ERLAZIONATUTAKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK APLIKATUZ EGINGO DA:

401.a) Esperientzia.

401.b) Prestakuntza.

401.c) Gaitasunak.

401.d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

402.- DIPUTAZIO PROBINTZIAL BATEAN ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTU BEHAR DU:

402.a) Osoko batzarrak.

402.b) Langile Batzordeak.

402.c) Presidenteak.

402.d) Gobernu Batzarrak.

403.- TOKI ADMINISTRAZIOAREN ESPARRUAN:

403.a) Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.

403.b) Langile guztien aukeraketa enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.

403.c) Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.

403.d) Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.

404.- TOKI ARAUBIDEAREN ARLOKO INDARREAN DAUDEN XEDAPEN LEGALEN TESTU BATEGINA ONESTEN DUEN APIRILAREN 18KO 781/1986 ERREGE DEKRETU LEGEGILEAREN ARABERA, EZIN IZANGO DA IZENDATU BITARTEKO LANGILERIK ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAN SARTU EZ DIREN LANPOSTUETARAKO, SALBU:

404.a) Ezin da egin ezein kasutan.

404.b) Benetan hura onetsi ondoren hutsik geratutako lanpostuak direnean.

404.c) Lan-kontratuko langileen kasuan.

404.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

405.- EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN ARABERA, ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK ARGITARATU BEHARKO DIRA:

405.a) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian soilik.

405.b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, edo dagokion Lurralde Historikokoan Foru Diputazioei edo Udalbatzei erreferentzia egiten badie, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

405.c) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren kasuan, eta dagokion Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean, foru- eta toki-administrazioen kasuan.

405.d) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, edo dagokion Lurralde Historikokoan Foru Diputazioei edo Udalbatzei erreferentzia egiten badie. Halaber, dagokion foru-edo toki- administrazioaren webgunean argitaratuko da.

406.- LANGILEEN ERREGISTROARI DAGOKIONEZ, TOKI ERAKUNDEEK BEHAR ADINA BALIABIDE FINANTZARIO EDO TEKNIKO EZ DUTENEAN,

406.a) Autonomia Erkidegoek eta haiek soilik lagunduko diete.

406.b) Estatuko Administrazio Orokorrak eta hark soilik lagunduko die.

406.c) Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek lagunduko diete, 5.000 biztanle baino gutxiago edo 2.999.999 euro baino gutxiagoko aurrekontua baldin badute.

406.d) Foru-administrazioek beharrezko laguntza teknikoa eskainiko diete toki-administrazioei, legeak langileen erregistroaren arloan eskatzen dena beteko dela bermatzeko.

407.- TOKI ADMINISTRAZIOAN DAUDEN LANPOSTUEN ZERRENDAN DERRIGORREZKOAK DIRA, BESTEAK BESTE, DATU HAUEK:

407.a) Postuen izena, atxikita dauden departamentu edo zentro organikoa, hornidura sistema, postuei lotutako ordainsari osagarriak, postuen hizkuntza-eskakizuna, bai eta, hala egokitzen denean, haien nahitaezkotasunaren data ere.

407.b) Postuen izena, mota eta hornidura sistema, dagozkien ordainsari osagarriak eta oinarrizkoak, eta hori betetzeko eskatzen diren baldintzak.

407.c) Postuen izena, mota eta hornidura sistema, dagozkien ordainsari osagarriak, hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta lokalizazioa.

407.d) Postuen izena, mota eta hornidura sistema, eta hori betetzeko eskatzen diren baldintzak.

519.a) Kontsulta publikoa bideratu behar du, kasu guztietan.

519.b) Kontsulta publikoa bideratu dezake, egoki irizten baldin badio.

519.c) Kontsulta publikoa bideratu behar du, baina izapide hori baztertu dezake kasu batzuetan.

519.d) Kontsulta publikoa bideratu behar du soilik hala eskatzen baldin badu, gutxienez, sufragio aktiborako eskubidea duten herritarren % 10ek.

520.- TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN 106. ARTIKULUAREN ARABERA, TOKI ERAKUNDEEK ERREGELAMENDUAK EGITEKO DUTEN AHALA HONAKO HAUEN BIDEZ BETEKO DA:

520.a) Beren tributuak arautzeko ordenantza fiskalak.

520.b) Kudeaketako, zerga-bilketako eta likidazioko ordenantza orokorrak.

520.c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

520.d) Aurreko erantzunetako bakar bat ere ez da zuzena.

521.- TOKIKO ZERGAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZA FISKALAK HASIKO DIRA APLIKATZEN:

521.a) Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen direnetik 15 egun naturaletara.

521.b) Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen direnetik 15 egun baliodunetara.

521.c) Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen direnean.

521.d) Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen diren unean, Ordenantza fiskaletan beretan beste data bat adierazten ez baldin bada.

522.- BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN ORDENANTZA ETA ARAUTEGI PROIEKTUEN ONESPENA, ORGANIKOAK BARNE, UDALBATZAREN ETA HAREN BATZORDEEN ARAU ERREGULATZAILEAK SALBU, HONI DAGOZKIO:

522.a) Alkateari.

522.b) Tokiko Gobernu Batzarrari.

522.c) Udalbatzari.

522.d) Aurrekoetako bakar bati ere ez.

523.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ZEIN ALDIZKAKOTASUNEZ EGIN BEHAR DUTE PUBLIKO UDALERRIEK HURRENGO URTEAN ONARTZEKO JASOKO DIREN EKIMEN ARAUTZAILEAK DAUZKAN PLAN BAT?

523.a) Hiru hilabetetik behin.

523.b) Sei hilabetetik behin.

523.c) Urtero.

523.d) Udalerriak ez daude Plan Arautzaileak egitera behartuta.

524.- PROBINTZIETAN, ORDENANTZAK ONESTEKO ARDURA DAUKA:

524.a) Diputazioaren osoko bilkurak.

524.b) Diputazioko Gobernu Batzarrak.

524.c) Diputazioko Presidenteak.

524.d) Diputazioko ikerketa, argibide edo kontsultako organoek.

525.- TOKI ERAKUNDEEN BEREZKO ZERGAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZA FISKALEK EDUKI BEHAR DITUZTEN KONTZEPTUEN ARTEAN HONAKO HAUEK DAUDE:

525.a) Zergapeko egitatearen zehaztea, salbuespenak, murrizketak eta hobariak, zerga-oinarria eta oinarri likidagarria, karga-tasa edo zerga kuota, zergaldia eta sortzapena.

525.b) Aitorpen eta sarrera erregimenak.

525.c) Bere onarpenaren eta aplikazioaren hasieraren datak.

525.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

16. GAIA: GORTE NAGUSIAK. HERRIAREN DEFENDATZAILEA. ARARTEKOA.

(526tik 560ra)

526.- ARARTEKOA INSTITUZIO PUBLIKOA DA, ETA HONEK XEDATZEN DU ZUZENEAN:

- 526.a) Autonomia Estatutuak.
- 526.b) Espainiako Konstituzioak.
- 526.c) Herriaren Defendatzailearen Lege Organikoak.
- 526.d) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak.

527.- ARARTEKOA IZENDATUKO DU:

- 527.a) Legebiltzarrak.
- 527.b) Gobernu Kontseiluak.
- 527.c) Lehendakariak.
- 527.d) Hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien baterako akordioak.

528.- ARARTEKOAREN IZENDAPENAREN IRAUPENA HONAKO HAU DA:

- 528.a) Bost urte ez luzagarri.
- 528.b) Zazpi urte luzagarri.
- 528.c) Bost urte, eta behin soilik luza daiteke, halako beste aldi baterako.
- 528.d) Lau urte, eta behin soilik luza daiteke, halako beste aldi baterako.

529.- ARARTEKO IZATEA BATERAEZINA DA HONAKO HONEKIN:

- 529.a) Herri-aukeraketaren ondoriozko ordezkartzako agintaldi oro.
- 529.b) Izendapen libreko edozein kargu politiko.
- 529.c) Alderdi politiko, sindikatu edo ugazaben elkarte bateko afiliazioa.
- 529.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

530.- EZAGUT DEZAKE ARARTEKOAK SEKRETUTZAT JOTAKO DOKUMENTU BAT?

530.a) Ez, inoiz ez.

530.b) Bai, dokumentu horretarako sarbidea ukatzen duen Gobernuaren berariazko hitzarmena dagoenean salbu.

530.c) Bai, Legebiltzarraren aldez aurretiko baimenarekin.

530.d) Bai, kasu guztietan, Prozedura Kriminalaren Legearen 282 bis artikuluan jasotako jarduneko autoritateei buruzko dokumentuak izan ezik.

531.- HONAKO HAUETAKO ZEIN DA ERAGOZPENA HERRITAR BATEK ARARTEKOARENGANA JOTZERIK EZ IZATEKO?

531.a) Naziotasuna.

531.b) Adingabetasuna.

531.c) Espetxeratuta egotea.

531.d) Aurrekoetako bakar bat ere ez.

532.- ZEIN DA GEHIENENKO EPEA ARARTEKOAN KEXA BAT JARTZEKO, KALTETUAK KEXA HORI ERAGITEKO ARRAZOI IZAN DAITEZKEEN JOKABIDEEN EDO GERTAKARIEN BERRI IZAN ZUENETIK?

532.a) 4 urte.

532.b) Urtebete.

532.c) 6 hilabete.

532.d) Ez dago eperik.

533.- HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN IZENDAPENA HONAKO ALDI HONETARAKO EGINGO DA:

533.a) 7 urte.

533.b) 10 urte.

533.c) 5 urte.

533.d) 3 urte.

534.- HERRIAREN DEFENDATZAILEA KONSTITUZIOAREN ARABERA HONAKO HONEN/HAUEN GOI KARGUDUN GISA KONFIGURATZEN DA:

534.a) Herriarena.

534.b) Gorte Nagusiena.

534.c) Erregearena.

534.d) Senatuarena.

535.- NOREN AGINDUAK JASOTZEN DITU HERRIAREN DEFENDATZAILEAK?

535.a) Gorte Nagusienak.

535.b) Konstituzio Auzitegiarenak.

535.c) Ez dago ezein aginduzko mandaturen mende.

535.d) Ministroen Kontseiluarenak.

536.- GANBERAK SAIO HAUETAN BILTZEN DIRA:

536.a) Ohikoak eta apartekoak.

536.b) Soilak, bateratuak eta konposatuak.

536.c) Ohikoak, apartekoak eta bateratuak.

536.d) Ohikoak, apartekoak eta urgentziazkoak.

537.- ORO HAR, ERABAKIAK HARTZEKO, GANBERAK ARAUZ BILDU BEHAR DIRA, ETA KIDE GEHIENEK HAN IZAN BEHAR DUTE. ERABAKI HORIEK BALIOZKOAK IZAN DAITEZEN, HAUEK ONETSI BEHARKO DUTE:

537.a) Bertaratutako kideen gehiengoak.

537.b) Kideen gehiengo absolutuak.

537.c) 3/5eko gehiengoak.

537.d) 2/3ko gehiengoak.

538.- ZEIN EPETAN EGIN BEHARKO DA KONGRESU HAUTATUA BILTZEKO DEIALDIA, HAUTESKUNDEAK EGIN ETA GERO?

- 538.a) Hurrengo 30 egunetan.
- 538.b) Hurrengo 25 egunetan.
- 538.c) Hurrengo 15 egunetan.
- 538.d) Hurrengo 30 eta 45 egunen artean.

539.- DIPUTATUEN ETA SENATARIEN AURKAKO AUZIETAN, HAU IZANGO DA ESKUDUN:

- 539.a) Auzitegi Gorena deritzon aretoa.
- 539.b) Konstituzio Auzitegia.
- 539.c) Auzitegi Nazionaleko hirugarren aretoa.
- 539.d) Auzitegi Goreneko Zigor arloko aretoa.

540.- DIPUTAZIO IRAUNKORREK HAU IZANGO DUTE BURU:

- 540.a) Adin handieneko Diputatua.
- 540.b) Adin txikieneko Diputatua.
- 540.c) Dagokion Ganberako Presidentea.
- 540.d) Kide gehieneko taldearen bozeramailea.

541.- ZENBAT SENATARI DAGOZKIO PROBINTZIA BAKOITZARI?

- 541.a) Hiru.
- 541.b) Bat.
- 541.c) Lau.
- 541.d) Bi.

542.- KONGRESUKO ETA SENATUKO SAIO BATERATUEK BURU IZANGO DUTE:

542.a) Erregea.

542.b) Kongresuko Presidentea.

542.c) Senatuko Letratu Nagusiak.

542.d) Adin handieneko Senataria.

543.- PROBINTZIETAKO SENATARIAK AUKERATUKO DIRA:

543.a) Sufragio unibertsal, aske, berdin, zuzeneko eta sekretua erabiliz.

543.b) Sufragio unibertsal, aske, berdin, zeharkako eta sekretua erabiliz.

543.c) Boto bakar eta besterenezinez.

543.d) Zerrenda itxien bidez.

544.- NORK OSATZEN DU GORTE NAGUSIETAKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN AUZITEGIA?

544.a) Kongresuko Presidenteak, bi Senatarik eta bi Diputatuk.

544.b) Kongresuko Presidenteak, bi Senatarik, bi Diputatuk eta Gorte Nagusietako Kontuhartzaileak.

544.c) Senatuko eta Kongresuko Presidenteek eta Gorte Nagusietako Kontuhartzaileak.

544.d) Diputatu batek, Senatari batek eta Gorte Nagusietako Kontuhartzaileak.

545.- MARKATU ERANTZUN ZUZENA.

545.a) Kongresua lurralde ordezkartzako ganbera da.

545.b) Ceuta eta Melillako biztanleek Senatari bana aurkatzen dute.

545.c) Hautatzaile eta hautagai dira beren eskubide politikoak bete-betean erabilgarri dauzkaten espainiar guztiak.

545.d) Espainiako Konstituzioak xedatzen du Kongresuak gutxienez 350 Diputatu izango dituela eta gehienez 450.

546.- KONGRESUAN DIPUTATUEN GUTXIENEN KOPURUA DA:

546.a) 350.

546.b) 300.

546.c) 315.

546.d) Ez dago gutxienekorik.

547.- EZ DA BATERAEZINA DIPUTATU HAUTATUA IZATEKO:

547.a) Jardunean dagoen militarra izatea.

547.b) Hauteskunde Batzorde bateko kide izatea.

547.c) Epaile izatea.

547.d) Ministro izatea.

548.- IZENDAPEN AUTONOMIKOKO ZENBAT SENATARI AUKERATZEN DITU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK?

548.a) Bat.

548.b) Bi.

548.c) Hiru.

548.d) Lau.

549.- DIPUTATUEN KONGRESUKO DIPUTAZIO IRAUNKORREKO PRESIDENTEA DA:

549.a) Gehiengoa duen alderdikoa.

549.b) Jarleku gehien duen alderdiko bozeramailea.

549.c) Ganberako Presidentea.

549.d) Talde Parlamentarioen Bozeramaileek aukeratutakoa.

550.- EZIN DU GORTE NAGUSIETAN APARTEKO SAIO BAT EGITEA ESKATU:

550.a) Haien kideen gehiengo absolutuak.

550.b) Haien Diputazio iraunkorrak.

550.c) Ganbera bakoitzeko Mahaiak.

550.d) Gobernuak.

551.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, GANBERAKO SAIOEN LEHEN ALDIA NOIZ AMAITZEN DA:

551.a) Haien agintaldiaren amaieran.

551.b) Urtarrilean.

551.c) Abenduan.

551.d) Ekainean.

552.- EZIN DA BATZORDE LEGEGILE IRAUNKOR BATEN ESKU UTZI HONAKO HAU ONARTZEKO AUKERA:

552.a) Zerga-lege bat.

552.b) Funtzionario publikoen lege bat.

552.c) Lege organiko bat.

552.d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

553.- HERRIAREN DEFENDATZAILEAK NORI EMATEN DIO BERE ESKUDANTZIEN BERRI:

553.a) Auzitegi Konstituzionalari.

553.b) Gorte Nagusiei.

553.c) Gobernuari.

553.d) Botere Judizialari.

554.- HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN AUKERAKETA HONAKO HONEN/HAUEN ESKUDUNTZA DA:

- 554.a) Kongresuko eta Senatuko Osoko Bilkurak.
- 554.b) Kongresuan horretarako sortutako Batzordea.
- 554.c) Gobernua.
- 554.d) Erregea.

555.- BORTXAEZINTASUNA, HERRIAREN DEFENDATZAILEARI DAGOKIONEZ:

- 555.a) Ez dauka.
- 555.b) Haren edozein jarduera pertsonaletan zein karguari dagokion edozein jardueratan dauka.
- 555.c) Horixe izateagatik dituen eskuduntzak praktikan jarriz egiten dituen ekintzetan dauka.
- 555.d) Gorte Nagusien aurrean bere lanaren berri eman beharretik libre egotea da.

556.- HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN AURREAN KEXA ANONIMOA AURKEZTEN BALDIN BADA:

- 556.a) Izapidetu egin beharko du.
- 556.b) Kontua interes orokorrekoa baldin bada baino ez du izapidetuko.
- 556.c) Ez dago izapidetzera behartua.
- 556.d) Haren esku uzten da izapidetu edo ez erabakitzea.

557.- HERRIAREN DEFENDATZAILEARI KEXAK AURKEZTU BEHAR ZAIZKIO:

- 557.a) Abokatuarekin eta prokuradorearekin.
- 557.b) Estatuarentzako ordainketa-paperean.
- 557.c) Tasak ordaindu izanaren egiaztagiriarekin.
- 557.d) Paper arruntean.

558.- FUNTZIONARIO PUBLIKOEN HERRITARRAREN DEFENDATZAILEARI EMANDAKO LAGUNTZA/K:

558.a) Gainean duten aginte administratiboak erabakitzen duenaren mende dago, kasu bakoitzean.

558.b) Judizialki eskatzen denean baino ez da emango.

558.c) Lehentasunezkoa eta urgentea izan behar du.

558.d) Aukerakoa da haientzat.

559.- ZENBAT DIPUTATUK ORDEZKATZEN DITUZTE CEUTA ETA MELILLA?

559.a) Diputatu banak bakoitza.

559.b) Bina diputatuk bakoitza.

559.c) Ceuta batek, eta Melilla bik.

559.d) Diputatu komun batek biak.

560.- MARKATU ERANTZUN OKERRA SENATUARI DAGOKIONEZ.

560.a) Ceutak eta Melillak bina Senatari aukeratzen dituzte.

560.b) Probintzia bakoitzean lau Senatari hautatuko dituzte haietako bakoitzeko boto emaileek sufragio unibertsal, libre, berdin, zuzen eta sekretu bidez.

560.c) Senatua da lurralde ordezkarietako Ganbera.

560.d) Autonomia Erkidegoek izendatuko dituzte, horrez gain, Senatari bat eta beste bat bakoitzak bere lurraldeko milioi erdi biztanleko.

17. GAIA. ESTATUAREN ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEKO ESKUMEN BANAKETA. ESKUMEN BANAKETA KONSTITUZIOAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAN.

(561tik 595era)

561.- KONSTITUZIOKO ZER TITULU DAGO ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAKETARI ESKAINIA:

561.a) VI. Titulua.

561.b) VII. Titulua.

561.c) VIII. Titulua.

561.d) IX. Titulua.

562.- BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

562.a) 15 autonomia erkidego daude.

562.b) Autonomia erkidegoek Lege markoak onets ditzakete.

562.c) Autonomia erkidegoek transferentzia legeak onets ditzakete.

562.d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

563.- ESTATUAREN ESKUMEN ESKLUSIBO DIREN GAIK ZERRENDATUTA DAUDE KONSTITUZIOAN:

563.a) 148.1 artikuluan.

563.b) 149.1 artikuluan.

563.c) 150. artikuluan.

563.d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

564.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA, NOLA ANTOLATZEN DA ESTATUKO LURRALDEA?

564.a) Udalerritan.

564.b) Probintzian.

564.c) Autonomia Erkidegotan.

564.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

565.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETAKO ZEIN DA ESKLUSIBOKI ESTATUARENA?

- 565.a) Defentsa eta Indar Armatuak.
- 565.b) Nazioarteko Harremanak.
- 565.c) Justizia Administrazioa.
- 565.d) Aipatutako erantzun guztiak zuzenak dira.

566.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, HARK ESTATUARI ESPRESUKI EGOZTEN EZ DIZKION GAIK HONAKO HAUEI EGOKITU AHAL ZAIZKIE:

- 566.a) Udalerriei.
- 566.b) Autonomia Erkidegoei.
- 566.c) Hiri autonomoei.
- 566.d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

567.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESTATUAK ESKUDUNTZA ESKLUSIBO DU HONAKO GAI HAUETAN, BATEAN IZAN EZIK:

- 567.a) Lurraldearen antolaketa, urbanismoa eta ingurumena.
- 567.b) Aduanen eta muga-zergen araubidea.
- 567.c) Kanpo merkataritza.
- 567.d) Moneta sistema.

568.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESTATUAK ESKUDUNTZA ESKLUSIBO DU:

- 568.a) Gizarte laguntzan.
- 568.b) Jabetza intelektualari eta industrialari buruzko legegintzan.
- 568.c) Ingurumenaren babesaren kudeaketan.
- 568.d) Barneko ferietan.

569.- KONSTITUZIOAREN 148. ARTIKULUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOEK HAINBAT GAITAKO ESKUMENAK HAR DITZAKETE. ADIERAZI EA OBRA PUBLIKOETAKO ESKUMENAK HAR DITZAKETEN ETA, ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, ZER BALDINTZATAN:

569.a) Ez, interes orokorreko obra publikoak direnean.

569.b) Bai, eskumen hori hartzeko baliatu duen Lege organikoak ezarritako baldintzetan.

569.c) Bai, autonomia erkidegoaren intereseko obra publikoak direnean eta haren lurraldearen barruan eginak.

569.d) Bai, kasu guztietan, estatuaren titulartasuna duten kasuetan izan ezik.

570.- KONSTITUZIOAREN 149.3 ARTIKULUAREN ARABERA, ADIERAZI ZER GERTATUKO DEN AUTONOMIA ERKIDEGOEK BEREANATU EZ DITUZTEN GAIEKIN.

570.a) Bost urteko epean bereganatu ahal izango direla autonomia erkidegoa eratzen denetik, Senatuaren alde aurreko baimenarekin.

570.b) Eskumena Estatuarena izango dela, eta haren arauak nagusituko direla, gatazkarik izatekotan, autonomia erkidegoen arauen aurrean, haiek eskumen eskusiboa ez duten guztian.

570.c) Estatuari egokituko zaizkiela osagarri gisa.

570.d) Edozein unetan bereganatu ahal izango direla Estatuaren oinarritzko arautegiarekiko gatazkarik izan ezean.

571.- KONSTITUZIOAREN LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIAN JASOTAKO FORU LURRANDEEN ESKUBIDE HISTORIKOEN EGUNERAKETA, HURRENGO MODUAN BURUTU BEHAR DA:

571.a) Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuen markoan.

571.b) Autonomia Estatutuen eta Lurralde Historikoen Legearen markoan.

571.c) Konstituzioaren eta Kontzertu Ekonomikoaren Legearen markoan.

571.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

572.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, ZER TITULUTAN ARAUTZEN DIRA EUSKADIKO ESKUMENAK?

572.a) Atariko Titulua.

572.b) I. Titulua.

572.c) II. Titulua.

572.d) III. Titulua.

573.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUKO 10.2 ARTIKULUAREN ARABERA, AUTOGOBERNUAREN ERAKUNDEEN ANTOLAKETA, ARAUBIDEA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ESKUMENA:

573.a) Estatuarekin partekatua da.

573.b) Esklusibo ez partekatua da.

573.c) Lurralde historikoekin partekatua da.

573.d) Lege garapeneko eta betearazpeneko da.

574.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN 10. ARTIKULUAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETAKO ZEIN DA ESTATUAREKIN PARTEKATUA?

574.a) Toki Araubidea.

574.b) Zuzenbide Zibila.

574.c) Mendiak.

574.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

575.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUKO 10. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA EDO DIRA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBO ETA ESTATUAREKIN EZ PARTEKATUAK?

575.a) Titulartzat Autonomia Erkidegoa duten jabari publikoko eta ondarezko ondasunak.

575.b) Ingurumena eta ekologia.

575.c) Euskadiko arrantza sektorearen antolamendua.

575.d) Kredituen, bankuen eta aseguruaren orientabidea.

576.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, ESKUMEN ESKLUSIBOAK HEMEN DAUDE ARAUTUTA:

576.a) 9. artikuluan.

576.b) 10. artikuluan.

576.c) 11. artikuluan.

576.d) 12. artikuluan.

577.- KONSTITUZIOAREN DOKTRINAREN ARABERA, BAI EZTAPEN HAUETATIK ZEINEK DEFINITZEN DITU ONDOEN ESKUMEN PARTEKATUAK?

577.a) Estatuari gai bati buruzko oinarritzko legeria dagokio eta autonomia erkidegoari gainerako eskumenak, hau da, garapeneko eta betearazpeneko legeria.

577.b) Estatuari Konstituzioaren 149. artikuluan zerrendatutako eskuduntzak dagozkio eta han egozten zaizkion gaiak xedapen printzipiotik aparte gelditzen dira eta ezin dira bereganatu Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan.

577.c) Estatuak eta autonomia erkidegoek ahalmen legegile eta betearazleak betetzen dituzten gai baten gaineko eskumenak, hainbat eskuduntza tituluren arabera; horretarako, beharrezkoa da administrazio publikoen jarduerak koordinatzea.

577.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

578.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, KONSTITUZIOAREN TESTUAN, LEGE HARMONIZATZAILEAK HONAKO ARTIKULU HONETAN DAUDE ARAUTUTA:

578.a) 150.1 artikulua.

578.b) 150.2 artikulua.

578.c) 150.3 artikulua.

578.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

579.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, ESTATUTUAN BEREGANATUTAKO ESKUMENETATIK ZEIN EZ DAGO 10. ARTIKULUAN ARAUTUTA?

579.a) Justizia Administrazioa.

579.b) Irakaskuntza.

579.c) Polizia Autonomoa.

579.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

580.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, LEGE BIDEZ GARATU ETA BETEARAZTEKO ESKUMENAK NON ZERRENDATUTA DAUDE:

580.a) 9. artikuluan.

580.b) 10. artikuluan.

580.c) 11. artikuluan.

580.d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

581.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, BETEARAZPEN ESKUMENAK NON ZERRENDATUTA DAUDE:

581.a) 10. artikuluan.

581.b) 11. artikuluan.

581.c) 12. artikuluan.

581.d) 13. artikuluan.

582.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA ETA HAIEN EZAGUTZARAKO BITARTEKOAK ARAUTZEKO HIZKUNTZA ESKUMENAK HEMEN ZERRENDATUTA DAUDE:

582.a) Atariko Titulua, 9. artikulua.

582.b) I. Titulua, 6. artikulua.

582.c) Atariko Titulua, 6. artikulua.

582.d) I. Titulua, 9. artikulua.

583.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, GOBERNUAREN ORDEZKARIA HEMEN ARAUTZEN DA:

583.a) II. Titulua, 23. artikulua.

583.b) I. Titulua, 23. artikulua.

583.c) I. Titulua, 154. artikulua.

583.d) II. Titulua, 154. artikulua.

584.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, 148. ETA 149. ARTIKULUETAN JASOTAKO ESKUMENEN BANAKETA EZ DA MUGIEZINA, ETA ALDAKETAK IZAN DITZAKE KONSTITUZIOAK ONARTUTAKO TEKNIKA BATZUEN BIDEZ:

584.a) Lege Markoak.

584.b) Transferentzia edo eskuordetze legeak.

584.c) Harmonizazioko Estatu Legeak.

584.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

585.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, ARARTEKOA HONAKO HONEN BIDEZ SORTU ETA ANTOLATZEN DA:

585.a) Lege Organikoa.

585.b) Eusko Legebiltzarraren legea.

585.c) Eusko Jaurlaritzaren dekretua.

585.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

586.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, ESTATUARENA DA, OSORIK, LEGE OROKORREKIN BAT ETORRITA, GRAZIA ESKUBIDEA ETA HONAKO HONEN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA:

586.a) Herriaren Defendatzailea.

586.b) Arartekoa.

586.c) Ministerio Fiskala.

586.d) Organo Arbitrala.

587.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIO ESTATUAREN LEGERIA BETEARAZTEA HONAKO HONETAN/HAUETAN:

587.a) Udal lurraldeen mugapenak.

587.b) Espetxe-legeria.

587.c) Antolamendu farmazeutikoa.

587.d) Euskadiko arrantza sektorearen antolamendua.

588.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, OSASUNAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIO:

588.a) Estatuak barne-osasunaren arloan emandako oinarrizko legedia garatzea eta betearaztea.

588.b) Estatuaren oinarrizko legedia garatzea eta betearaztea, salbu Gizarte Segurantzaren ekonomia-araubidea eratzten duten arauak.

588.c) Estatuak farmazia-produktuei buruz emandako legedia betearaztea.

588.d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

589.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN 16. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENEKOA DA HEZKUNTZA:

589.a) Hedadura, maila eta gradu guztietan, baina ez haren modalitatei eta espezialitatei dagokienez.

589.b) Hedadura eta maila guztietan, ez ordea graduetan, baina bai modalitatei eta espezialitatei dagokienez.

589.c) Hedadura, maila eta gradu, modalitate eta espezialitate guztietan.

589.d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

590.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL POLIZIA AUTONOMOAREN AGINTE GORENA HONAKO HONI DAGOKIO:

590.a) Gobernuaren ordezkariari.

590.b) Euskadiko Jaurlaritzari.

590.c) Lehendakariari.

590.d) Barne sailburuari.

591.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, ESTATUAREN TITULARTASUNEKOAK EZ DIREN ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA MUSEOEN ESKUMENA:

591.a) Estatuarena da eskusiboki.

591.b) Euskal Autonomia Erkidegoarena da eskusiboki.

591.c) Estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztekoa da.

591.d) Estatuarekin partekatua da.

592.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, IZAERAZ KULTURALAK, IRAKASKUNTZAKOAK ETA ARTISTIKOAK DIREN ETA BEREN FUNTZIOAK NAGUSIKI EUSKADIN BETETZEN DITUZTEN FUNDAZIO ETA ELKARTEEN ESKUMENA:

592.a) Estatuarena da eskusiboki.

592.b) Estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztekoa da.

592.c) Euskal Autonomia Erkidegoarena da eskusiboki.

592.d) Estatuaren sektore legeria betearaztekoa da.

593.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAGOEN ONDARE HISTORIKO, ARTISTIKO, MONUMENTAL, ARKEOLOGIKO ETA ZIENTIFIKOAREN ESKUDUNTZA:

593.a) Estatuarena da eskusiboki.

593.b) Euskal Autonomia Erkidegoarena da eskusiboki.

593.c) Estatuaren legeria betearaztekoa da.

593.d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

594.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIO ESTATUAREN LEGERIA BETEARAZTEA HONAKO GAI HAUETAN:

594.a) Euskadin egindako nazioarteko azokak.

594.b) Espetxe-legeria.

594.c) Jabegoaren Erregistratzaileen, Ganbio eta Burtsa Agenteen eta Merkatal Korredoreen izendapena.

594.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

595.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, HONAKO ESKUMEN HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DA ESKLUSIBOKI EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARENA?:

595.a) Erregimen lokala eta Euskadiko eta bertako toki administrazioko funtzionarioen Estatutua.

595.b) Gizarte Laguntza.

595.c) Nahitaezko desjabetzea, kontratuak eta emakida administratiboak.

595.d) Turismoa eta kirola.

18. GAIA. BOTERE JUDIZIALA. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA EUSKADIN. JUSTIZIAKO AUZITEGI NAGUSIA: ANTOLAMENDUA, ESPARRUA ETA OSAERA.

(596tik 630era)

596.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, BOTERE JUDIZIALA HEMEN ARAUTZEN DA:

596.a) III. Tituluan.

596.b) V. Tituluan.

596.c) VI. Tituluan.

596.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

597.- JUSTIZIA HONAKO HONEN IZENEAN ADMINISTRATZEN DA:

597.a) Espainiako herria.

597.b) Erregea.

597.c) Ematen duen epailea edo auzitegia.

597.d) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

598.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ADIERAZI: NORI DAGOKIO ERA GUZTIETAKO PROZESUETAN EPAITUTAKOA EPAITZEA ETA BETEARAZTEA?

598.a) Botere Judiziala osatzen duten epaile eta magistratuei.

598.b) Legeek ezarritako epaitegi eta auzitegiei eskusiboki, haiek ezarritako eskuduntza eta prozedura arauen arabera.

598.c) Auzitegi Gorenari.

598.d) Justiziako Auzitegi Nagusiei.

599.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ZEIN DA AUZITEGIEN ANTOLAMENDUAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN OINARRIA?

599.a) Jurisdikzio batasunaren printzipioa.

599.b) Justiziaren independentziaren printzipioa.

599.c) Legezketasun printzipioa.

599.d) Kontraesan printzipioa.

600.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ESPARRUAN PROZEDURA IZANGO DA:

600.a) Kontraesankorra.

600.b) Nagusiki publikoa.

600.c) Nagusiki ahozkoa.

600.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

601.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, EBAZPENAK IZANGO DIRA:

601.a) Ziodunak beti, eta jendaurrean emango dira.

601.b) Ziodunak beti, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

601.c) Ziodunak eta auzitegian emanak.

601.d) Ziodunak eta posta elektronikoz jakinaraziak.

602.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, JUSTIZIA DOAKOA IZANGO DA:

602.a) Araudiek hala xedatzen dutenean.

602.b) Legeak hala xedatzen duenean, eta auzitan aritzeko behar adina baliabiderik ez dutela egiaztatzen dutenentzat.

602.c) Justizia erabiltzen dutenek auzitan aritzeko behar adina baliabiderik ez dutela egiaztatzen dutenean.

602.d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

603.- MARKATU ERANTZUN ZUZENA; KONSTITUZIOAREN ARABERA:

603.a) Borondatezkoa da epaileen eta auzitegien epaiak eta gainerako ebazpen irmoak betetzea.

603.b) Herritarrentzat hautazkoa da epaileen eta auzitegien epaiak eta gainerako ebazpen irmoak betetzea.

603.c) Nahitaezkoa da epaileen eta auzitegien epaiak eta gainerako ebazpen irmoak betetzea.

603.d) Justiziari laguntzea Polizia Judizialik ez dagoenean soilik da nahitaezkoa.

604.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, HERRITARREK JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOAN DUTEN PARTE HARTZEA HONELA ISLATZEN DA:

604.a) Prozesu judizialetan duten parte hartzearen bidez.

604.b) Epaimahaiaren erakundearen bidez.

604.c) Hala behar duten prozesuetan frogak aurkeztuz.

604.d) Prozesu judizialetan prokuradorearen eta abokatuaren bidez pertsonatuz.

605.- JURISDIKZIOARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZEIN DEN JURISDIKZIO ORGANO GORENA ESPAINIAN:

605.a) Auzitegi Konstituzionala.

605.b) Auzitegi Gorena.

605.c) Auzitegi Nazionala.

605.d) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

606.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, SALBUESPENEZKO AUZITEGIAK:

606.a) Administrazio publikoen arteko desadostasunen gaineko aginpiderako baino ez daude baimenduta.

606.b) Gure Zigor Kodeak delitu espezifikoaren gaitan epaitutakoa epaitzeko eta betearazteko baino ez daude baimenduta.

606.c) Berariaz debekatzen ditu Konstituzioak.

606.d) Gizateriaren aurkako delituen aginpiderako baino ez daude baimenduta.

607.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN OHIZ KANPOKO FUNTZIONAMENDUAREN ERANTZULEA DA:

- 607.a) Administrazioa bera.
- 607.b) Estatua.
- 607.c) Justizia Ministerioa.
- 607.d) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

608.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, BOTERE JUDIZIALAREN PRESIDENTETZA HONI DAGOKIO:

- 608.a) Auzitegi Konstituzionalaren presidenteari.
- 608.b) Auzitegi Gorenaren presidenteari.
- 608.c) Auzitegi Nazionalaren presidenteari.
- 608.d) Estatuko Fiskal Nagusiari.

609.- AUZITEGI NAZIONALEAN EZ DAGO HONAKO ARETO HAU:

- 609.a) Administrazioarekiko auziena.
- 609.b) Arlo zibilekoa.
- 609.c) Arlo sozialekoa.
- 609.d) Zigor arlokoa.

610.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, SEINALATU BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DEN BOTERE JUDIZIALEKO EPAILEEI ETA MAGISTRATUEI APLIKAGARRIA:

- 610.a) Independente, mugiezin eta erantzukizunik gabekoak dira.
- 610.b) Independente, mugiezin eta erantzule dira, eta legearen menpe besterik ez daude.
- 610.c) Independente, mugiezin eta erantzule dira, eta ez daude soilik legearen menpe.
- 610.d) Baieztapen guztiak zuzenak dira.

611.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, NORI DAGOKIO AUZITEGI GORENAREN PRESIDENTEAREN IZENDAPENA PROPOSATZEA?

611.a) Gorte Nagusiei.

611.b) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidenteari.

611.c) Auzitegi Konstituzionalari.

611.d) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.

612.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA OSATZEN DUTE AUZITEGI GORENAREN PRESIDENTEAK, ZEINA BURU IZANGO DEN, ETA:

612.a) Erregeak izendatutako hogeita lau kidek bost urteko aldian.

612.b) Erregeak izendatutako hogeitaz hamar kidek bost urteko aldian.

612.c) Erregeak izendatutako hogeita bi kidek lau urteko aldian.

612.d) Erregeak izendatutako hogeita bi kidek lau urteko aldian.

613.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, POLIZIA JUDIZIALA HONAKO HONEN/HAUEN MENDEKO DA:

613.a) Epaileak.

613.b) Auzitegiak.

613.c) Ministerio Fiskala.

613.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

614.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ZEIN DA MINISTERIO FISKALAREN MISIOA?

614.a) Justiziaren ekintza sustatzea bultzatzea eskubideen legezotasuna, herritarren eskubideak eta epaileen elkarte profesionalen interesak defendatzeko.

614.b) Justiziaren ekintza bultzatzea eskubideen legezotasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa defendatzeko.

614.c) Justiziaren ekintza bultzatzea eskubideen legezotasuna, demandatuen eskubideak eta adingabeen interesak defendatzeko.

614.d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

615.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ADIERAZI ZER TITULU EDO KAPITULUTAN ARAUTZEN DEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA EUSKADIN:

615.a) II. Titulua, II. Kapituluua.

615.b) III. Titulua, III. Kapituluua.

615.c) II. Titulua, III. Kapituluua.

615.d) III. Titulua, IV. Kapituluua.

616.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOARI DAGOKIONEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK ESKUMEN HAUEK IZANGO DITU BERE LURRALDEAN:

616.a) Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari aitortu, erreserbatu edo esleitutakoak.

616.b) Botere Judizialaren eta Mugape eta Planta Judizialaren Lege Organikoek autonomia erkidegoei aitortu, erreserbatu edo esleitutakoak.

616.c) Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek autonomia erkidegoei aitortu, erreserbatu edo esleitutakoak.

616.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

617.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, MARKATU ERANTZUN ZUZENA EUSKADIKO JURISDIKZIO ORGANOEEN ESKUMENAREN HEDADURARI DAGOKIONEZ:

617.a) Ordena zibilean, instantzia eta gradu guztietara. Kasazio eta berrikuspen helegiteak barne Euskadiko berezko Zuzenbide Zibil Foraleko gaietan.

617.b) Zigor ordenan eta ordena sozialean, instantzia eta gradu guztietan, kasazio eta berrikuspen helegiteak izan ezik.

617.c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen ordenan, instantzia eta gradu guztietan Euskadiko Administrazioak diktatutako ekintzak direnean Autonomia Elkarteari eskusiboki dagokion legeriaren gaietan.

617.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

618.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ZER AUZITEGIK EBATZIKO DITU EUSKADIKO ORGANO JUDIZIALEN ETA ESTATUKO GAINERAKOEN ARTEKO ESKUDUNTZA ETA JURISDIKZIO GATAZKAK?

- 618.a) Auzitegi Konstituzionalak.
- 618.b) Auzitegi Gorenak.
- 618.c) Auzitegi Nazionalak.
- 618.d) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak.

619.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA HONAKO ARETO HAUEK OSATZEN DUTE:

- 619.a) Arlo Zibileko eta Zigor arloko aretoa.
- 619.b) Administrazioarekiko auzien aretoa.
- 619.c) Arlo sozialeko aretoa.
- 619.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

620.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, NORK IZENDATZEN DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN PRESIDENTEA?

- 620.a) Erregeak.
- 620.b) Eusko Legebiltzarrak.
- 620.c) Lehendakariak.
- 620.d) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.

621.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAK 35. ARTIKULUAK XEDATZEN DU MAGISTRATU, EPAILE ETA IDAZKARIEN IZENDAPENA HONAKO HAUETAN XEDATUTAKO MODUAN EGINGO DELA:

- 621.a) Autonomia Estatutuan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan.
- 621.b) Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoetan.
- 621.c) Konstituzioan, Autonomia Estatutuan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan.
- 621.d) Erantzun guztiak okerrak dira.

622.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, MAGISTRATU, EPAILE ETA IDAZKARIAK IZENDATZEKO, LEHENTASUNEZKO MERITU IZANGO DA HONAKO HONEN EZAGUTZA:

622.a) Euskal foru-zuzenbidea.

622.b) Euskara.

622.c) Euskal foru-zuzenbidea eta euskara.

622.d) Euskara eta Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuk.

623.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKARIZ, ESKUDUNTZA DUEN ORGANOAK EGIN BEHARKO DITU MAGISTRATU, EPAILE ETA IDAZKARIEN PLAZA HUTSAK BETETZEKO LEHIAKETA ETA OPOSIZIOETARAKO DEIALDIAK EUSKADIN, HONAKO HONEK XEDATUTAKOARI JARRAITUZ:

623.a) Botere Judizialaren Lege Organikoak.

623.b) Euskal Funtzio Publikoaren Legeak.

623.c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak.

623.d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

624.- KONSTITUZIOAREN ETA EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, NOLA GAUZATU AHAL IZANGO DUTE HERRITARREK HERRI EKINTZA?

624.a) Idatzizko eskarien bidez.

624.b) Eskari indibidual edo kolektiboen bidez.

624.c) Epaimahaiaren Erakundearen bidez.

624.d) Auzitegietan egiten diren entzunaldi publikoetan parte hartuz.

625.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ADIERAZI: NOLA BETETZEN DITU BERE FUNTZIOAK MINISTERIO FISKALAK?

625.a) Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoak ezartzen duenaren arabera.

625.b) Organo propioen bidez.

625.c) Lege Organiko bidez ezartzen denaren arabera.

625.d) Justizia Ministerioak ezarritakoaren arabera.

626.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESTATUKO FISKAL NAGUSIA HONEK IZENDATUKO DU:

626.a) Erregeak.

626.b) Gobernuak.

626.c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.

626.d) Justizia Ministerioak.

627.- MINISTERIO FISKALEKO KIDEEN MUGIEZINTASUNA:

627.a) Haien independentziaren eta inpartzialtasunaren berme gisa ezartzen da.

627.b) Esku hartzen duten kontu motaren arabera ezartzen da.

627.c) Eskubide konstituzionala da.

627.d) Ez dute aitortua beren Estatutuan.

628.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, EPAILEAK ETA MAGISTRATUAK IZAN AL DAITEZKE ALDERDI POLITIKOETAKO KIDE AKTIBO DAUDEN BITARTEAN?

628.a) Baimentzen da elkarte profesionalen bidez egiten baldin bada soilik.

628.b) Debekatuta dago.

628.c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurretiazko eta berariazko baimena behar da.

628.d) Libre da, haren antolaketan eta funtzionamenduan barne demokrazia arauak errespetatzen baldin badira.

629.- KONSTITUZIOAREN ARABERA, JUSTIZIAREN INDEPENDENTZIAREN ETA INPARTZIALTASUNAREN BERME GISA, EPAILEAK ETA MAGISTRATUAK BANATU, ALDI BATERAKO KARGUGABETU EDO LEKUALDATU AHAL IZANGO DIRA:

629.a) Legean xedatutako kausetako bat gauzatzen denean soilik.

629.b) Ezagutzen den edozein kontutan.

629.c) Justizia Ministerioak hala eskatzen duenean.

629.d) Inoiz ez.

630.- EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL POLIZIA AUTONOMOA, POLIZIA JUDIZIAL GISA JARDUTEN DENEAN, HONAKO HONEN ZERBITZUAN ETA HONAKO HONEN MENDE EGONGO DA:

630.a) Justizia administrazioa, lege prozesalek ezarritako baldintzetan.

630.b) Justizia auzitegi gorena.

630.c) Ministerio Fiskala.

630.d) Lehendakaria.

GALDEREN AURKIBIDEA, GAIKA

ZK	GAIA	GALDERAK (G)	
		G-tik	G-arte
1	1. GAIA. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.	1	35
2	2. GAIA. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.	36	70
3	3. GAIA. Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien udal-antolaketa (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. titulua).	71	105
4	4. GAIA. Bilboko Udalaren antolaketa. Erregelamendu organikoak.	106	140
5	5. GAIA. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.	141	175
6	11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, EAEko enplegatu publikoaren ondainsari sistema. Eskubideak, betebeharrak, jokabide-kodea. EAEko enplegatu publikoen bateraezintasunak eta erantzukizunak. Diziplina-araubidea.	176	210
7	7. GAIA. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.	211	245
8	8. GAIA. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea.	246	280
9	9. GAIA. Datuen babesa: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Erregelamendu horrek 95/46/EB Zuzentaraua baliogabetu du.	281	315

10	10. GAIA. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legea. Andrazkoen eta gizonezkoen arteko aukera Berdintasunerako Udalaren V.	316	350
11	11. GAIA. Kontratazio administratiboa. Motak: kontratu publikoen elementuak eta subjektuak, eta objektua eta kausa. Kontratazioaren forma eta kontratistak aukeratzeko sistemak. Kontratuak formalizatzea.	351	385
12	12. GAIA. Giza baliabideak erregulatzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.	386	420
13	13. GAIA. Toki-erakundeen zerbitzuko langileak: motak eta araubide juridikoa. Toki-administrazioko funtzio publikoa: toki-administrazioko funtzionario motak. Langileak antolatzeko tresnak: plantillak eta lanpostuen zerrendak.	421	455
14	14. GAIA. Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontuaren egitura. Aurrekontuak egin eta onestea. Aurrekontuaren luzapena. Aurrekontua betearaztea eta likidatzea.	456	490
15	15. GAIA. Toki-erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak.	491	525
16	16. GAIA. Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzailea. Arartekoa.	526	560
17	17. GAIA. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzea. Nola banatzen diren eskumenak Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia-estatutuan.	561	595
18	18. GAIA. Botere judiziala. Justizia Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, eremua eta osaera.	596	630

4. EDIZIO HONETAN ALDATUTAKO GALDEREN LABURPEN TAULA

Gai	Titulu	Galderak (G)	
		G-tik	G-arte
6	11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa,	176	210
8	31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea.	248	-
10	1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legea	316	342
11	Kontratazio administratiboa.	378	-
12	Giza baliabideak erregulatzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.	405 406	407

(*)

LEGE OHARRA

DATU IREKIAK BERRERABILTZeko BALDINTZA OROKORRAK

Baldintza orokorrak nahitaez bete beharrekoak dira

Baldintza orokor hauek edozein agente berrerabiltzailer behartzen dute, beraien peko dokumentuak erabiltze hutsagatik.

Jabetza intelektualeko eskubideak berrerabiltzeko eta eskusibitaterik gabe lagatzeko baimena.

Baldintza orokor hauek baimena ematen dute beraien peko dokumentuak berrerabiltzeko, merkataritzazko nahiz merkataritzaz besteko xedeetarako. Aditzen da berrerabiltzeari dela Bilboko Udalaren organoen esku dauden dokumentuak erabiltzea pertsona fisikoek edo juridikoek merkataritzazko edo merkataritzaz besteko xedeetarako, betiere erabilera hori ez bada administrazio-jarduera publikoa. Berrerabiltzeari baimenduak bere baitan hartzen du, esate baterako, informazioaren kopia, zabalkundea, aldaketa, egokitzea, erauzketa, berrantolaketa eta konbinazioa.

Dokumentuaren kontzeptua 37/2007 Legearen 3. artikularen 2. apartatuan dago ezarrita (37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa), eta, beraz, informazio oro sartzen da kontzeptu horretan, edozein dela ere informazioaren euskarria, materiala edo elektronikoa, edo edozein dela ere haren adierazpide grafikoa, soinuzkoa nahiz erabilitako irudizkoa, eta hor sartzen dira, ondorioz, baita datuak ere, diren xehakatuak edo diren "gordinak".

Baimen horri berekin dakar, era berean, doan eta modu ez-esklusiboan lagatzea dokumentu horiei dagozkien jabetza intelektualeko eskubideak, hala balegokio, eta, hala baimenduak dira, edonorentzat, eta betiere Legeak baimendutako gehienezko epean, erreproduktzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketako jarduerak, baimendutako berreerabilpen-jarduera hori gauzatzeko beharrezkoak direnak, edozein direla ere modalitatea eta formatua.

Berrerabiltzeko baldintza orokorrak

Baldintza orokor hauek bete behar dira beraien peko dokumentuak berrerabiltzeko:

1. Ezin da bestelakotu informazioaren zentzua.
2. Berrerabiltzeari diren dokumentuen jatorria aipatu egin behar da. Hara nola egin daitekeen aipamen hori: "Datuen jatorria: Bilboko Udala".
3. Berrerabiltzeari diren dokumentuen azken eguneratzea noiz egin zen aipatu behar da, jatorrizko dokumentuan hala aipatzen bazen.
4. Ezingo da adierazi, iradoki edo aieruz esan ezen Bilboko Udalak, zeina berrerabiltzeari den informazioaren titularra baita, babestu edo lagundu egiten duela informazio horren berrerabilera.

5. Beren horretan gorde behar dira eta ezin dira aldatu ez ezabatu eguneratze-datari buruzko metadatuak, eta berrerabiltzeko utzitako kodumentuan jasotako berrerabiltze-baldintzak.

Erantzukizunetik salbuestea

Berrerabiltzen duten erabiltzaile edo agenteek beren kontura eta arriskua beren gain hartuta erabiliko dituzte datuak, eta haiei ez beste inori dagokie hirugarrenen aurrean erantzutea erabilerara horren ondoriozko kalteengatik.

Bilboko Udalak ez du erantzukizunik izango agente berrerabiltzaileek beraren informazioaz egiten duten erabileraz, eta ezta era jandako makur edo diru galerez, baldin eta, zuzenean nahiz zeharka, kalte ekonomikoa eragiten badute edo eragin ahal badute, materialak edo datuen gaineoak, berrerabilitako informazioaren erabileraren eraginez.

Bilboko Udalak ez du bermatzen berrerabilitako dokumentuak geroan ere eta jarraitasunez eskura egongo direnik, ez edukiari dabokionez, ez formari dagokionez, eta ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik dokumentuek izan ditzaketen akatsengatik edo dokumentuek hau edo bestea ez jasotzeagatik.

Agente berrerabiltzailearen erantzukizuna

Agente berrerabiltzilea, hala, sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen inguruan aplikatzekoa den arudiaren pean dago, 37/2007 Legearen 11. artikuluan aurrikusitako zehapen-araubidea barne (37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa).

oooOooo